



**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN LEGE
GARAPENERAKO BATZORDE-ATALAK PRESTATURIKO
TXOSTENA, 1999KO ABENDUAREN 10EKO SAIOAN EUSKO
LEGEBILTZARRAK ONARTU ZUEN 4GARREN
ERABAKIAREKIN LOTUA**

2001eko urtarrila

AURKIBIDEA

I.- SARRERA

II.- HIZKUNTZEN ARLOKO ABIABURU NAGUSIAK

1. Hizkuntzen ofizialtasuna
2. Gaztelania jakin beharra
3. Lurralde bateko berezko hizkuntza
4. Bereizkeriarik ez hizkuntza dela-eta

III.- HIZKUNTZAREN ARLOKO ESKUMENEN BANAKETA

1. Planteamendu orokorra
2. Ofizialtasunaren lurraldetasuna
3. Laburbilduz

IV.- GIZARTEKO HEDABIDEAK. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

1. Komunikabideez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren nuerrien inguruko hurbilpen juridikoa.
2. Komunikabideen eta hizkuntz normalizazioaren arloko eskumenak
3. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legean komunikabideez ezarritakoa
 - 3.1. Aplikatu beharreko xedapenak
 - 3.2. Iruzkina
4. Estatuko legerian komunikabideen hizkuntza araubidez araututakoa
 - 4.1. Begirunea hizkuntz aniztasunari
 - 4.2. Telebista emanaldietako edukiak: hizkuntz kuotak
5. EAEko komunikabideak
6. RTVEren emisio-zentroak
7. Telebista pribatua

8. Irratia
9. Lurgaineko uhinen bidezko herri-telebistak
10. Prentsa
11. Kable bidezko komunikabideak
12. Satelite bidezko komunikabideak
13. Lurgaineko uhinen bidezko komunikabide digitalak
14. Informazioaren teknologia berriak

V.- KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BERMEA ETA EREMU SOZIOEKONOMIKOA

1. Sarrera
2. Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak zer aurreikusten duen
3. Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak
 - 3.1. Euskal legedian kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen araudirik eza
 - 3.2. Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arautzeko aurkerak
 - 3.2.1. Gogoeta zenbait, beste ezer baino lehen
 - 3.2.2. Hizkuntz eskubideen definizioa
 - 3.2.3. Hizkuntz eskubideen bermea
4. Etiketen hizkuntz araubidea
 - 4.1. Sarrera
 - 4.2. Europako Erkidegoko zuzenbideak dakarren erregimena
 - 4.3. Estatuko zuzenbidea
 - 4.3.1. Aplikatu daitezkeen arauak
 - 4.3.2. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia
 - 4.4. EAEk zernolako arauak aurrera ateratzeko aukera duen
5. Eremu sozioekonomikoa
 - 5.1. Aldez aurretikoak
 - 5.2. Euskara enpresetan normaltzearekin zerikusia duen araudia
 - 5.2.1. Gaur egungo araudia
 - 5.2.2. Zernolako arauak argitara daitezkeen
 - 5.3. Enpresa, lan-harremanetarako gunen denaldetik

VI.- PIZGARRI FISKALAK

1. Hizkuntzaren normalkuntza sustatzeko neurriak
2. Zerga-sistemaren bidezko pizgarri fiskalak
3. Toki mailako tributuen bidezko pizgarri fiskalei buruzko aipamen berezia

VII.- TOKIKO HERRI-ERAKUNDEAK, ETA GEHIENGO EUSKALDUNA DUTEN GUNEEN AIPAMEN BEREZIA

1. Hurbilpen juridikoa Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren neurrietara, eta toki-eremuko herri-erakundeei dagokienez, gehiengo euskalduna duten guneen aipamen berezia
2. Euskararen erabilera arautzea toki-administrazioaren eremuan EAEn
 - 2.1. Euskararen erabilera arautzea herri-administrazioetan oro har
 - 2.2. Euskararen erabileraren azterketa toki-administrazioaren eremuan, EAEn
3. Auzitegi Gorenaren azken aldiko jurisprudenziak planteatu dituen arazo juridikoak euskara eta toki-administrazioari dagokionez
5. Beharrezko lege-garapena normalkuntzako ekimenak aurrera eramateko toki-eremuko herri-erakundeetan, gehiengo euskalduna duten gunetan bereziki

VIII. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KOKATUTAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren neurriak, euskara Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Estatuko administrazioari dagokionez
2. Beharrezko lege garapena euskararen erabilera normalizatzeko ekimenetan aurrera egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Estatuko administrazioan
 - 2.1. Hizkuntz eskubideak arautzea
 - 2.2. Pertsonalaren hizkuntz gaitasuna
 - 2.3. Erregistro publikoak
3. Euskararen erabilera Justizia Administrazioan normalizatzeko ekimenak

bultzatzeko behar den lege garapena

3.1. Sarrera

3.2. Hizkuntz normalizazioaren arloko eskumen-araubidea Justizia Administrazioan

3.3. Justizia Administrazioan euskararen erabilera arautzea

3.4. Karrera judizialeko kideen eta Justizia Administrazioko langileen hizkuntz gaitasuna arautzea

3.5. Hizkuntz normalkuntza Justizia Administrazioan eta lurralde-eskumena zehazteko arauak

3.6. Hizkuntz normalizazioa Justizia administrazioan eta banaketa-arauak

ONDORIOAK

I. TITULUA

SARRERA

Esan gabe doa hizkuntzaz hitz egiteko lasaitasuna, zuhurtzia eta, batez ere, zentzu handia behar direla, hizkuntza anitzeko komunitateetan herritar guztien integrazioa erraztuko duten topaguneak eta oreka aurkitu ditzagun. Hizkuntza ofizial bat baino gehiago duen lurraldeak, harreman publikoetan zein pribatuetan, hizkuntza aukeratzeko askatasuna bermatu behar die bertako herritarrei, eta lurralde horretako erakunde publikoak dira, inolako diskriminazio barik eta bakoitzak bere eskumenen barruan, denen hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura dutenak.

Horiek dira, hain zuzen, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ematen dituen irizpideak (Plana 1998ko ekainaren 24an onetsi zuen Euskararen Aholku Batzordeak, urte bereko uztailaren 28an berretsi zuen Gobernu Kontseiluak eta 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak) eta aurrerantzean ere maiz joko dugu irizpideotara.

Baina, lehendabizi, hizkuntzen inguruko eztabaidari dramatismoa kentzeko eta gaia normalizatzeko, hizkuntza aniztasuna uste baino ugariagoa dela adierazi behar da. Oro har, esan daiteke Europan ez dagoela hizkuntza gutxiturik ez duen estaturik eta, jakina, Afrikan, Amerikan, Asian eta Ozeanian hizkuntza aniztasuna da araua eta homogeneitate linguistikoa salbuespena. Europar Batasunean bertan ere eztabaida sutuenetarikoa kide diren estatuetakoa hizkuntza ofizial guztien arteko konbibentziak eta lan-hizkuntzat hartzeak eskatuko lukeen araudiak sortu dute. Arazoa, gainera, nahitaez eztabaidatu eta konpondu beharko da Batasunari Europako ekialdeko herrialdeak atxikitzen zaizkionean, nahiz eta akordio batera iristea zaila izango den, estatu bakoitzak bertako hizkuntzen alde egingo du eta.

Hausnarketa orokor horren barruan, txosten honen helburua Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10eko bilkuran onetsitako 4. Erabakiari erantzutea da. Zera dio hitzez hitz erabakiak:

“Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du euskararen erabilera normalizatzeari buruzko legedia garatzea, bai gunerik euskaldunenetan, bai hedabideetan, zein Euskal Herrian egoitza duen Estatuko Administrazioan, esparru sozioekonomikoan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan, eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen bermean, hobari fiskaletan zein toki-erakundeetan euskara erabiltzeko normalizazio-ekimenek aurrera egin ditzaten.

Hortaz, Legebiltzar honek Lege Garapenerako Batzorde-atalaren lana urtebeteko epean amaitu dezala eta ondoren emaitza Eusko Legebiltzarrari aurkez diezaiola agintzen dio Euskararen Aholku Batzordeari.”

Hori dela eta, euskararen arloan indarrean dagoen legediari erradiografia juridikoa egin diogu zehaztu diren eremuetan, legedi horren gabeziarik larrienak adierazita —ikuspegi negatibotik— eta euskararen erabilera normalizatzen lagundu dezaketen hautabide juridikoak formulatuta —ikuspegi positibotik—.

Erabakiak berak zehazten du txostenaren edukia. Beraz, batzorde-atal honek atera dituen ondorioak eduki horiei lotu zaizkie eta ondoriook ez dituzte agortzen analisi zabalagoak ekar ditzakeen proposamen guztiak. Beste modu batera esanda, batzorde-atalak prestatu dituen txostena eta ondorioak Legebiltzarrak aipatzen dituen eremuetara mugatzen dira, ez baitira bertan sartzen, euskararen erabilera normalizatzeko eman daitezkeen araei begira, ikuspegi juridikotik analizatu daitezkeen beste arlo batzuk.

Horrenbestez, eta azalpenari helduta, ezinbestekoa da hizkuntza aniztasunaren oinarriak antolatu dituzten abiaburu juridikoak labur-labur aztertzea,

Konstituzioaren 3. artikulua eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutoko 6. artikulua ardatz harturik (II). Ondoren, hizkuntza gaietako eskumenen banaketa aztertuko da, gero, lurralde administrazioek eta erakundeek dituzten ahalgoak, eskurantzak eta legegintzaren eta betearazpenaren arloko eginkizunak azaltzeko (III).

Behin hausnarketa orokorra eginda, Legebiltzarraren Erabakian zehaztutako eremuetan hizkuntza normalkuntza lortzeko aukera juridikoak aztertuko ditugu, hots: hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak (IV), kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen bermea eta arlo sozio-ekonomikoa (V), hobari fiskalak (VI), toki erakundeak, gunerik euskaldunenetakoak, batik bat, (VII) eta Euskal Herrian egoitza duen Estatuko Administrazioa (VIII).

II. TITULUA

HIZKUNTZEN ARLOKO ABIABURU NAGUSIAK

Konstituzioak 3.1. artikuluko lehen paragrafoan Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelania dela adierazten du eta horrekin, jakina, beste hizkuntza ofizialek ez duten tokian jartzen du, gaztelania baita autonomia erkidego guztietan, eta ondorioz Estatuko lurralde osoan, ofizial den bakarra.

Beste alde batetik, Konstituzioaren 3.2. artikulua zera ezarri du: “Espainiako gainerako hizkuntzak ere zein bere autonomia erkidegoan ofizial izango dira, kasuan kasuko estatutuaren arabera”. Beraz, gaztelaniarentzat ezarri den ofizialtasun bera ezarri da Espainiako gainerako hizkuntzei dagokienez ere, baina bakoitza bere autonomia erkidegoko lurraldera mugaturik.

Orobat, Konstituzioak gaztelania jakiteko beharra ezartzen du zuzenean, baita inor hizkuntza bat edo beste erabiltzeagatik ez diskriminatzeko printzipioa ere,

printzipio hau zeharka, aipatu gabe, ezartzen duen arren. Era berean, estatutu batzuek autonomia erkidegoko berezko hizkuntza zein den adierazten dute, Kataluniakoak edo Euskadikoak egiten duten bezala, berezko hizkuntzatzat jotzen baitituzte Kataluniakoak katalana eta euskara Euskadikoak.

Gure ustez, hizkuntzen arloko abiaburu nagusiak, zalantzarik gabe, ofizialtasuna eta hizkuntzaren kariatz inor ez diskriminatzea dira. Gaztelania jakin beharra eta erkidegoko berezko hizkuntzaren printzipioa, aldiz, abiaburu osagarritzat jo daitezke. Aztertu dezagun hori guztia sakonago, abiaburu bakoitzaren edukia labur-labur azalduz.

1. HIZKUNTZEN OFIZIALTASUNA

Konstituzio Auzitegiak zera adierazi du zentzu handiz: “hizkuntza ofizial izateko, gizartean duen presentzia eta garrantzia gora-behera, botere publikoetan nahiz botere publikoen artean eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuekin, balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin komunikatzeko ohiko tresnatzat hartu behar dute” (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia). Horrenbestez, hizkuntza bat lurraldean ofizialtzat hartzen den momentutik eragozpenik gabe erabil daiteke eraginkortasun juridiko osoz harreman publiko eta pribatu guztietan, hau da, ofizialtasunaren lehenbiziko ondorio juridikoa hizkuntza erabiltzeko eskubidea da, eta erabili ere modu aktiboan zein pasiboan erabiltzeko (norberak edozein kasutan erabiltzeko eskubidea eta erantzuna norberaren aukerako hizkuntzan jasotzeko eskubidea bestea erakunde publikoa denean), eta horrek berekin dakar, bistan da, botere publikoen eta administrazioaren egiturak hizkuntza anitzen ofizialtasunera moldatu beharra.

Ahobatez onartzen dute denek, hizkuntza bat ofizial egiteak dakarren beste ondorio bat zera dela, hots, botere publikoek euren hezkuntza planetan hizkuntza ofizial direnak sartu beharra dituztela, derrigorreko hezkuntza gainditu duen guztiak hizkuntza ofizialak ezagutzeko bestean [vid. horretaz LOGSEren 19.a) artikulua edo, Euskal Herrian, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993

Legearen 3.2.g) artikulua]. Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiak adierazi du “Estatu osoaren (autonomia erkidegoena ere bai) betebeharrak konstituzionalak da gaztelaniaren eta berezko hizkuntza ofizialak duen erkidegoko hizkuntzaren ezagutza ziurtatzea..., eta horrek berekin dakar, jakina, bi hizkuntzak irakatsi behar direla erkidegoko ikastetxeetan helburu hori erdiesteko moduko intentsitatearekin. Eta betebeharrak hori Estatutotik ezezik Konstituziotik bertatik ere badator (3. art.)”. Horri ondokoa gaineratu dio Konstituzioaren interpretatzaile gorenak: “gutxieneko ikastordu--kopuruaren araudiak bi hizkuntza ofizialak behar bezala ikasteko aukerarik ematen ez badu, ez da betebeharrak konstituzionalak betetzen” (Konstituzio Auzitegiaren 88/1983 epaia). Beraz, ez da aski hizkuntza ofizialen irakaskuntza bermatzea, horretaz gain, modu eraginkorrean antolatu behar baita irakaskuntza, derrigorreko irakaskuntza amaitzen duten ikasle guztiek lurraldeko hizkuntza ofizialak jakin ditzaten, hautatu duten ikastetxea edo eredia izan direnak izan direla.

Azkenik, hizkuntza ofizialak izatearen beste ondorio bat litzateke, logikari jarraiki, —Kataluniako Aholkularitza Batzordeak 35/1982 Irizpenean egin zuen bezala—, ezin izatea Administrazioak darabilen hizkuntza ofizialak ez dakizula alegatu, Administrazioak berak ikastetxeetan hizkuntza ofizialak eraz irakasten dituela bermatzen duenean, Konstituzioak agintzen diona beteta. Esan beharrik ere ez dago gaztelania jakitea ziurtatuta dagoela, zeren irakaskuntzak, Espainia osoan nahitaezko bihurtu zenez geroztik, hizkuntza ofizialak Estatu osoan ikastea bermatzen baitu. Ostera, Espainiako gainerako hizkuntza ofizialen irakaskuntza oraintsu hasi da eta hizkuntza horiek ez dira hain zorionekoak izan, beraz, belaunaldi berrien irakaskuntza eraginkorrean oinarria duen normalizazio prozesua behar dute.

2. GAZTELANIA JAKIN BEHARRA

Hizkuntzaren arloan, Konstituzioaren testuan lehenbiziko soaldian berehala nabarmentzen da gaztelaniaren, eta Espainiako gainerako hizkuntzen, ofizialtasunarekin batera, gaztelania jakiteko beharra ezartzen dela. Klausula

hori ez zen aztertu gabe geratu eztabaida konstituzionaletan, baina hala ere ez zen aldatu, eta aipatzekoa da arreta handia jaso zuela, batetik, batzuek kentzeko eskatu zutelako eta, bestetik, gainerako hizkuntza ofizialak jakiteko beharra ere ezartzeko eskatu zutelako beste batzuek. Izan ziren, gainera, espainiar guztiei gaztelera jakiteko obligazioa ezartzeaz gain erabiltzeko agindu nahi ziena, hizkuntzen ofizialkidetasunak ematen duen aukeratzeko ahalmenaren kaltetan. Baina ez ziren proposamen horiek onartu eta gaztelera ezagutzeko beharra baino ez zen jaso, nahiz eta edozein hizkuntza ofizial balio eta eraginkortasun juridiko osoz erabiltzeko eskubidea onartu zen. Horrek esan nahi du Konstituzioak ez duela behartzen bi hizkuntza ofizial duten autonomia erkidegoetan gaztelera erabiltzera, aitzitik, hautatzen den hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatzen du.

Bestalde, Konstituziotik autonomia erkidego elebidunetako hizkuntza ofizialen eta gaztelararen arteko berdintasun juridikorik eza ateratzen duenak, gaztelera ezagutzeko beharra baino ez dela ezartzen kontuan hartuta, sakonago hausnartu behar du eta zera galdetu bere buruari, nola bermatzen dute botere publikoek gaztelera ezagutzeko beharra? Erantzuna, jakina, derrigorreko irakaskuntzaren bidetik eta hezkuntzako planetan sartuta etorriko da. Alabaina, gogoan izan behar da gauza bera ondoriozta daitekeela ofizialtasunaren adierazpenetik, Estatuak, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, derrigorreko hezkuntzan hizkuntza ofizialak modu eraginkorrean irakasteko behar konstituzionala baitu. Beraz, betebeharrak konstituzional horren ondorioz, autonomia erkidego elebidunetan bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko dituzte derrigorreko irakaskuntza gainditu dutenek, ofiziala gaztelera baino ez den lurraldean ez bezala.

Laburbilduz, Konstituzioan gaztelania jakin beharra ezarri duen klausulak ez die ezer berezirik eranstean hizkuntzen ofizialtasunaren ondorio juridikoei, "betebeharra" "gaztelania"ri dagokiola pentsatzea izan ezik, hain zuzen ere Estatu osoan hitz egiten eta irakasten den hizkuntza delako, pertsonen egoitza eta auzotartasun gora-behera, Konstituzio onetsi aurretik zein onetsi ondoren.

3. LURRALDE BATEKO BEREZKO HIZKUNTZA

Autonomia estatutu batzuetan garrantzi berezia eman zaio hizkuntza baten berezkotasunari, erakunde publikoek autonomia erkidegoko berezko hizkuntzaren erabilera lehenetsi ahal izateko. Ildo honetatik, Kataluniako Hizkuntza Politikari buruzko 1/1998 Legearen hitzaurrean ezarri da katalanera berezko hizkuntza izateak botere publikoak behartzen dituela babestera, erabiltzera eta maila guztietan erabilera publikoa bultzatzera. Legearen 2. artikuluan horixe bera adierazi da berriz ere: “Katalana berezko hizkuntza izanik, Kataluniako erakunde guztien hizkuntza ere bada eta, batez ere, Generalitaten administrazioarena, toki administrazioarena, erakunde publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, hedabide instituzionalena, irakaskuntzarena eta toponimiarena”.

Nolanahi ere, bi hizkuntza ofizial dagoen erkidegoetan, berezkotasunaren printzipioak ezin dio itzalik egin ofizialkidetasunaren printzipioari. Jakina, modulatu dezake, baina ezin du ezarri, oro har, elebakartasun printzipiorik, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin edo formularikoak balio eta eraginkortasun juridiko osoa baitauka. Horrenbestez, administrazio publikoek, herritarrekin dauzkaten harremanetan, herritarrek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabili behar dute, erkidegoko berezko hizkuntza dela nahiz ez dela, nahiz eta barruko lan-harremanetan, erkidegoko administrazioaren jardueran, hizkuntza bat hautatu dezakeen, gure ordenamendu juridikoak horretarako bide ematen baitu, administrazioaren zerbitzupeko langileek hizkuntz gaitasuna duten bitartean.

Beraz, eta laburbilduz, bi hizkuntza ofizial izateak herritarrek uneoro hizkuntza hautatu ahal izatea babesten du, eta berezko hizkuntzaren abiaburuak Administrazioak barruko harremanetan hura lehenestea eta –nahi izanez gero- lan-hizkuntza gisa hura soilik erabiltzea ahalbideratzen du. Horixe gertatzen da gaztelaniarekin Estatuaren Administrazio Periferikoan, Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 4/1999 Legearen 36.1. artikuluan xedatutakoa dela bide, eta gauza bera gerta daiteke, alderantziz, autonomia erkidego bakoitzeko administrazioan bertako berezko hizkuntzarekin.

4. BEREIZKERIARIK EZ HIZKUNTZA DELA ETA

Sistema ixteko, berebiziko garrantzia du hizkuntza dela-eta inor ez bereizteko abiaburuak, funtsezko eskubideen oinarria baita abiaburu hori, eskubideok erabiltzeko, hizkuntza ofizialaren aukera edo eskakizuna tartean direnean. Agerikoa zen Konstituzioaren 14. artikuluan hizkuntza hitza sartu behar zela, batez ere, nazioarteko adierazpenekin bat etortzeko. Horri dagokionez, kontuan izan behar da Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunean (2.2. art.) eta Giza Eskubideen Babeserako Europako Itunean (14. art.) halaxe ageri dela eta Espainiak biak berretsi dituela.

Hala ere, Konstituzioak jaso ez arren, printzipio hori zuzenean aipatu gabe sartuta dagoen aztertzea merezi du, ahalegin dialektiko handirik egin gabe ikus baitaiteke ez dela Konstituzioaren 14. artikulua modu hertsian tipifikatzeko borondaterik izan, aldiz, edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial sartzen dela, hizkuntza barne, jakina; gainera, 10.2. artikulua eragin zuzena funtsezko eskubideei buruzko arauak Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen arabera interpretatzeko beharrean agertzen dela kontuan hartuta.

Bistan da abiaburu horrek Estatu osoko hizkuntza ofizialari dagokionez zein autonomia erkidegoetako hizkuntzei dagokienez izan ditzakeela ondorio praktikoak, inguruabarren arabera.

Zehazki, bereizkeria funtsezko eskubide bat erabiltzean gerta daiteke, esaterako, funtzio publikoan sartzeko, berezko hizkuntzaren ezagutza baloratzen denean, eta, egin beharreko lanerako behar den ezagutzaren heinekoa denean, ez du Konstituzioarekin inolako arazorik sortzen, ez eta

hizkuntza jakin beharra lanpostuan aritzeko gaitasun-baldintza denean ere (Konstituzio Auzitegiaren 46/1991 epaia).

Halaber, bereizkeria gerta daiteke herritarrek hautatzen duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide subjektiboaren ondorioz, hizkuntza gutxituetako hiztunei dagokienean ere, eta ez bakarrik hizkuntzaren ofizialtasunaren ondorioz, Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 27. artikuluan ere jasota baitago. Gure ustez, oinarrizko eskubide hau baliokide da hizkuntza ofizial guztietan eta ezin zaio ezeini kendu, gehienez ere egokitu egin daiteke, harik eta Administrazioa, bereziki, eta botere publiko guztiak, oro har, Konstituzioan ezarritako hizkuntza ofizialak jakin beharrera moldatu arte, betebehar hori hizkuntza erabiltzera mugatzenez dela kontuan hartuta, herritarrek eurek hautatutako hizkuntzan erantzuna jasotzeko eskubide konstituzionala dute-eta.

Hemendik aurrera honako galdera honi erantzun behar zaio: bi hizkuntza dauden erkidegoetan, hizkuntza ofizialetako bat herritar batzuek soilik badakite, nola batera daitezke hizkuntza horretarako eskubidea eta hizkuntza dela eta inor ez bereizteko abiaburua, beraren aukera guztiekin? Argi dago Euskadiko Herri Administrazioetan hizkuntza plangintza ezarri beharra zuzen loturik dagoela gizarteko hizkuntza egoerarekin. Orobat, Euskal Herrirako Autonomia Estatutoak gizarteko hizkuntza egoera kontuan hartzeko agintzen die erkidegoko administrazio orokorreko erakundeei eta egoera horrek berak modulatu behar du beste arlo batzuetako hizkuntz normalkuntzaren araudia, proportzionalitate printzipioa erabilita hizkuntz eskubideak eta ez diskriminatze printzipioa bateragarri egin ahal izateko.

III. TITULUA

HIZKUNTZAREN ARLOKO ESKUMENEN BANAKETA

1. PLANTEAMENDU OROKORRA

Konstituzioa eta autonomi estatutuak ardatz hartuta, aspaldian eztabaidatu da hizkuntzaren arloan eskumenak eratzikitzeko modua ematen duen titulu zehatzik dagoen ala ez. Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiak 82/1986 epaian, zera adierazi du Konstituzioko 149.1.1. artikulua eskumen-titulutzat erabiltzeko posibilitateari buruz: “Ez da ulertu behar eskumen--titulu honek Estatu orokorrean gaitzen duenik gaztelania ez beste Espainiako hizkuntzen ofizialkidetasuna arautzeko, ezta bere oinarriak edo herritarrek eta botere publikoek hizkuntza erabiltzeko bideak arautzeko ere. 149.1.1. artikulua Estatuko abokatuak ulertzen duen moduan hartuz gero, autonomia erkidegoak hizkuntza arloko eskumenik gabe geratuko lirateke, euren estatutuen bidez, Konstituzioaren 3.2 artikuluari jarraiki, jasotako eskumenen edukia hustuta legoke-eta”.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak ondokoa ere adierazi du argi asko: “Estatuak, egoki baderitzo, gaztelania hizkuntza ofizial moduan botere publiko guztien aurrean erabiltzeko orduan berdintasun printzipioaren oinarritzko baldintzak arautu ditzake, baita gaztelania ezagutzeko beharra betetzeko bermeak ere.” Beraz, autonomietako arauak ezin izango lukete Estatuak gaztelania babesteko emandako legerik baztertu, autonomietako legeek espainiarren eskubide berdintasuna hautsiko balute, edo Konstituzioak agindutakoa betetzeko beharra (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia).

Hizkuntzaren arloko eskumenen banaketa aztertzeko, Konstituzio Auzitegiak bi

testuren arteko aldea hartu du oinarritzat. Hain zuzen ere, 1931ko Konstituzioaren 4. artikuluan ezarri zen “Estatuaren legeetan” aintzatetsi beharko zela, egiten bazen, “probintzia edo erregioetako hizkuntzen” eskubideak, eta “lege berezietan” ezarri beharko zela “erregio hizkuntza” jakin edo erabili beharra, eta 1978ko Konstituzioaren 3.2. artikuluan ezarri zen gaztelania ez beste Espainiako hizkuntzen ofizialtasuna lehenbizi autonomia erkidegoetako autonomia estatutuetan araupetu behar zela, eta gero, kasuan kasuko estatutua aintzat hartuta, organo eskudunek araupetuko zutela, Konstituzioa berariaz ezarritako erreserben mugekin. Horren arabera, estatutu bakoitzean aginduak eman zaizkie autonomiako erakundeei erkidegoko berezko hizkuntzaren ofizialkidetasuna araupetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatutoaren 6. artikuluan, 1. zenbakian euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela ezarri ondoren; gaztelaniarekin batera, Euskadiko hizkuntza ofizial izango dela adierazten da eta biztanle guztiek bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dutela onartzen da. Artikulu horren 2. zenbakian, aldiz, ondokoa adierazten da: “Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko erakundeei Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna arautuko eta bien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak hartu eta erregulatuko dituzte”. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko, azaroaren 24ko, 10/1982 Legea, beste puntu batzuk arautzeaz gain, Euskal Herriko berezko hizkuntzaren ofizialtasunean sakontzeaz arduratzen da eta Estatutoko xedapen horren garapena da, hain zuzen.

Gainera, ez da ulertu behar gaztelania, Estatu osoko hizkuntza ofiziala izanik, “Espainiako gainerako hizkuntza guztiekin” parekatu behar ez denik, Estatuaren ardurapekoa baino ez delako, eta, aldiz, beste hizkuntzak, euren erkidegoetako hizkuntza ofizialak izanda, autonomia erkidegoen ardurapekoak soilik direlako. Konstituzioaren 3.3. artikuluan xedatu den bezala, “Espainiako hizkuntza aniztasunaren aberastasuna begirune eta babes berezia merezi duen kultur-ondarea da”; begirunea eta babes, definizioz, Estatuari zein autonomia

erkidegoei dagozkie, eta erkidego batzuen autonomi estatutuetan zuzenean agindu zaie erkidegoei bi hizkuntza ofizialen erabilpena bermatzeko eta herritarrek biak jakitea ziurtatzeko behar diren baliabideak jartzeko (Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 6.2. art.; Kataluniako Estatutuaren 3.3. artikulua; Valentziako Erkidegoko Estatutuaren 7.2. artikulua). Gainera, ezin da ahaztu estatutu batzuetan ofizialak ez diren beste hizkuntza edo hizkuntza modalitate batzuk babestu beharra ere aipatzen dela (Kataluniako Estatutuaren 3.4. artikulua, “Araneko mintzaira” hizpide dela; Asturiasko Estatutuaren 4. artikulua, bableari dagokionez; Aragoiko Estatutuaren 7. artikulua, “hizkuntza modalitateak....ondare kultural eta historikoaren osagai diren aldetik”).

Hizkuntzen sustapena dela eta, Konstituzio Auzitegiak 69/1988 epaian Generalitatek produktuen etiketen arloan hizkuntza eskumena duela alegatzen duenean, Autonomi Estatutuaren 3.3. artikuluan agindua —Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia, ekainaren 26koa— edo betebeharra —Konstituzio Auzitegiaren 6/1986 epaia, otsailaren 22koa— kontrajartzen dio, artikulua horrek erakunde eta organo autonomikoei hizkuntza normalkuntza sustatzeko konpromisoa ezarri arren, ez baitie horretarako eskumen berezirik ematen, nahiz eta sustapena Konstituzioaren 3.3. artikuluan eta Kataluniako Legebiltzarraren, apirilaren 18ko, 7/1987 Legean oinarrituta egon. Kataluniako lurraldeko hizkuntza ofizialen erabilpena normalizatzeko aginduak, beraz, ez dio inolako eskumen berezirik ematen Kataluniako Autonomia Erkidegoari Estatuaren aldean —geroago adieraziko duguna gora-behera—.

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak sustapeneko neurrien barruan sartzen ditu autonomia erkidegoek euren lurraldean hizkuntza normalkuntza bultzatzeko ematen dituzten xedapenak. Xedapen horien helburu nagusia autonomia erkidego bakoitzeko berezko hizkuntzaren erabilera sustatzea eta hizkuntza horri begirunea izatea da eta, helburu horrekin, xedapenek gaztelaniarekiko ezberdintasunaren egoera historikoa gainditzeko asmoa dute, lurraldeko berezko hizkuntzaren ezagutzarik eta erabilerarik zabalena, apurka-apurka eta Konstituzioak ezartzen dituen mugen barruan, lortu ahal izateko (Konstituzio

Auzitegiaren 337/1994 epaia).

2. OFIZIALKIDETASUNAREN LURRALDE TASUNA

Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro adierazi du bi hizkuntzaren ofizialkidetasunak lurralde-eremu jakina duela, eta horri jarraituz esan du ofizialkidetasunak dena delako autonomia erkidegoan dauden erakundeak hartzen dituela, Estatuaren botere publikoak zein autonomikoak. Hori dela eta, Konstituzio Auzitegiak 82/1986 epaian, Estatuak herri administrazioen araubide juridikoari eta funtzionarioen estatutu-araubideari dagokienez dituen hizkuntza eskumenen aldeko argumentuak emateko asmoarekin 149.1.18. artikuluz baliatu nahi izatea gai hartuta, zera adierazi du, hots, Estatuak artikulua hori erabili nahi duela lurralde elebidunetan dituen administrazio publikoetara hizkuntzen ofizialkidetasuna zabaltzeari oztopoak jartzeko baina, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, ezin da hipotesi hori “besterik gabe” onartu.

Zehazki, Konstituzio Auzitegiak gehitu du argi dagoela autonomia erkidegoek ezin dutela aurkitu hizkuntzaren arloko erregulazioan Estatuaren Administrazioaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko arauak emateko gaitzen dituen eskumenik, autonomia erkidegoaren administrazioaz eta udal administrazioaz, Estatutuak ahalbideratzen duenean, izan dezakeen moduan. Gainera, autonomia erkidegoetako erakunde eskudunek ofizialkidetasuna noraino zabaltzeko ahalmena eta beharra dute, hain zuzen ere Konstituziotik eta autonomia estatututik datorrena, eta Estatuaren Administrazioak hari buruzko lege-arauak antolatu behar ditu bere organoak ukitzen dituen heinean. Konstituzioaren 3.2. artikuluan Espainiako hizkuntzen ofizialkidetasuna autonomia erkidego batzuetan ezarri izanak eragina du erkidego horietako botere publiko guztietan eta, ondorioz, herritarrek eraginkortasun juridiko osoz hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute erkidegoan egoitza duen edozein administrazioen aurrean. Horrenbestez, eskubide hori aintzatestearen ondorio zuzena da erkidegoan kokaturiko botere publiko guztiek (Estatukoek, autonomietakoek eta

udaletakoek) Konstituzioan eta Estatutoan ezarritako elebitasun-egoerara moldatu beharra.

Laburtuz, Konstituzio Auzitegiak ez du inolaz ere onartzen hizkuntzaren arloko erregulazioa herri administrazioen “araubide juridikoari” atxikita dagoenik, ez eta administrazio prozeduraren erregulazioari atxikitzen zaionik ere, Estatuaren abokatuak, EKko 149.1.18. artikulua oinarri hartuta, defendatu nahi zuen bezala. Ondorioz, juridikoki gakoa honetan datza: eskumenen eta lurraldeen ikuspegitik —Konstituzioaren interpretatzaile gorenaren doktrinarekin bat etorriz—, autonomia erkidegoetako botere publikoek ofizialkidetasuna araupetu dezake, baina ezin dute inolaz ere arautu Estatuak autonomia erkidegoan dituen organismoen jardun-antolamendua. Ildo horretatik, ezin da esan Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumen-eremutik kanpo diharduela bertako legediak euskararen ofizialtasunaren ondorio logikoak jasotzen dituenen, zeren ofizialtasunak zuzen ukitzen baititu Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden herri administrazio guztien posizioa eta betebeharrak eta, izan ere, administrazio horietako bakoitzak lankidetzako jarduera batean gauzatu behar ditu bere betebeharrak.

Doktrina argitu ondoren, argi dago arazoak eremu material zehatzetan aplikatzean sortuko direla, horretarako zehatz-mehatz adierazi behar baita non hasten den eta noraino heltzen den ofizialtasuna. Esaterako, Konstituzio Auzitegiak 74/1989 epaian aztertu du zenbateraino diren bateragarri Generalitatek hizkuntza normalizazioko eskumenak eskritura publikoen eremuan erabiltzea eta Estatuak arlo horretan dituen eskumenak. Hori dela eta, batak eta besteak dituzten eskumenak bateragarri izan daitezen, erkidegoak ezin du hizkuntza normalizazioaren eremuan duen eskumena erabili, hizkuntza politikaren aitzakiarekin, Konstituzioaren antolamendua iraultzeko eta Estuari soilik dagozkion arloak araupetzeko, ezta Estatuak autonomia erkidegoak hizkuntza normalizazioan duen eskumena eragotzi edo edukirik gabe utzi, zenbait arlotan dituen eskumenen aitzakiatan.

Horregatik, gure kasuari dagokionez, adierazi behar da Konstituzioaren 3.2. artikulua eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 6. artikulua — Autonomiako botere publikoei berezko hizkuntzaren ofizialkidetasuna araupetzeko agindu zaie— arteko jokoak Autonomiako erakundeek hizkuntzaren arloko eskumena izatea dakarrela; beraz, erakundeok gai dira euskararen ofizialtasuna noraino eraman erabakitzeko, beraz, ezin da esan Autonomia Erkidegoak bere eskumenen eremutik kanpo jarduten duenik ofizialkidetasunaren ondorioak bideratzen dituenen. Laburbilduz, Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 6. artikulua herritarrei aintzatesten dizkien eskubideak erabili ahal izan ditzaten, autonomia erkidegoko botereek egokitzat jotzen dituzten ekintza administratiboak eta politikoak aurrera eramateko ahalmena dute. Besteak beste, herritarrek eurek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eta botere publikoengandik herritarrak aukeratu duen hizkuntzan erantzuna jasotzeko eskubidea dute.

Azkenik, Konstituzio Auzitegiak 74/1989 epaian adierazi du, hizkuntza bi ofizial direnean, autonomia erkidegoak hizkuntza normalizazioan duen eskumenak ezinbestean ikutzen dituela Estatuaren eskumenen barruko gaiak. Horretaz ari dela, Konstituzio Auzitegiak ondokoa esan du: “Hori ez zen oztopo izan, 82/1986 epaian eta 83/1986 epaian, erkidegoek hizkuntza normalizazioko eskumena zuzen erabili zutela aintzatesteko, herritarrek administrazio publikoekin eta justizia administrazioarekin dituzten harremanetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea arautu zutenean. Halaber, ezin dugu gehiegizkotzat jo eskumen horren erabilera eskritura publikoetako hizkuntzaz ari garenean, nahiz eta konstituzio aurreko legeetan dokumentu publikoen araudiaren barruan sartu, bestela, irizpide horri jarraituta, autonomia erkidegoen eskumena edukirik gabe geratuko litzateke eta”.

Orobat, Konstituzio Auzitegiaren 56/1990 epaian jurisprudentzia konstituzionalak Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoaren artikulua batzuen aurka jarritako inkonstituzionalitate helegiteak ebazten ditu eta, hizkuntzaren arloko eskumenari dagokionez, Estatua eta autonomia erkidegoa,

biak direla eskudun adierazi du eta batak zein besteak arautu dezakeela hizkuntza normalizazioa eskumenen banaketa orokorarraren barruan. Horregatik, Estatuari dagokio Justizia Administrazioan hizkuntzak erabiltzeko arauak ematea —149.1.5. artikulua arabera—, autonomia erkidegoko legediak ezartzen duen ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukia errespetatuta, Konstituzioaren 3.2. artikulua eta, gure kasuan, Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 6. artikulua ezarritako irizpideen arabera.

Beste kasu bat harturik, Konstituzio Auzitegiak ontziratutako jangaien etiketei, aurkezpenari eta publizitateari buruz eman duen 147/1996 epaian ondokoa adierazi du: “Kataluniako Autonomia Estatutuak (3.3. art.) Generalitateari bi hizkuntzak normal erabili ahal izatea bermatu beharra ezarri dio, beraz, ezin zaio berdin izan Estatuak, bere eskumenen barruan, hizkuntza gaiak hartzeko modua. Nolanahi ere, argi dago aurkatutako artikulua ez diola oztoporik egiten Kataluniako Autonomia Estatutuak 3.3. artikuluko aginduari. Beraz, etiketetan derrigor jarri behar diren datuak gutxienez gazteleraz ipintzeko Estatuak eman duen agindua betez gero, Generalitateak katalanari buruz agindu berbera emateko ahalmen osoa dauka, baldin eta Kataluniako Autonomia Estatutuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera egoki iruditzen bazaio”.

Azkenik, merkataritzako erregistroetan ofizialkidetasunaren edukiak zer hartzen duen eta noraino eraman behar den zehazten saiatzen da Konstituzio Auzitegia 87/1997 epaian. Hori dela eta, abiaburutzat Estatuak Merkataritzako Erregistroan egin beharreko idazpenak zein hizkuntzatan egin behar diren zehazteko duen eskumena hartuta, Estuari Merkataritzako Erregistroen Erregelamenduaren 36.1. artikulua onesteko eskumena aitortzen dio; izan ere, horrexetan zetzan eskumen gatazka. Alabaina, Estatuak bi hizkuntza ofizial duten autonomia erkidegoetan dauden merkataritzako erregistroetan hizkuntza nola erabili arautzean “begirunea izan behar die hizkuntzen ofizialtasunari eta normalizazioari buruzko klausula orokorrei”. Hau da, kasu honetan hiru gauza errespetatu behar ditu: “a) katalanez idazten diren agiriek, merkataritzako erregistroaren ondorioetarako, gaztelaniaz idazten direnek bezain baliozkoak

eta eraginkorrak izan behar dute; b) katalanez idazten diren agiriak ezin dira “eragotzi ez atzeratu”; c) idazpenei buruzko ziurtagiriak eta gainerako komunikazioak eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza ofizialean idatzi behar dira. Auzia ikuspegi honekin harturik, adierazi beharra dago idazpenak gaztelaniaz egin beharrak ez duela eragozten katalanez idatzitako agiriak gaztelaniazkoen eraginkortasun eta balio bera izatea erregistro ondorioetarako”.

3. LABURBILDUZ

Orain arte esan den guztia kontuan izanik, eskumenak botere publikoen artean banatzeko argi izan behar diren abiaburuak ondoriozta daitezke. Esaterako, lehenbizi autonomiako erakundeei dagokie euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoen lege-antolamenduaz arduratzea, bai eta hizkuntza normalizazioa lortzeko plangintza neurriak ezartzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoan era askotako errealitate soziolinguistikoa dagoela kontuan hartuta.

Bigarrenik, Euskal Herriko Autonomiako erakundeek Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza eskubide guztien errespetoa bermatu behar dute eta, beraz, euskara erabili nahi duten herritarrek mota guztietako harreman publiko eta pribatuetan erabili ahal izatea bermatu behar dute, eta horretarako zeinahi eremutan erabilera sustatzeko neurriak abiaraz ditzakete. Halaber, euskara “Espainiako hizkuntza denez eta arreta bereziarekin zaindu eta babestu beharreko kultur ondarea izanda” (EKko 3.3 art.), edozein erakunde publikok edo pribatuk har ditzake euskara sustatzeko neurriak.

Hirugarrenik, ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukia zein den eta bere ondorio juridikoak zeintzuk diren finkatu ondoren, euskara balio eta eraginkortasun osoz erabiltzeko bideak zehaztea autonomia duten erakunde publikoen autoantulakuntza funtzioen esparruan sartzen da, gazteleraren kasuan gertatzen den moduan.

Laugarrenik, gaztelaniari dagokionez, Estatuaren erakunde zentralek dute Konstituzioaren 3.1. artikulua edukia garatzeko eskumena, ongi baderitze, baita gaztelania botere publiko guztietan hizkuntza ofizial gisa berdintasunean erabili ahal izatea bermatzeko eskumena ere. Nolanahi ere, neurriok herri erakunde autonomiadunek abiaraziko dituzte euren burua antolatzeko dituzten funtzioen esparruan.

Azkenik, Europar Batasunaren Zuzenbideak autonomia erkidego elebidunen ofizialkidetasunaren araubidean duen eraginari dagokionez, esan behar da, Europar Batasunak onetsitako erregelamendu batzuen arabera, Batasuneko kide diren estatuen agintari, erakunde eta jurisdikzioek ezin dituztela atzera bota Batasuneko hizkuntza ofizial batean heltzen zaizkien eskaerak eta agiriak eta, horregatik, de facto, Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako hizkuntzen ofizialtasunaren agerpen batzuk heda daitezke, Batasunaren Zuzenbidearen zuzeneko eraginez (adibidez, Kontseiluaren 118/1997 Erregelamendua, 1996ko abenduaren 2koa, Gizarte Segurantzari buruzkoa, 84. artikuluko laugarren idatz-zatia).

IV. TITULUA

GIZARTEKO HEDABIDEAK. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

1. KOMUNIKABIDEEZ ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIEZ, EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN NEURRIEN INGURUKO HURBILPEN JURIDIKOA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian zabal jorratu dira eremu horiek. Esaterako, euskararen hedakuntzan eta normalizazioan irratiak eta telebistak eginkizun garrantzitsua dutela adierazi da, eta oraingo euskarazko telebistak eta irratiak ahozko euskara hedatzeko inoiz izan diren tresnarik hoberenak direla.

Ondoren han adierazitakoetatik orain dagokigun ikuspegitik interesgarrienak direnak jarriko ditugu:

- Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntz normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.
- Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.
- Mundu honek berebiziko aldaketa jasango du, digitalak, kable bidezkoak eta abar direla. Orain EAEko bost kateetatik bat euskaraz dugu. Laster 50etik

edo 100etik ere bakarria izango dugu euskaraz. Telebista-eskaintzan datorren aldaketa dela-eta, estrategia eta ildo berriak begiz jo behar dira, epe laburrean, erdarazko telebistak oraindik ere are nagusiago izango baitira.

- Euskarazko herri-telebisten garapena berebiziko aukera izango da euskararentzat. Herri-telebista hizkuntz normalizaziorako tresna ahaltsua da, tokian tokiko euskalkia erabiltzeko aukera ematen duena, gainera. Proposamena hau da: “Euskarazko herri-telebisten garapena lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuok bultzatzen ari diren eragile sozialen eta erakunde publikoen artean.”

Ikusten den bezala, lerro horietan, ezta komunikabideei buruzko epigrafeko gainerakoetan ere, ez dago arauetan zuzenean eragiteko proposamenik. Hots, ez da ageri indarreko arau juridikoen aurkako kritikarik eta ez da proposatu haietan inolako aldaketarik egitea. Azaldutako proposamenetan analisi juridikoa behar luketen gaiak aipatu dira –herri-telebistak, kable bidezko telebista... –, baina ez da ezein kasutan bideragarritasun juridikoaren analisia beharko lukeen neurri zehatzik aurreratzen.

Ondoren, gizarteko komunikabideetan euskarak duen araubide juridikoaren azterketa egingo dugu dugu eta –Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren terminologiari jarraituz– puntu ahultzat har daitezkeen alderdiak nabarmenduko ditugu eta, bereziki, Erkidegoko erakundeek arautu ditzaketen hutsune normatiboak dituztenak.

2. KOMUNIKABIDEEN ETA HIZKUNTZ NORMALIZAZIOAREN ARLOKO ESKUMENAK

EKko 149.1.27. artikularekin bat etorritz, Estatuak berak bakarrik du “prentsa, irrati eta telebistari buruzko oinarritzko arauak eta, oro har, gizarteko komunikabide guztiei buruzkoak emateko eskumena; hori gora-behera, autonomia erkidegoek haiek garatzeko eta betearazteko ahalmenak dituzte”.

Horrez gainera, Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 19. artikuluan ondokoa ezarri da:

- 1.- Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarrizko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.
- 2.- Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko paragrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatuarenekin koordinatuko da.
- 3.- Artikulu honetako lehen paragrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

Gai honetako eskumena biren artean banatuta dago: Estuari oinarriak arautzea dagokio eta Autonomia Erkidegoari lege-garapena eta betearazpena. Honetaz ari garela, aipatu behar da Autonomia Erkidegoak baduela komunikabideetan hizkuntzak nola erabili arautzeko eskumena ere (EKko 3. artikulua; EHA Earen 6. art.).

3. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEZKO LEGEAN KOMUNIKABIDEEZ EZARRITAKOA

3.1. Aplikatu beharreko xedapenak

10/1982 Legearen 5. artikuluan ondokoa ezarri da:

- “2.- Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntz eskubide hauek aitortzen zaizkie:
(...)
- c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskeraz jasotzeko eskubidea.

3.- Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri-agintesailek beroien erabilpena bermatuko dute.”

Arlo honetako arauak 10/1982 Legearen II. tituluko III. kapituluko 22-25 bitarteko artikuluetan ageri dira, “Euskararen erabilera gizarteko komunikabideetan”:

22. artikulua.- Gizarte-adierazpideek albisteak euskeraz eta gazteleraz eman diezazkieten duten eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei. Horretarako Jaurlaritzak, euskera gizarte-adierazpideetan gero eta gehiago agertu dedineko neurriak hartuko ditu, hizkuntza ofizialen erabilera arian-arian berdindu dedinera joz.

23. artikulua.- Jaurlaritzak, aurreko atalak jarritako bi hizkuntzen arteko kidetasuna bermatzeko, Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera lehenengotasunez erabiltzea suztatuko du.

24. artikulua.- Jaurlaritzak, EITB-n hizkuntza arauzkotzeari bultzatza egingo dio, euskera, Euskal Herriaren berenezko hizkuntza denez behar bezala erabiliko dela bermatzeko.

25. artikulua.- Jaurlaritzak 22garren atalean aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeagotzeko, euskal argitalpenak suztatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, nolahi ere honako hauetan euskeraren zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emanaz:

Irratian.

Egunkari eta aldizkarietan.

Zineman.

Antzerki eta ikuskizunetan.

Irudiaren eta hotsaren irarpideetan.

Horretarako, aurreko alor hoietaz ihardun eta hoiek araupetu ditzaten legeetan horretazko idazpuru bat sartuko da.

3.2. Iruzkina

Komunikabideen gaur egungo ezaugarri nagusiak konplexutasuna –euskarri asko, hainbat eratako kudeaketa modu asko, lurralde-eremu ugari etab. – eta dinamismo handia dira, eten gabe berritzen ari direlako, informazioaren gizartearen oinarrietako bat den eremuari dagokion bezala.

Arlo honetan hainbat berrikuntza gertatu dira 10/1982 Legea eman zenez geroztik. Telebistari bagagozkio, lehen Euskal Autonomia Erkidegoan RTVE eta ETB soilik ari ziren eta gaur egun, aldiz, telekomunikazioen eta komunikabideen arteko muga lausotzen ari delarik, aukerako telebistak izugarri ugaltzeko aginean dira. Teknologian izan diren azken aurrerapenek (kable eta satellite bidezko transmisioa eta digitalizazioa) emisoren kopurua ugaltzea ahalbideratzen dute, eta gainera emanaldiak munduko zeinahi tokitara irits daitezke.

Egoera horrexetan dago, labur-labur azalduta, eta, beraz, horrexen arabera argitu behar dugu EEALko arauen eraginkortasuna.

Bada, lege horren testuan ez da ezer adierazi berariaz teknologia berri horiei buruz; ezin zitekeen izan bestela.

Hala ere, komunikabideei buruzko artikulua oso orokorrak direnez gero, euskaren erabilera sustatzeko eta babesteko jarduketek eremu osorako balio dute, kudeaketa moduak edo euskarri teknologikoa gora-behera. Legearen 5. artikuluan adierazi denaren arabera, herri botereek bermatu egin behar dute “aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak” euskaraz jasotzeko eskubidea.

Beste alde batetik, EEALren 25. artikuluan ondokoa ezarri da 22. artikuluan aintzatetsitako eskubidea bermatzeko asmoarekin: “titulu egokia garatuko da aurreko puntuak arautzen dituzten legeetan”. Hala bada, manu *arraroa* ezarri da, legegintzazko gidalerroa definitu baitu legegilearentzat berarentzat, estrategia egokia ezartzen badu ere: komunikabide bakoitzean hizkuntzen ofizialtasunak eta hizkuntz normalizazioak eskatzen dutena.

Ondoren banan-banan aztertuko ditugu komunikabideak, 10/1982 Legeari jarraituz; hurrenkera hauxe izango da:

- Autonomia Erkidegoko komunikabideak (EEAL, 23. art.)
- RTVEko emisio-zentroak (EEAL, 24. art.)
- Gainerako komunikabideak (EEAL, 25. art.)
 - Telebista pribatua
 - Irratia
 - Lurgaineko uhinen bidezko herri-telebistak
 - Prentsa
 - Kable bidezko komunikabideak
 - Satelite bidezko komunikabideak
 - Komunikabide digitalak

Analisiari ekin baino lehen, Estatuko legerian gizarteko komunikabideen hizkuntz araubidez ageri diren apamen orokorrak azalduko ditugu labur-labur.

4. ESTATUKO LEGERIAN KOMUNIKABIDEEN HIZKUNTZ ARAUBIDEAZ ARAUTUTAKOA

4.1. Begirunea hizkuntz aniztasunari

Komunikabideen jardunerako aintzat hartzeko Estatuko legerian ezarri diren abiaburuetako bat hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra da. Halaxe agertarazi da Irrati eta Telebistaren Estatutuan (4. art, c), Telebista Pribatuari buruzko maiatzaren 3ko 10/1988 Legean (3. art.) eta Satelite bidezko Telekomunikazioei buruzko abenduaren 12ko 37/1995 Legean (xedapen erantsietatik zazpigarrena).

4.2. Telebista-emanaldietako edukiak: hizkuntz kuotak

Azken urteotan Europar Batasunaren eremuan xedapen batzuk eman dira Europako ikusentzutezko obra babesteko –batez ere Estatu Batuetako produkzioen nagusitasunetik–; bada, xede nagusia hori bada ere, xedapen horietan hizkuntz aniztasunaren babesa ere landu da. Besteak beste,

89/552/CEE zuzentaraua aipa daiteke, 97/36/CE zuzentarauak aldatu duena; biak ere Espainiako antolamendura ekarri dira uztailaren 12ko 25/1994 Legearen bidez (ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldatu du). Lege horren 5. artikuluan ondokoa ezarri da:

“5. artikulua. Europako obrak.

1. Telebista-operadoreek urteko emanaldi-denboraren %51 gorde behar dute Europako ikusentzutezko obrak emateko.

Hori betetzeko, urte bakoitzean aurreko ekitaldian ustiapen-kontuaren arabera sortarazitako sarrera guztien %5 erabili beharko dute Europako film luzeak eta telebista-filmak finantzatzeko.

2. Aurreko zenbakiaren arabera gordetzen den emanaldi-denboraren %50 baino gehiago, gainera, Espainiako hizkuntzetako batean egindako Europako obrak emateko izango da.”

Legeria hori telebista modalitate guztietan aplikatu behar da, herrietakoetan izan ezik; halakoei buruz autonomia erkidegoek aurreko bakoitzak antzeko arauak eman ahal izango ditu ikusentzutezkoak bere hizkuntzan sortzea sustatzeko (25/1994 Legea, 2.5. art.).

Horrela, Europar Batasuneko Zuzenbidea aintzat hartuz, Espainiako antolamendu juridikoan hizkuntz kuotak gordetzeko sistema ezarri da – “Espainiako hizkuntzetako batean” – ikusentzutezko produkzioetarako.

Eskakizun horri dagokionez, Kataluniako Autonomiak baizik ez du egin aurrera bere legerian. Geroago ere aipatuko dugun arren, esan dezagun Toki Telebistari buruzko 320/1996 Dekretuan, Kable bidezko Ikusentzutezko Programak arautu dituen uztailaren 5eko 8/1996 Legean eta Hizkuntz Politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legean kuoten sistema ezarri da erakundez kanpoko telebistetan katalana sustatzeko –irizpidea %50 katalanez ematea da– ; Generalitatek eta Kataluniako toki korporazioek kudeatzen dituzten irrati eta telebistetan katalana erabili behar da *oro har*.

5. EAEko KOMUNIKABIDEAK

Atal honetan Autonomia Erkidegoak bere titulartasunarekin zuzenean kudeatzen dituen komunikabideen marko juridikoa deskribatuko dugu (EHAE, 19. art.), besterik gabe.

Gauza jakina da Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoari dagokiola Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideen kudeaketa eta, hori horrela, honako baltzu publiko anonimo hauek sortu dira hainbat hedakuntza-zerbitzu ustiatzeko: “Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.” (uztailaren 19ko 157/1982 Dekretua), “Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.” (uztailaren 19ko 158/1982 Dekretua) eta “Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.” (maiatzaren 20ko 77/1984 Dekretua).

EEAL onetsi aurretik Euskal Irrati-Telebista Herri Erakundearen Sorkuntzari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea onetsia zen; bada, haren 3. artikuluan ondokoa ezarri da:

“Autonomia Erkidegoa titular den gizarte-komunikabideen jardunean ondoko abiaburuak hartuko dira aintzat:

(...)

h) Euskara eta euskal kultura sustatu beharra; programazioaren oinarriko abiaburuak euskararen erabileraren aldekoak izango dira, kontuan izanez Autonomia Erkidegoan oreka lortu behar dela euskarazko irrati eta telebista emanaldien eskaintza orokorrean.”

EEALren 23. artikuluan ezarrita dago Jaurlaritzak sustatuko duela Autonomia Erkidegoko komunikabideetan euskara erabiltzea *lehenestea*, gizarteko komunikabideetan apurka-apurka euskara eta gaztelania maila berera etor daitezten.

6. RTVEren EMISIO-ZENTROAK

EKko 20.3. artikuluan ezarri da legez arautuko direla Estatuaren edo herri erakundeen menpeko gizarte-komunikabideak, Espainiako hizkuntz aniztasunari begirunez izanez. Ildo horretatik, Irrati eta Telebistaren Estatutuaren abiaburuetako bat hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra da (4/1980 Legea, 4.c art.).

Estatutu horretan, halaber, ezarri da RTVEk berriazko irrati eta telebista programazioak izango dituela nazionalitate edo erregio bakoitzeko lurralde-eremurako, “nazio programaziorako ezarritako ordutegia eta banaketa salbutuz”. Lurralde bakoitzerako berriazko programazioa egin behar denez, bakoitzak bere lurralde erakundea izango du, eta bertan esku izango du autonomia erkidegoko aholkulari batzordeak; Konstituzio Auzitegiak ondokoa adierazi du horretaz: “berezkoa da RTVEk erkidego bakoitzean duen aholkulari batzordeak bertako baloreak sustatzea eta ondorioz baita bertako hizkuntza, egonez gero, eta bertako kultura ere. Izan ere, horrexetarako sortu dira” (10/1982 epaia, martxoaren 23koa).

EEALn artikulua bat dago horretaz. EEALren 25. artikulua dio Eusko Jaurlaritzak hizkuntz normalizazioa bultzatuko duela RTVEren emisio-zentroetan, euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza dena, behar bezala ager dadin ¹.

EAEn lurralde-eremuan, euskarazko irrati eta telebista emanaldiak jasotzeko eskubidea herri botere guzti-guztiek bermatu behar dute (5. art.), eta beraz RTVEk ere bai EAEn ematen duen programazioan ².

¹ Manu hau dela eta, LASAGABASTERrek ondokoa esan du: “hobe litzateke EEALn barik programa politiko baten orientazio gisa agertuko balitz. EEALk EAEn dauden herri botere guztiak ukitzen baditu, Estatu Administrazio Zentralaren menpeko RTVEren emisio-zentroak ere ukitzen ditu, erakunde-administrazioa eratzten duten tresna-formen bidez bada ere. Lege horren arabera Eusko Jaurlaritzari dagokio RTVEren hizkuntz normalizazioa bultzatzea, baina adierazpen hori komunikabide hori egon badagoela oroitarazteko modua besterik ez da, Estatu Administrazioaren menpekoea izanik Eusko Jaurlaritzaren ekintzak beti egongo baitira haren pentzuan”. Lasagabaster Herrarte, I. “El euskera y los medios de comunicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco”, Euskaren araubide juridikoari buruzko jardunaldiak. HAEE-IVAP, Oñati, 1990.0

² Konstituzio Auzitegiak adierazi du ez dagoela jarterik “gaztelania, Estatu osoko hizkuntza ofiziala denez, Espainiako gainerako hizkuntza guztien aurka, bakoitza bere erkidegoko hizkuntza ofiziala denez; hau da, gaztelania ez da Estatuaren ardurapekoa soilik, eta gainerako hizkuntzak ere ez dira autonomia erkidegoen ardurapekoak soilik, bakoitza bereari dagokionez. Konstituzioaren 3.3. artikuluan xedatu den bezala, “Espainiako hizkuntz modalitateen aberastasuna berriazko begirunea merezi duen eta arretaz babestu beharreko kultur ondarea da”; begirunea eta babesa, definizioz, Estatuari zein autonomia erkidegoei dagozkie...” (82/1986 epaia, ekainaren 26koa).

Azaldu berri ditugun arau horietan ezarritakoa gora-behera, kontua da euskara ia erabili ere ez dela egiten RTVEk Autonomia Erkidegorako ematen dituen saioetan. Dirudenez RTVEk erabaki du EITBk soilik sustatu behar duela euskara. Eta gainera telebistan gaztelaniaz euskaraz baino askoz gehiago eskaintzen dela jakinik, eta Konstituzio Auzitegiak berriazko epaietan ofizial diren hizkuntzen sustapena autonomia erkidegoei soilik ez dagokiela adierazi arren. Gai honetan Eusko Jaurlaritzak eskura dituen baliabide juridikzionalak erabili beharko lituzke programazioa euskararen ofizialtasunaren araubidera egokiarazteko, horrekin, euskara behar bezala eta behar bezainbeste agertzen dela ziurtatzeko, bera da eta Euskal Herriko berezko hizkuntza.

7. TELEBISTA PRIBATUA

Telebista Pribatuari buruzko maiatzaren 3ko 10/1988 Legean Irratiaren eta Telebistaren Estatutuko 4. artikuluan ezarritako abiaburuak hartu dira ardatz gisa, eta haietako bat hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra da. Abiaburu hori esparru honetan ere aplikatu daitekeela adierazi de zuzenean Konstituzio Auzitegiak 127/1994 epaian³. Horrez gainera, ezarri du administrazio emakidaren xedea nazio osorako saioak ematea izango dela, eta,

³ Konstituzio Auzitegiak ezetsi egin zituen Telebista Pribatuari buruzko 10/1988 Legearen aurka planteatutako konstituziokontraketasuneko errekurtsioa, nahiz eta honako interpretazio-irizpidea hartu programazioko eta igorpeneko estatua baino txikiagoak diren lurraldeen mugei buruz, hizkuntzazko eta kulturazko ezaugarriak kontuan hartuta:

"Igorpenen espazio-helmenak baldintzatu egiten du, jakina, programen kulturazko eta hizkuntzazko edukia. Ez da ezaugarri zehatz-mehatz tekniko eta kalterik gabea, bertan sartzen diren funtsezko eskubideen ikuspuntutik, telebistazko hedapenaren izaerari eta ezaugarriei dagokienez. Horregatik, kantonatuta etor daiteke irrati-difusioari buruz Estatuak duen erabateko eskumenean.

Komeni da gogoratzea Irratiaren eta Telebistaren Estatutuak berak (eta horren baldintzapean dago berriaz Kataluniako autonomia-estatutuko 16.1. artikuluan hartutako eskumena) aipatzen duela 4 c) artikuluan nazionalitateen eta eskualdeen kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatu behar dela, Estatuak komunikabideen jardueraren printzipioen artean.

Eta ez da ikusten EKko 3.3. artikulua ondarearen aberastasuntzat aitortzen duen printzipio horien errespetuak zergatik ez duen eragin behar, halaber, telebista pribatuetarako.

Kataluniako Parlamentuak legearen 14. artikulua aurkatzen du, Espainiako hizkuntzen aniztasuna aintzat hartzen ez duelako "telebistako programen" edukien artean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira guztiz errepikakorrek diren igorpenak, irudi finkoak eta publizitaterako tarteak (2. paragrafoa).

Bada, komeni da ahotara ekartzea aurkatutako legearen 3. artikulua ezartzen duenez, baltzu emakidadunek egin beharreko zeharkako kudeaketak irratiari eta telebistari buruzko estatutuaren 4. artikuluan adierazitako printzipioak hartuko dituela aintzat, eta horien artean dago -esan bezala- kulturazko eta hizkuntzazko aniztasunari zor zaion errespetua. Arau horren arabera ulertu behar da, zalantzarik gabe, aipatutako 14. artikulua. Hori dela eta, artikulua bereko 3. eta 4. paragrafoetan "jatorriz espainiarrak" diren programazio-portzentajeak adierazten direnean, Espainian dagokien autonomia-erkidegoetan bertako estatutuen arabera ofizialak diren hizkuntza guztietan izan daitezke (EKko 3.2. artikulua)". (8. oinarri juridikoa)

hala ere, Telebista Pribatuaren Nazio Plan Teknikoan mugaturiko lurralde bakoitzerako saioak ere eman beharko direla (4. art.); dena den, lurraldeko programazioa ezin izan daiteke nazionala baino luzeagoa (14. art.).

Lurraldekako Plan Teknikoan (1362/1988 Errege Dekretua, azaroaren 11koa) nahibadakotzat jo da lurralde-programazioa, eta ezarri da telebista pribatu bakoitzak bere programazioaren lurralde-atala sor dezakeela Planean adierazitako hamar lurraldeetarako; lurraldeok ez datoz guztiz bat autonomia erkidegoekin. Esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde-eremu batean dago eta Nafarroa beste batean dago Aragoi eta Errioxarekin.

Nolanahi ere, erregulazioan beste eredu bat ezartzekoa zela badirudi ere, hain zuzen ere programazio orokorra eta lurraldeetako programazioak bateratuko lituzkeen eredia, gaur egun lurralde-programazioak oso urriak dira.

Beraz, gogoan hartu behar da Autonomia Erkidegoak eskumena duela komunikabideetan euskara nola erabili arautzeko eta, beraz, telebista pribatuei hizkuntz eskakizunak ezar liezazkiekeela Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremurako emanaldietan.

8. IRRATIA

Beste atal batzuetan irrati-hedakuntzako zerbitzu batzuk aipatu ondoren, maiztasun modulatu uhin metrikoen bidezko irrati-hedakuntzako emisoreen emakiden araudiaz arituko gara orain. Telekomunikazioak Antolatzeko abenduaren 18ko 31/1987 Legeak bere 26. artikuluan⁴ Estatuari egozten dio

⁴Artikulu hau indarrean dago apirilaren 14ko 11/1998 Lege Orokorra, Telekomunikabideei buruzkoa, (Xedapen indargabetzaile bakarra) onartu ondoren eta honela dio:

“26. artikulua. Honako hau aplikatuko zaie bereziki soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuei:

1. Uhin laburreko eta uhin luzeko soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuak zuzenean ustiatuko dituzte Estatuak edo bere erakunde publikoek.
2. Uhin erdiko soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuak konkurrentzian ustiatu daitezke, era hauetan:
 - a) Estatuak edo bere erakunde publikoek zuzenean kudeatuta.
 - b) Pertsona fisiko edo juridikoen bitartez kudeatuta administrazio-emakida bidez.
3. Maiztasunaren modulaziodun uhin metrikoen bidez soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuak konkurrentzian ustiatu daitezke honako era hauetako edozeinetan:
 - a) Gaiari eskumena duten administrazio publikoek edo euren erakunde publikoek zuzenean ustiatuta, gizarte-komunikabideei buruzko legediarekin bat, eta toki-korporazioek esleitutako emakida administratiboaren bitartez.

uhin labur eta luzeko zerbitzuen ustiapena (“Radio Nacional de España, S.A.”), baita uhin erdiko zerbitzuen kudeaketa ere –zuzena edo zeharkakoa kasu horretan-. Maiztasunaren modulazioa duen uhin metrikoaren arloan onartzen da soilik autonomia erkidegoaren titulartasuna, beraz, erkidegoaren kudeaketa onartzen da, zuzenean edo zeharka emakidaren bidez.

Azkenengo aipatu dugun arlo horretan, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu-emakidak toki korporazioei eta erakunde pribatuei emateko eskumena duenez, bi dekretu eman ditu haiek nola eman arautzeko, eta beraietan berariaz ezarri da nola erabili euskara.

Martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuak Maiztasun modulatuak uhin metrikoen bidezko hots-hedakuntzako zerbitzu publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko udal erakundeei emateko araubidea ezarri du; bada, beraren 2. artikuluan⁵ euskarazko saioen gutxieneko kuota ezarri da, programazioaren ehunekoa,

b) Pertsona fisiko edo juridikoek jasotako emakida administratiboen bitartez.

4. Espainiako lurralde osorako Garraio, Turismo eta Komunikazio Ministerioak helburu horrekin egiten dituen eta Gobernuak onartzen dituen Plan Tekniko Nazionalen arabera ezarriko dira artikuluko honetako zerbitzu publikoak.

5. Gobernuak esleituko ditu soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuen zeharkako kudeaketarako emakidak. Maiztasunaren modulaziodun uhin metrikoen bidezko soinuaren irrati-hedakuntzako zerbitzuen emakidak esleitzea gizarte komunikabideetan eskumena duten Autonomia Erkidegoen esku egongo da.

6. Nolanahi ere, zerbitzu bat ematen hasi aurretik, zerbitzua zuzenean nahiz zeharka kudeatutakoa izan, ezinbesteko baldintza izango du Garraio, Turismo eta Komunikabideen Ministerioak instalazioen proposamen teknikoak edo proiektuak onestea eta ikuskatzea, baita Zerbitzuak Emateko Erregelamenduak eta Erregelamendu Teknikoak onestea ere. “

Arlo honetan apirilaren 8ko 11/1991 Legea ere aplikatu daiteke. Lege horretako 2. artikulua hizkuntz aniztasunari begirunea izatea ezartzen du udal-irratien soinuaren irrati-hedakuntzako jarduna arautzen duten printzipioen artean.

⁵ 138/1994 DEKRETUA, martxoaren 22koa, Euskal Autonomi Elkarte Udal Erakundeei frekuentzia modulatuak uhin metrikoetako irratiabalkunde zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen duena.

“2. artikulua.- Ezaugarriak.

Udal Erakundearen esku dauden emisoreek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

2.1.- Beren iharduerari dagokionez, apirilaren 8ko 11/1991 Legearen 2. atalak diotenari jarraituko diote eta, era berean, Euskal Herriko izaera kulturala eta linguistikoa zabaldu eta babesteko baliagarri izan daitezkeen elementu guztiak erabiliko dira, baita tokian tokiko ezaugarri eta berezitasunak babesteko balio dutenak ere.

Irrati baimena dutenek aipatutako interes publikoa errespetatu dezaten, beharrezkoa izango da beti euskara agertzea. Euskarak gutxienez izan beharko duen agerraldia zehazteko EUSTAT Erakundeak urtero argitaratzen duen Euskal Estatistika Urtekariaren azken alean udalez udal jakinarazten diren datuak erabiliko dira, bertan azalduko multzo euskaradun jakin guztien portzentaien batuketaren arabera izanik euskararen gutxieneko erabilera portzentaia.

Arestian aipatutako euskararen gutxienezko presentziaren gain, gazteenei zuzendutako irratsaioetan, euskararen presentzia EUSTATen datuetan ageri den adin talde horren euskara ezagutza mailaren parekoa izan beharko du gutxienez.

Portzentaia horren arabera eskainiko diren euskarazko irrati emanaldietan, jendea alfabetatu eta euskalduntzeko irratsaio eta iharduerak ere tartekatuta beharko dira, ahal dela eta horretarako aukerarik izanez gero, tokian tokiko udal euskaltegi homologatuaren bitartez eta, bestela, euskara irakaskuntza homologatuan diharduten Erakundeekin hitzarmenak edo akordioak eginez.”

alegia, eta gainera ezarri da kuota kasuan kasuko udalerriko datu soziolinguistikoen arabera zehaztu dela. Halaber, berariazko kuotak ezarri dira gazteentzako programaziorako; horiek adin-tarte horretako datu soziolinguistikoen arabera zehaztuko dira.

Zerbitzu hori ekimen pribatuaren bidez nola gauzatu azaroaren 11ko 240/1986 Dekretuak ezarri du; dekretu horrek maiztasun modulatuak uhin metrikoen bidezko irrati-emisorak emateko prozedura ezarri du. Dekretu horretan ez da arautu kuota-sistematik, baina emisorak adjudikatzeko oinarrizko irizpideetako bat⁶ ondokoa da: “Erkidegoko hizkuntza ofizial biak orekan erabiltzea”. Argi dago xedapen horrek ez duela bermatzen emisora horietan euskaraz aritu direla.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak arlo honetaz eman dituen arau guztiak aipatzeko, -lehenago aipatu ditugun kudeaketa zuzeneko irratiak ahaztu gabe-, 2000ko uztailaren 5eko Agindua ekarri behar dugu hona, hain zuzen ere komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko diru-laguntzak eta euskarazko komunikabideen proiektuak ahalbidertzeko diru-laguntzak nola eman arautu duena (2001. urteko ekitaldian aplikatzeko, 2001eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez egokitu dena. Otsailaren 23ko EHAA). Haren arabera 25 milioi pezeta banatuko dira denetara irrati-proiektuen artean, hots, pertsona juridikoen zein pertsona pribatuen irrati-proiektuen artean. Diru-laguntza jasotzeko baldintza bat ezarri da: irrati-entresak urte osoan zehar euskarazko saioak eman beharra, gutxienez 25 ordu astean.

⁶ Azaroaren 11ko 240/1986 DEKRETUA, Maiztasun Modulatuak Uhin Metrikoetako Irrati-hedakuntzako emisoreentzako baimena emateko prozedura jartzen duena:

“8. artikulua.- Bai erakundezko emisoreentzat eta bai merkataritzazko emisoreentzat ere, emisoreak jartzeko eta ihardutzeko baimenak emateko, Eusko Jaurlaritzak, honako oinarrizko izendatze-irizpide hauek hartuko ditu kontutan:
A) Herriko kulturazko balioak sustatzea, hezkuntza eta kulturazko programak hedatzea helburu nagusitzat eduki dezaten emisoreek izango dute lehentasuna eta, bereziki, Euskal Autonomia Elkarterko bi hizkuntza ofizialen erabilpen oreratu baten aukera egin dezatenek.”

9. artikulua.- Eskaerak, honako betebeharrak hauek bate beharko dituzte:

(...)

F) Emisoreak garatuko dituen ihardunei buruzko txosten bat. Txosten horrek, gutxienez, proiektuari ekiteko erakunde eskegileak erabiliko dituen ekonomia eta finantz-baliabideen zehaztutako zerrenda bat eta egingo duen inbertsioaren guztirakoaren zenbakizko adierazpena, halaber, programakuntza bere entzulegoeremuko behar sozial eta kulturaleri egokitu ahal izateko ematen dituen hitzarmenak eta, bereziki, euskerazko eta gaztelaniazko programaketei emandako ustezko erabakia.”

Esan dugun guztia azterturik, ondorio hau atera daiteke: arlo honetan Jaurlaritzak irizpide asko erabili ditu arauak ezartzean, eta ondorioz batzuetan programazioetan hizkuntz kuotak bete behar dira eta beste batzuetan hizkuntz irizpidea adjudikazioaren oinarrietako bat da. Gainera, sustapen hutseko jarduketa ere ageri da, diru-laguntzak ematea, hain zuzen.

Atal honekin amaitzeko, agertarazi nahi dugu ez dagoela eragozpen juridikorik Eusko Jaurlaritzak, nahi izatera, gizarteko komunikabideen eta hizkuntz normalizazioaren arloan dituen eskumenak baliaraziz, arlo honetan euskaraz aritzeari buruzko irizpide berriak ezartzeko (esan gabe doa ezarri aurretik xehe-xehe aztertu behar liratekeela ⁷).

9. LURGAINEN UHINEN BIDEZKO HERRI-TELEBISTAK

Lurgaineko Uhin bidezko Herri-Telebistari buruzko abenduaren 22ko 41/1995 Legean berriaz aintzatetsi da autonomia erkidegoei dagokiela zerbitzu hori adjudikatzeko eskumena; hala ere, irrati-maiztasunak emateko eskumena Estatuarentzat gorde da. Lege berean autonomia erkidegoei herri-telebistak antolatu ahal dutela aintzatetsi zaie, eta, euren garapen-eskumenez baliatuz, emanaldien iraupena eta programazioaren edukiak arautu ahal dituztela, besteak beste.

Lurgaineko uhinen bidezko herri-telebista bakoitzaren lurralde-eremua udalerriko herrigune nagusia izango da, oro har (3. art.). Gehienez ere bi

⁷ Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legea aipa daiteke, jakingarri gisa, egoera soziolinguistikoa eta aplikaturiko hizkuntz politikak ezberdinak dira eta. Bada, haren 25.1. artikuluan ondokoa ageri da: "Generalitatek eta Kataluniako toki korporazioek kudeatzen dituzten irrati eta telebistetan katalana erabili behar da. Inguruabar horietan, toki korporazioen menpeko komunikabideek entzulegoaren ezaugarriak har ditzakete kontuan." Halaber, 26.3. artikuluan ondokoa ezarri da: "Generalitatek adjudikatzen dituen irrati-emisoreen emanaldien %50, gutxienez, katalanez izan behar da; hala ere, Generalitatek, entzulegoaren ezaugarriak aintzat hartuz, ehuneko hori alda dezake arau bidez." Azkenik, 26.4. artikuluan ondokoa ageri da: "(Generalitatek) lurgaineko uhinen bidezko telebista-emisoreak, kable bidezko telebista kanalak eta irrati-emisoreak adjudikatzeko irizpide gisa jarri behar du katalanez aritzea gutxieneko egunekoaz gaindi." Manu horiek aplikatuko zaizkie, halaber, Legea indarrean jarri ondoren Generalitatek gaitzen edo gaikuntza berritzen dien emisoreei ere (xedapen iragankorretatik hirugarrena).

Lege hori garatzeko, emisore komertzialei buruz, 269/1998 Dekretua onartu da.



emakida izango dira. Bata udalerrarentzat berarentzat, lehentasunarekin, eta beste bat pertsona fisiko edo juridiko batentzat, udalak zerbitzua bere lurralde-eremuan kudeatzea erabakitzen badu eta irrati-esparru nahikoa bada. Zerbitzugintzan, aintzat hartu beharko da hizkuntz aniztasuna, besteak beste (6. art.)

Irratiaren arloan ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da garatu arautegirik herri-telebistak adjudikatzeko moduari buruz⁸, eta ondorioz ez da onetsi euskarak eremu honetan izan behar duen araubide juridikoa.

⁸ Ez da hala gertatzen beste autonomia erkidego batzuetan, hain zuzen ere Katalunian eta Nafarroan. Bi erkidego hauek arau zehatzak onetsi dituzte uhinen bidezko herri-telebistak nola adjudikatu antolatzeke; hizkuntz araubidea honela arautu dute:

Nafarroako Foru Komunitatea:

Irailaren 9ko 313/1996 Foru Dekretua, lurgaineko uhinen bidezko herri-telebisten zerbitzua administrazio emakida bidez kudeatzeko araubide juridikoa ezarri duena.

Foru dekretu horretan programazioan hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra eta euskara sustatu eta babestea ezarri dira abiaburu gisa, eta zerbitzuak adjudikatzeko irizpideen artean ondokoa finkatu da: "programazioan Nafarroako Foru Komunitateko kultur baloreak sustatzea, eta haiekin batera baita euskara ere".

Katalunia:

Hizkuntz Politikari buruzko Legearen 25.1 eta 26.4. artikulua, 5. oin-oharrean transkribatu direnak, Generalitatek adjudikatzen dituen emisoreei eta lege hura indarrean jarri ondoren eman edo berritutakoei aplikatzen zaizkie.

Gainera, lurgaineko uhinen bidezko herri-telebisten araubide juridikoa ezarri duen urriaren 1eko 320/1996 Dekretuak ondokoa ezarri du:

Article 3

Principis generals

La prestació del servei de televisió local per ones terrestres s'inspirarà en els principis que segueixen:

c) El respecte al pluralisme polític, religiós, cultural i lingüístic.

h) La col·laboració en el procés de normalització de la llengua catalana, i de la llengua aranesa en el seu àmbit territorial, d'acord amb els objectius i condicions que estableix la Llei 7/1983, de 13 d'abril, de normalització lingüística a Catalunya.

Títol III Procediment de concessió

Article 11

Criteria de valoració

El Govern, a l'efecte de l'atorgament de l'adjudicació provisional a persones naturals i jurídiques privades, considerarà el grau de concurrència conjunta en el sol·licitant dels aspectes següents:

L'interès cultural i/o educatiu del projecte, valorant essencialment el foment de les diferents manifestacions de la cultura catalana local.

La promoció de la llengua catalana, així com específicament l'aranès, dins l'àmbit territorial de cobertura de la seva influència.

La creació d'emissores que realitzin la seva programació en català, en zones poc o gens dotades d'estacions radiodifusores en aquesta llengua.

Títol 4 Obligacions del concessionari

Article 14

Programació

En els termes del que estableixen els articles 6, 7, 8 i 9 de la Llei 8/1996, de 5 de juliol, de regulació de la programació audiovisual distribuïda per cable, la programació de les televisions locals per ones terrestres se subjecta als límits i les condicions següents:

b) Dedicar el 50% del temps de reserva destinat a la difusió d'obres europees a l'emissió d'obres d'expressió originària en qualsevol llengua oficial de Catalunya. S'ha de garantir que, com a mínim, el 50% d'aquestes obres sigui en llengua catalana. Les emissions de pel·lícules, sèries televisives o documents doblats o subtítulats a una llengua diferent de l'original s'hauran d'oferir almenys doblades o subtítulades, respectivament, en llengua catalana.

Aipa daitekeen arau bakarra Administrazioaren sustapen-jardunari dagokio: lehen ere aipatu dugun 2000ko uztailearen 5eko Agindua, Kultura Sailburuarena (2001. urteko ekitaldian aplikatzeko, 2001eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez egokitu dena. Otsailaren 23ko EHAA). Agindu horrek komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko diru-laguntzak nola eman arautu du eta 75 milioi pezeta jarri ditu euskarazko herri-telebisten proiektuen artean diru-laguntzak banatzeko, pertsona juridikoen zein pertsona pribatuen proiektuen artean, alegia; diru-laguntza jasotzeko baldintza bat ezarri da: telebista-enpresak urtean osoan zehar euskarazko saioak eman beharra, gutxienez 10 ordu astean.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian proposamen zehatza egin da herri-telebistari buruz, gaiari nahikoa orokorrean helduta bada ere: “Euskarazko herri-telebisten garapen-markoa lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuok bultzatzen ari diren eragile sozialen eta erakunde publikoen artean”.

Proposamen hori gauzatzeko ez da ezer aldatu behar hura abiarazteko ezarritako arau-markoan.

Nolanahi ere, kontuan hartuz gero nolako arreta eman zaion Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian herri-telebistari, argi utzi nahi dugu Eusko Jaurlaritzak arlo honetan sustatu baino zerbait gehiago egin dezakeela; hain zuzen ere, hizkuntzaren arloa arautzen duen legea onar dezake eta bertan lurgaineko uhinen bidezko herri-telebisten zerbitzuen emakidan hizkuntza irizpide zehatzak finka ditzake edo ez (erregelamendu bidez garatzeko erremisioa jaso dezake). Irizpideok askotarikoak izan daitezke, bai euskara zerbitzua adjudikatzean lehenetsiko den elementutzat jotzea, bai programazioa gutxienezko hizkuntz kuota batzuk bete beharra ezartzea⁹.

10. PRENTSA

⁹ Ildo horretatik, gogoan izan behar da ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldatutako uztailearen 12ko 25/1994 Legearen 2.5. artikulua, lan honen 4.2. atalean aipatu duguna.

Estatuan, prentsaren araubidea finkatu duten oinarritzko arauak oraindik indarrean dagoen Prentsa eta Moldiztegiei buruzko martxoaren 18ko 14/1966 Legean ageri dira, Konstituzioaz geroztik ez da legerik eman arlo honetaz.

EAEk eremu honetan dituen jardun-ahalbideak¹⁰, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian proposatutako neurriekin bat etorritik, sustapenari dagozkio; gainera, ahalbideok lege-oinarriak dituzte EEALren 25. artikuluan.

Ilido horrextatik onetsi zen Kultura Sailburuaren 2000ko uztailaren 5eko Agindua (2001. urteko ekitaldian aplikatzeko, 2001eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez egokitu dena. Otsailaren 23ko EHAA), aurreko ataletan dagoeneko aipatua. Agindu horrek komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko diru-laguntzak nola eman arautu du eta 485 milioi pezeta jarri ditu egunkarietarako eta aldizkarietarako. Hain zuzen ere, diru-laguntza eskatu ahal izango da idatzizko prentsa-agerkarietarako, euskararen lurralde-eremu osorako zein udalerrri-aldizkarietarako, baldin eta euskara hutsean argitaratzen badira eta gutxieneko zenbait eskakizun betetzen badira: gutxieneko ale kopurua, aldizkotasuna eta orrialde kopurua –betekizunok salbuetsi egingo dira haur eta gazteentzako aldizkarietan “kontuan hartuz arlo honetan dauden beharrianak eta eskaintza oso urria dela”, Aginduan aipatu bezala–.

11. KABLE BIDEZKO KOMUNIKABIDEAK

Kable bidezko telekomunikazioen araubide juridikoa Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/1998 Lege Orokorrean agertarazi da, nahiz eta bertako xedapen indargabetzaile bakarrak Kable bidezko Telekomunikazioei buruzko 42/1995 Legea telebista-zerbitzuaren araubiderako soilik utzi indarrean. Estatuko legeriak Estatuari (Sustapen Ministerioa) eman dio zerbitzu hori

¹⁰ Argi gera bedi teorian autonomia erkidegoek euren prentsa-komunikabideak sor ditzaketela, Konstituzio Auzitegiak 6/1981 eta 86/1982 epaietan ezarri duenaren arabera.



adjudikatzeko eskumena, lehiaketa publikoa deituz. Eremu bakoitzean emakida bakarra egongo da, Telefónica de España S.A.ri aintzatetsitako gaikuntza bereziari kalterik egin gabe. Legez ezarritako prozeduraren bidez hiru lurralde-eremu finkatu ziren –haisetako bakoitzean kable-operadore bakarrak jardungo du zerbitzuan–. Eremuok 50.000 eta 2.000.000 biztanle bitarteko herria hartzen dute, eta udalerrri txikiagoek beste batzuekin batu behar dute aurreko biztanle kopuru horretara iristen den eremua proposatzeko. Autonomia erkidegoek era askotara hartu zuten parte prozedura horretan, eremu bakoitzaren lurraldearen arabera, baina oraingoan ez dugu horretaz besterik esango. Egia esan, Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde-eremu bakarra da eta gauza bera gertatzen zaio Nafarroako Foru Erkidegoari.

Estatuko legerian badaude alderdi batzuk autonomia erkidegoek garatu eta betearazi ahal dituztenak, hain zuzen ere E.K.ren 149.1.27 artikuluan gizarteko komunikabideez ezarritako eskumenari dagozkionak. Ondokoak dira alderdiok: operadoreek euren sarearen bidez ikusentzutezko saio lokabeen ehuneko jakinak eman beharra (42/1995 Legearen 10. artikulua); operadoreek telebistako zenbait zerbitzu banatzeko dituzten betebeharrak zabaltzea (11. artikulua); eta, azkenik, kable bidez ematen diren saioen edukiak (12. artikulua). Nahiz eta telebistari buruzko xedapenak izan, eskumen berdinak ditu Autonomia Erkidegoak kable bidezko irrati zerbitzuan garapenari eta betearazpenari dagokionez.

EAEEn ez da onetsi inolako xedapenik honetaz, eta beraz ez da ezer zehaztu kable bidezko telebistan eta irratian euskaraz aritzeari buruz. Kataluniako Autonomia Erkidegoan, berriz, bestela da: norberaren programazioen eta telezerbitzuetan %50 katalanez eman beharra eskatzen du (1/1998 Legearen 26.1 art.) eta gainera kable bidezko ikusentzutezkoen programazioa arautu duen uztailaren 5eko 8/1996 Legean ezarritako kuota-sistemari eusten dio¹¹.

11

✓ 1/1998 Legearen 26.1. artikuluan ondokoa ezarri da:
“1. Kable bidezko ikusentzutezkoen programazioa arautu duen uztailaren 5eko 8/1996 Legearen aplikazioari kalterik egin gabe, aipatu legean aipatutako erakundeek eurek sortutako saioetan eta gainerako telezerbitzuetan %50 katalanez izatea bermatu behar dute.”

12. SATELITE BIDEZKO KOMUNIKABIDEAK

Estatuak satellite bidezko telebistaz eman dituen arauetan ez zaie eskumenik batere aintzatetsi autonomia erkidegoei. Abenduaren 12ko 37/1995 Legearen arabera, Estatuari soilik dagokio satellite bidezko emanaldietarako baimena ematea¹².

Programazioari dagokionez, 37/1995 Legearen xedapen erantsietatik zazpigarrenean ezarri da satellite bidezko telebista-zerbitzuetan, saioak kodetu zein ez, beti ere aintzat hartu beharko direla ITERen 4. artikuluan bildutako abiaburuak –haisetako bat hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra da–, eta, programazioa orotarikoa bada, 25/1994 Legean ezarritakoa bete behar dela (4. atalean aipatu dugu).

Azkenik, gogora ekarri behar da euskal telebistak, irrati-telebistako beste izaki publiko autonomiko batzuek bezala, “plataforma digital” deritzenei atxikitzea erabaki duela (plataforma horien zerbitzua diru trukean telebista-saioak ematea da) eta ondorioz argi dago eragina izango duela edukietan eta programazioan¹³.

-
- ✓ Kable bidezko ikusentzutezkoen programazioa arautu duen uztailaren 5eko 8/1996 Legean, programazioan aintzat hartu beharreko abiaburuen artean hizkuntz aniztasunari begirunea izan beharra eta Kataluniako kultura eta katalana (bai eta aranera ere) sustatzea aipatzeaz gainera, ondokoa ezarri da:
 “7. artikulua. Hizkuntz aniztasuna.
1. Telebista-zerbitzu publikoa egiten duten erakundeek Europako obrak emateko gordetako denboraren %50 gorde behar dute Kataluniako hizkuntza ofizialetan egindako obrak emateko. Gutxienez, halako obren %50 katalanez izan behar dira.
 2. Jatorrizkoetik beste hizkuntza batzuetara bikoiztutako filmak, telebista-sailak eta dokumentalak katalanez bikoizturik ere eman behar dira aldi berean. Gauza bera egin behar da azpitoluak dituzten produktuekin.
 3. Xedapen erantsian ezarritakoa gora-behera, gaur egun harpidedunen antenek jasotzen dituzten kanal irekiak 1 eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak bete gabe eskaini ahal dira.
 4. Operadore eta programatzaile lokabeek gutxienez katalanez aritu behar dute euren harpidedunei eskaintzen dizkieten komunikazio-sistemetan, ikusentzutezkoetan zein idatzizkoetan.
 5. Operadoreak batez ere katalanezko saioak ematen dituzten telebista-zerbitzuak eman behar dizkiete sarera konektatutako harpidedunei, eta Val d’Aranekoei aranerazko saioak ematen dituztenak.”

¹² Telekomunikazioei buruzko 11/1998 Legeak, Satellite Bidezko Telekomunikazioei buruzko abenduaren 12ko 37/1995 Legea indargabetu duen xedapen indargabetzaile bakarrean, berariaz adierazi du 37/1995 Legeak indarrean jarraituko duela telebista-zerbitzuaren araubideari dagokionez.

¹³ ETBn nazioarte mailako bi kanal daude orain: batetik ETB Sat, Vía Digital plataforman integratuta dagoena, eta bestetik Canal Vasco deritzona, Ameriketarako sortu dena berariaz.

13. LURGAINeko UHINEN BIDEZKO KOMUNIKABIDE DIGITALAK

Zergen, Administrazioaren eta Gizartearen Arloetako Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legearen xedapen erantsietatik berrogeigarrenaren arabera:

“Lurgaineko irrati eta telebista digitalen zerbitzuak maiztasun bakarreko edo askotako sareen bidez ustiatu ahal izango dira, nazio eremuan, autonomikoan zein, hala denean, udalerrikoan. Irrati eta telebista digitalen zerbitzu publikoak erakunde pribatuen bidez kudeatu ahal izango dira zeharka, teknikoki ahal denean, irrati-espektoaren baliagarritasunaren arabera eta Gobernuak Lurgaineko irrati eta telebista digitalen zerbitzuak egiteko onesten dituen plan teknikoekin bat etorriz. Estatu osoa hartzen duten zerbitzuak Estatuak adjudikatuko ditu; aldiz, autonomietako eta udalerrietakoak autonomia erkidegoek adjudikatuko dituzte.”

Jarraian lurgaineko telebista digitalaren zerbitzuari buruz eman diren arauetako alderdi garrantzitsuenak aztertuko ditugu laburbildurik¹⁴. Batetik, telebista digitala apurka-apurka sartzeko eskatzen da, hots, oraingo teknologia analogikoa mailaz maila ordeztzeko; gaur egun telebista-zerbitzua egiten duten operadoreek laster ekin beharko diote horri. Teknologia digitalaz baliatuz egiten diren zerbitzuen zuzeneko kudeaketa RTVEren ardura izango da, bai eta abenduaren 26ko 46/1983 Legean araututako hirugarren telebista-katea autonomikoen emakida duten erakundeena. Zeharkako kudeaketa, funtsean, Telebista Pribatuari buruzko maiatzaren 3ko 10/1988 Legean ezarritakoaren arabera egingo da. Aurreko irizpidearen arabera erreserbatu ez dauden Estatu osoko gainerako kanal eta programen bidezko zerbitzu-ustiapenak Ministro Kontseiluak adjudikatuko ditu lehiaketa publiko bidez; autonomia erkidego eta udalerrietan zerbitzua egiteko baliagarri dauden kanalak

¹⁴ Erregelamendu Teknikoa eta Zerbitzugintzakoa, 1998ko urriaren 9ko Aginduaren bidez onetsia, eta urriaren 9ko 2169/1998 Errege Dekretua, Lurgaineko Telebista Digitalaren Nazio Plan Teknikoa onetsi duena.

autonomia erkidegoek adjudikatuko dituzte, Nazio Plan Teknikoaren arabera. Plan Teknikoan ezarri denaren arabera, programazioetan deskonexioak egin ahal izango dira, bai Estatu osorako emanaldietan autonomietarako saioak emateko, bai autonomietako kanaletan “erregio, eskualde, edo eskualdeetarako saioak emateko”.

Estatuaren eremuan lehiaketa deitu zen zerbitzua ustiatzeko emakida bat adjudikatzeko, eta Onda Digital suertatu zen adjudikaziodun. Autonomia erkidegoetara etorrira, guk dakigunez Madrilgo Erkidegoak soilik adjudikatu du zerbitzua.

Telebista digitalaz esan berri ditugunak irrati digitalari ere aplikatu dakizkioke; hartaz aplika daitezkeen arauetan azaldu berri dugunaren antzeko eredia taxutu da¹⁵. Ministroen Kontseiluak hamabi emakida esleitu ditu orain arte zerbitzu hori ustiatzeko (2000ko martxoaren 10ean eta azaroaren 24an hartutako Erabakiak).

14. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

Sare telematikoek, eta batez ere Internetek, goitik behera irauli dute telekomunikazioen eta komunikabideen mundua; arlo honetan hainbat alderdi juridiko definitu gabe daude oraindik.

Eragozpenak begibistakoak dira: nazioarteko komunikazio-sarea dugu, deszentralizatua, agintaritza edo botere bakarrik ez duena eta ekimen pribatuek erabat hartua dutena. Halaber, gogoan izan behar da sare horretan barna era askotako edukiak eta zerbitzuak dabiltzala: pertsona pribatuen arteko mezu elektronikoak, erakundeen publizitatea, eta gizarteko komunikabideak, besteak beste. Adibidetzat eman ditugunei helduta, teknologia berrietan oraindik ez dira arautu komunikabideen adierazpen-askatasunaren mugak, ohiko

¹⁵ Lurgaineko Uhinen bidezko Irrati Digitalaren Nazio Plan Teknikoa, 1287/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi, eta Erregelamendu Teknikoa eta Zerbitzugintzakoa, 1999ko uztailaren 23ko Ministroaren Aginduaren bidez onetsia.

komunikabideetan aspaldi ongi ezarrita daudenak. Izan ere, gai horri buruzko eztabaida hasia da dagoeneko, batzuen ustez sarea adierazpen-askatasunaren paradigma izan behar bailitzateke, inolako administrazio-murrizpenik gabe.

Ingelesa nagusi dela oharturik, asko eta asko kezkatzen hasiak daude hizkuntz aniztasunaren iraupena dela eta, hiztun guztiek baitute euren hizkuntzaganako axola, are eremu batzuetan nagusi diren hizkuntzetan mintzo direnek ere. Horregatik, hizkuntzak babestu eta sustatzeko neurriak abiarazi behar dira¹⁶.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko aurreikuspenei dagokienez, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eremurako azaldu diren neurri guztiak dira administrazio-sustapenekoak; hauxe da azken proposamena:

“hona herri-administrazioen egitekoak: orain arte egindako ekimenak ordenatu, baloratu eta zabaldu; hizkuntz baliabideen azpiegitura eraikitzeko euskarria prestatu; erabiltzaile-

¹⁶Kontseiluaren 2001/48/CE Erabakia, 2000ko abenduaren 22koa, urte anitzeko programa bat onartzen duena garapena bultzatzeko, Europako eduki digitalak erabiltzeko munduko sareetan eta hizkuntza aniztasuna sustatzeko informazioaren gizaratean.

Nahiz eta Europako Erkidegoetako Auzitegiak esan orain mintzagai dugun programaren aurrekoari buruz (Kontseiluaren 96/664/CE Erabakia, 1996ko azaroaren 21ekoa, urte anitzeko programa bat hartzeari buruzkoa erkidegoaren hizkuntza aniztasuna sustatzeko informazioaren gizaratean; 1996ko azaroaren 28ko DOCE L 306) helburua batik bat industriako zuela, ezin dira ukatu hizkuntzaren aniztasunaren sustapenerako dituen eraginak.

Izan ere, 96/664/CE Erabakiari dagokionez, Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 1999ko otsailaren 23ko C-42/97 epaiak adierazi du (as. Europako Parlamentua c. Europako Batasuneko Kontseilua) "Zuzenbidearekin bat datorrela erabaki hori Itunaren 130. artikuluan baino ez oinarritzea". Dioenez, programak ez du "kulturazko xederik, kultura programaren ezaugarrietako bat baino ez da; eta programaren izaera nagusia industriazkoa da. Izan ere, hizkuntza ez da ikusten ingurune horretan kultura-ondareko elementu gisa, ekonomi jardueraren xede edo tresna gisa baizik. Azterketatik ondorio ateratzen da programaren xedea, hau da, hizkuntz aniztasunaren sustapena, batez ere izaera ekonomikoa duen elementua dela, eta osagarri gisa, kulturako ibilgailu edo elementua. Ez da eztabaidan jartzen programak eragin onuragarriak izango dituela kultura-obra zabaltzeko, batez ere itzulpenetarako erabilgarri dauden tresnak hobetuko dituelako. Hala ere, eragin horiek zuzeneko eragin nagusien ondoan, zeharkakoak eta osagarriak baino ez dira, eta ez dute justifikatzen erabakiak Itunaren 128. artikulua oinarri hartzea". Horrela, Auzitegiaren iritziz Europako Parlamentuaren nahiaz gain (Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren 128. artikulua aipatzeari buruzkoa; gaur egun 151. artikulua), zuzena da 130. artikulua aipamen bakarra (gaur egun 157. artikulua), industriaren lehiakortasuna laguntzeaz diharduena.

Espainiako Estatuaren eremuan aipatzekoa da Batzorde Bereziak eragin horietarako Senatuko Sare Informatikoei buruz landutako txostena. 1999ko abenduaren 9ko batzordean onartu zuten txosten hori eta honela dio:

"Espainiako hizkuntzak eta kulturak bereizten gaituzten zeinuak dira eta balio erantsia ezartzen dute espazio digitalean dugun tokian. Gure hizkuntza lehartzeko abantaila ematen digun kultura-ondasuna da, munduko espainieradun biztanle ugariekin harremanak izateko. Programa bat ezarriko da sarean espainieraz dauden edukien ezarpena nabarmen sendotzeko eta handitzeko; Cervantes Institutuari aurrekontua igoko zaio eta horren bidez galiziera, euskara eta katalana ezagutzeko eta zabaltzeko programa bati ere ekingo zaio. Hiru hizkuntza horietako komunikazioari ere arreta berezia emango zaio".

komunitate prestatua eta aurreratua sortu; edizio- eta itzulpen- plataforma edo sareak sortu, baita denen eskura egon daitezkeen hiztegi elektronikoak ere.”

Eremu honetan euskaraz aritzea sustatzeko herri botereek egin dezaketenaren legezko oinarriak (EEALn berariazko aipamenik ez egon arren¹⁷) 26. artikuluan daude¹⁸, bertan erabiltzaileei euskarazko informazio, tresna edo edukiak jasotzea ahalbideratzeko jarduketak ageri baitira.

Hala ere, ez dira horiek aplika daitezkeen manu bakarrak. Sarea hainbat gazatarako erabiltzen denez gero, gizarteko komunikabideei buruzko manuak ere kontuan izan behar dira; ildo horretatik, esaterako, legez bidezko litzateke diru-laguntzak ematea sarean prentsa argitaratzeko.

V. TITULUA

KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BERMEA ETA EREMU SOZIOEKONOMIKOA

1. SARRERA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaz Jaurlearitzak aurkeztu zuen komunikazioa eztabaidatu eta gero, Eusko Legebiltzarraren 1999ko abenduaren 10eko bilkuran onartu zen laugarren ebazpenean adierazi zen euskararen erabilera normaltzera begira onarturik dagoen legedia garatu egin behar dela, besteak

¹⁷ Estatuan indarrean dauden hizkuntz normalizazioari buruzko legeetatik Kataluniako 1998ko Legea da hizkuntzaren arloko industriak eta informatika berariaz aipatzen dituen bakarra (29. artikulua):

"Generalitateko Gobernuak neurri egokiak hartuko ditu ondoko hauek aldeztuko, sustatzeko eta bultzatzeko:

a) Hizkuntzaren arloko industrian katalanezko era guztietako produktuak ikertzea, ekoiztea eta merkaturatzea, esaterako, ahotsa ezagutzeko sistemak, itzulpen automatiko sistemak eta antzekoak, edota teknologiaren aurrerakuntzek ahalbideratzen dituztenak.

b) Katalanezko programak, ordenadore-jokoak, edizio digitalak eta obra multimediak ekoiztea, banatzea eta merkaturatzea, eta produktu horiek katalanera itzultzea.

c) Informazioaren sare telematikoetan katalanezko produktuak eta informazioak agertzea".

¹⁸ 26. artikulua. Euskal botere publikoek gizarteko bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera sustatzeko neurri egoki eta beharrezko bitartekoak ezarriko dituzte, herritarrek bizitza hizkuntza horretan egiteko aukera izan dezaten merkataritza, kultura, elkartegintza, kirol, erlijio eta gainerako arloetako jardueretan.

beste, *eremu sozioekonomikoan* aurrera egiteko, eta *kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak bermatu behar horretan ere* aurrera egiteko.

Bi gauza dira beraz, baina batera aztertzea erabaki dugu, bata besteari loturik baitaude garbi-garbi.

Euskarak esparru horietan duen araubide juridikoa aztertuko dugu, autonomia erkidegoak xedapen bidez zer arau dezakeen zehazteko.

2. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEZKO LEGEAK ZER AURREIKUSTEN DUEN

Euskeraren Erabilpena Arauzkotcheko Legean aitorturik dago profesioetan, lanean eta sindikatuetan euskaraz jarduteko eskubidea (5.1 artikulua), eta agente publikoen ardura omen da eskubide horiek bermatzea, benetako eskubideak izan daitezen (5.3. artikulua). II. tituluko IV. kapituluan, bestalde, honako hau jartzen du (gizarteko erabilerari eta erakunde-arloko beste alderdi batzuei buruzkoa da):

26. atala

Euskal Herri-agintariek euskera gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dedila suztatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dituzte, herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolanhiko ekintzapidetan euskeraz ari daitezeneko bideak eskeintzeko.

27. atala

1. Euskal herri-agintariek euskera zabalkunde-ihardunetan erabiltzea suztatuko dute.
2. Halaber, euskera-giroari indar emango diote, eta bai merkataritzazko, atsedenezko, kulturazko eta bazkundezko ofizialez besteko nolanhiko erakundetako iragarkietan erabiltzeari ere.

Bi artikulua horietan garbi ikus daiteke euskal legegileak zein eredu hartu zuen gai horretan. Bi alderdi ditu eredu horrek, labur-labur: Alde batetik, euskal herritarrek euskara edozertan eta edonon erabiltzeko modua izan dezaten, euskal aginte publikoak hartarako beharrezko sustapen-lanak egitera bultzatu nahi dira. Beste alde batetik, partikularrei ez zaie hizkuntzaren aldetik inolako betebeharririk agintzen.

3. KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

3.1. Euskal legedian kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak ez daude arauturik

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legean ez dago inolako xedapenik justu gai honetarako. 5. artikulua, esate baterako, herritarren hizkuntz eskubideei buruzkoa da, baina ez du kontsumitzaileen hizkuntz eskubiderik aipatzen. Eta esparru horretan euskara indartzeko ezer egin behar bada, arauetan hartarako eusgarririk aurkitzekotan, gizarte-erabilerari buruzko artikuluetan beharko du izan (26.a eta hurrengoak), hor aipatzen baita aginte publikoek euskararen erabilera sustatzeko duten zeregina, dela merkataritzan, dela publizitatean, dela merkataritzako erakundeetako euskararen ageriko erabileran.

Bezeroaren Araudiari buruzko Euskal Legean, berriz, hauxe besterik ez dio hizkuntzak direla-eta: “arauak, ahal dela, elebietara jarri beharko direla – euskaraz eta gaztelaniaz-“, kontsumitzaileei eskaintzen zaizkien produktu edo zerbitzuekin batera doan informazioan (17. artikulua) ¹⁹. Ilun idatzirik dago, baina hala ere, antza denez euskal legegilea elebitasunera lerratzen da etiketa-

¹⁹ Azaroaren 18ko 10/1981 Legea, Konstituzio Auzitegiaren 1982ko azaroaren 30eko epaiaren araberrako azken idazketa, 1983ko martxoaren 2ko EHAA:

17. artikulua.- Bezeroak eskaintzen zaizkion ogasun eta zerbitzuen zernolakoak ezagutu ditzala lortzeko, Eusko Jaurlaritzak, prezioei eta txartelei buruzko araupidetza hertsiki bete dadila isituki eskatuko du, eta salgai jarritako zer bakoitzak, indarreango legeek bakoitzarentzat nahitaez eskatzen dituen betebeharrak dagokion txartelean zehazki adierazi daitezen ahaleginduko da.

Esandako helburu horiekin batean, Eusko Jaurlaritzak, salgaien erabiltze moduari, kontraktotasunei eta bermeei buruzko argipideketa egoki bat sustatuko du.

Horietarako guztietarako bi hizkuntzetango –euskeraz eta gaztelaniaz- araupideak eskainiko dira.

kontuetarako eta, orokorrean, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informaziorako. Eta are eta zalantzazkoagoa da ea –euskara sustatzeko ahalegin hauetan- arau horrek noraino balio duen, hau da, ea hizkuntzaren aldetik betebeharren bat eskatzeko xedapenentzako legeko eusgarri izan ote daitekeen. Alde horretatik, baina, ez da ezer araudiz garatu. Horixe da egia.

Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak direla-eta, ez dago, hortaz, ezer arauturik. Eta, hein berean, betebeharririk ere ez da agintzen orokorrean esparru horretarako. Salbuespenak salbu, hori bai: euskararen erabilera arautzeko legeko 11. artikuluan bai agintzen dira betebeharririk batzuk garraio-zerbitzu publikoak kudeatzeko –gero ere helduko diogu kontu horri-, eta arlo jakinen batean ere bada araudiren bat edo beste, baina bitxi arraro bat besterik ez da ia, arauetan ez baitaio gai horri inon heltzen.²⁰

Estatuko hizkuntz normalizaziorako beste legeetan ere gai horiek arautu gabe daude, ez da hemengo kontua bakarrik beraz. Izan ere, garai hartan beste gai batzuek zuten lehentasuna hizkuntza plangintzarako, hala nola, administrazioak, hezkuntzak eta komunikabideek.²¹

²⁰ Hau da, honela dio baserrialdeetako turismoko ostatuak arautzeko dekretuak (maiatzaren 28koa da 128/1996 zenbakia du): “gutxienez gaztelaniaz eta euskaraz jarri beharko dira” eskaintzen diren zerbitzu guztietako prezioak (13. artikulua). Eta, beste alde batetik, Euskadiko kanpinak arautzeko dekretuan jartzen duenez (41/1981 zenbakia du eta martxoaren 16koa da), erabiltzaileentzako informazioak “euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez idatzirik egon behar du, eta nazioarteko ikurrak ere erabil daitezke” (34. art.).

²¹ Beste hizkuntza bat duten autonomia erkidegoetan hizkuntza normalkuntzarako egindako legeetan ez dago gai hori arauturik, baina bai hango kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutuakotako batzuetan, Galiziakoan eta Balearretakoan adibidez.

Euskadin gertatzen den moduan, estatutu horietan ez dator kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz eskubiderik, ezta produktuak egiten dituztenen edo zerbitzuak eskaintzen dituztenen hizkuntz betebeharririk ere. Horrek ez du esan nahi, ordea, aginte publikoek ezer egin behar ez dutenik kontu horietan. Aitzitik, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa emateko orduan *hizkuntza propioa* sustatzeko agintzen zaie aginte publikoei, Euskal Autonomia Erkidegoan izan ezik, informazio *elebidunarekin* lotzen baita, EAEn, hizkuntza sustatzeko behar hori.

Honenbestez, kontsumitzailearen eta erabiltzailearen Galiziako estatutuak honela dio –abenduen 28ko 12/1984 Lege bidez onartu zen-: “galiziera erabiltzea bultzatuko da” (23. artikulua).

Balearretako Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuan hobeto zehazturik dago (martxoaren 10eko 1/1998 Lege bidez onartu zen), eta han jartzen duenez, “kontsumitzaileentzako informazioak – aurreko artikuluan aipatzen den horrek- autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean egon behar du gutxienez” (14. artikulua. Artikulu horretan, etiketei buruzko xedapen batzuk ere badakartza, baina dagokion paragrafoan aztertuko ditugu). Eta esaten du, gainera, erkidegoko lurraldean diharduten herri-administrazioek produktuen etiketetan eta zerbitzuei buruzko informazioan katalana erabiltzea bultzatu beharko dutela (20. artikulua), eta erkidegoko gobernuak hiztegi berezituak eta beste material batzuk argitaratzea eta zabaltzea bultzatu beharko duela, hitzarmenetan eta, orokorrean, merkataritzan eta profesioetan katalana erabiltzen laguntzeko (35. artikulua).

Baina Kataluniako ordenamenduak ez du bide beretik jo. Lehenengo, horra hor Bezeroaren Araudia, martxoaren 5eko 3/1993 Lege bidez onartua eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak zehazten dituena; eta, gero, hizkuntz politikako 1/1998 Legea²². Hizkuntz eskubideez gainera, produktu-egile eta zerbitzu-emaileentzako betebeharrak batzuk ere arautzen ditu Kataluniako legediak. Halakoetan gutxika-gutxika egin behar denez aurrera, ez dituzte denek epe berean bete behar, eta zigorra ere ez zaie denei batera jartzen.

3.2. Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arautzeko aukerak

3.2.1. Gogoeta zenbait, beste ezer baino lehen

Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arautzeko eta, beharrezkoa bada, produktu-egileei eta zerbitzu-emaileei betebeharrak jartzeko, eta, honenbestez, hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko bide horretatik, lege-mailako arau bat behar da. Esparru horretako hizkuntz araubidea Eusko Legebiltzarraren

²² Hara zer jartzen duen Kataluniako Hizkuntza Politikako Legearen zioen adierazpenean: "Esparru sozioekonomikoa dela-eta, katalanak non-noiz agertu behar duen arautzeko eta hizkuntza horren erabilera sustatzeko hainbat neurri hartzen du, merkatuagatik edo beste edozergatik agertze eta erabiltze hori nahikoa bermaturik ez dagoen arlo guztietarako. Horrela, enpresa publikoak, emakidadunak eta zerbitzu publikoetakoak hizkuntza normaltzeko prozesura biltzen dira bizi-bizi, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak bermatze aldera. Ekonomian bi hizkuntzak parekatzea da helburua, aldi-aldi, hau da, Kataluniako herritar guztiak hizkuntza ondo ikasi ahala, eta –Generalitateak saiatu beharko du hau lortzen– gizartearen ados egonik. (...) Lege hau bide-erakusgarri moduko bat da herritarrentzat, eta administrazioarentzat eta, zenbaitetan, enpresa batzuentzat dakar bakarrik betebeharrak, hau da, zerbitzu publiko bat ematen badute eta hala komeni bada herritarren hizkuntz eskubideak bermatze aldera."

Lotura publikoren bat duten enpresak alde batera utzita ere, legean hainbat betebeharrak dago jasota:

- ✓ Atxikimendu-hitzarmenak, arau-zerrendak, hitzarmen klausuladunak edo baldintza orokordunak kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntzan idatzi behar dira, eta katalanezko eta gaztelarazko ale bana egon behar du, beti eta berehala, bezeroen eskura (15.3. artikulua).
- ✓ Finantz entitateek bezeroei eskaintzen dizkieten txekueak, pagareak, taloiak eta bestelako agiriak katalanez idatzi behar dira gutxien-gutxienez (15.5. art.).
- ✓ Bereziki garrantzitsua da 32. artikulua, honela baitio: 1. "Katalunian diharduten enpresek eta dendek edo etxe zerbitzu-emaileek kontsumitzaileei Kataluniako hizkuntza ofizialtako edozeinetan kasu egiteko gai izan behar dute. 2. Neurri egokiak erabiliz, Generalitateak 1.3. paragrafoan aipatzen den esparruan katalanez orain baino gehiago egin dadin sustatu behar du. Dendetan-eta, seinaleak, informazio orokorreko kartel finkoak eta erabiltzaileei eta kontsumitzaileei zerbitzuak eskaintzeko agiriak katalanez idatzita egon behar dute gutxien gutxienez. Arau horrek ez du balio jabetza industrialeko legediaren pean diren marka, izen komertzial eta errotuluetarako."
- ✓ Kontsumitzaileentzako era erabiltzaileentzako informazioari buruzko artikuluan, azkenik, hau da, 34. artikuluan, etiketei buruzko hainbat alderdi dago arauturik, baina aurrerago ikusiko ditugu.

Eta bosgarren xedapen gehigarriak gehitzen duenez, "dagokien enpresa eta erakundeek ez badituzte 15, 30, 31 eta 32.3 artikuluetako aginduak betetzen, erabiltzaile eta kontsumitzaileen eskariak betetzeari arrazoirik gabe ezetz esaten dietela ulertuko da, eta merkatuko diziplinarako eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legeko zigor-sistema ezarriko zaie (urtarrilaren 8koa da eta 1/1990 zenbakia du)." Eta aldi baterako bigarren xedapenak dioenez, berriz, "Lege honen eraginpean geratzen diren enpresek eta erakundeek bi urteko epea daukate 15. artikuluan xedatzen duenera eta V. kapituluko xedapenetara egokitzeko. Enpresaburu autonomoek bost urtekoa izango dute epe hori".

lege baten bidez zehaztu beharko litzateke, hizkuntz normalizazioaren inguruan eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak erabiliz (Estatutoko 10.28 artikulua).

Esparru hori arautzeak –eta hau oso kontuan hartu beharra dago- *interprivatos* harremanetan eragitea esan nahi du. Partikularrei errespetua eskatzea besterik ez badakar (beste baten eskubidea jasatea), eskubide batzuk arautzeak ez dakar buruhauste handiegirik, baina partikular batzuei hizkuntzarekiko betebeharrak batzuk agintzeak, horrek bai eragin dezake arazorik, baldin eta eskubiderik murriztea badakar, hizkuntza norberak aukeratzeko eskubidea esate baterako, bi hizkuntza ofizial izateak hala baitakar.

Baina aginte publikoek –ez dezagun ahaztu- sarri askotan hartzen dute esku esparru honetan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesean alegia, Konstituzioak berak ere hala agintzen baitu, 51. artikuluan. Horra hor etiketak esate baterako. Etiketen araubide juridikoa harreman pribatuen artekoa da garbi-garbi, baina aginte publikoek bai arautzen dute hala ere, kontsumitzaileen eskubideak bermatu beharrez, segurtasuna eta osasuna babesteko eskubidea batez ere, eta baita informaziorako eskubidea ere. Halakoetan, hizkuntza aukeratzeko eskubidea mugatu ote daitekeen, edo produktu-egileen eta hornitzaileen adierazpen-eskubidea edo enpresa-eskubidea mugatu ote daitezkeen eztabaida (EK 38. art.) agorturik dago jada, eta jakina da aginte publikoek badutela esku hartzeko aukera, eta eskubide horiek mugatzeko esku hartu ere. Halakoetan, hizkuntza beste betebeharrak bat –beste bat gehiago- izango dute produktu-egileek eta hornitzaileek.

Harreman pribatuetan hizkuntza arautu ote daitekeen edo ez oraindik ere doktrinako eztabaida da²³, Konstituzio Auzitegiak ez baitu ezer erabaki beharrik

²³ Espainiako Arartekoak badu txosten bat lege honi buruz, eta -kontrako bidetik- harreman pribatuetako adierazpen-askatasuna baldintzatzea badakar, ezin omen da inolako hizkuntz betebeharrak agindu, nahi duten hizkuntza erabiltzeko "erabateko askatasuna" baitaukatere herritar guztiek. Hori dela-eta, Kataluniako Hizkuntza Politikako Legeko 32.3. artikulua kritikatzeari ekiten dio, han jartzen baitu –gogoan izan– dendetan-eta, seinaleak, informazio orokorreko kartel finakoak eta erabiltzaileei eta kontsumitzaileei zerbitzuak eskaintzeko agiriak katalanez idatzita egon behar dutela gutxienez.

izan oraindik. Dena den, Kataluniako Hizkuntza Politikako Legea hortxe dago, halako hizkuntza betebeharririk agintzen duen lege bakarra, eta oso aurrekari garrantzitsua inondik ere. Ez zuen inork konstituzio-errekurtsorik jarri.

3.2.2. Hizkuntz eskubideen definizioa

Hizkuntz eskubideak legez arautzekotan –berdin dio hizkuntza normaltzeko lege baten bidez edo kontsumitzailea eta erabiltzailea babesteko lege baten bidez-, orokorrean honako eduki hauek izan litzake lege horrek:

- ✓ Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eskaintzen zaizkien produktuei eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea.
- ✓ Informazio hori, dela hizkuntza batean dela bestean, baina ulertzeko moduan jasotzeko eskubidea.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko lurrian diharduten enpresekin edo dendekin euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko eskubidea, eta haiek hizkuntza ofizial aukeratuan kasu egin diezaguten eskubidea
- ✓ Atxikimen-hitzarmenak, hitzarmenetako baldintza orokorrak eta halako agiriak euskaraz jasotzeko eskubidea.

Kataluniako Aholku Batzordeak ez zuen eragozpenik jarri, baina, 32.3 artikulua hori dela-eta. Bai egon zen boto partikular bat –F. Carreras aholkulariarena– kritikagarria irizten ziona (baina egokia iruditzen zaio dendak-eta kontsumitzaileei bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan kasu egiteko moduan egoteko eskatzea, haien eskubideak bermatze aldera). Gehiengoaren ustez, ordea, informazio-kartelak eta zerbitzuak eskaintzeko agiriak gutxienez katalanez idatzita egotea “Kataluniako herritarrek hizkuntza hori erabiltzeko duten eskubidearekin bat dator, eta Generalitateak Kataluniako Autonomia Estatutuaren arabera neurritz eta inor baztertu gabe har ditzakeen eta hartu behar dituen neurrien artean dago (Kataluniako Aholku Batzordearen 203/1997 irizpena, Hizkuntza Politikako Lege-egitasmoa aztertzen duena. Itzulpena ez da ofiziala, “Teoría y Realidad Constitucionalen argitaratu zen, 2. zenbakian, 1998ko 2, seihilekoan).

Eta kritika horren bidetik jarraitu nahi izanez gero, T. Ramón Fernándezek edo S. Martín-Retortillok Hizkuntza Politikako Kataluniako Legea dela-eta eginiko irizpenak irakurri. Teoría y Realidad Constitucionalen daude, 2. zenbakia, 1998ko seihilekoa (“Hizkuntzak eta Konstituzioa monografikoa)

Milian i Massanak sakonetik aztertu du gai hau, eta hark dioenez, doktrinaren zatirik handienak eta Frantzia, Suitza eta Kanadako justiziako erakunde gorenek baietz diote, hizkuntzak babesteko eta zaintzeko, ondasun juridikoak balira modura, zilegi dela “harreman pribatuetan hizkuntz betebeharririk ezartzea, eta, ondorioz, adierazpen-askatasuna eta beste askatasun publiko batzuk mugatzea”. Labur-labur esanda, eskuhartze horiek onargarriak dira baldin eta hizkuntza zaintzeko badira –helburu arrazoizkoa baita hori–, hizkuntza bat erabili beharrik ez badakar besterik erabili ezina, eta neurri hori legez jasotzen bada. Eta, azterketa horretatik abiatuz, autore horrek dio Konstituzioz legekoak direla Kataluniako Hizkuntza Politikako Legean jasota dauden eta “gutxienez katalanez” dioten agindu batzuk –kontsumitzaileen eskubideen arlokoak eta, orokorrean, sozioekonomikoak dira horietako zenbait–.

(“La exigencia de “al menos en catalán” como garantía de la presencia social de la lengua catalana” *Estudios jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística* delakoan, Bartzelona, Generalitat de Catalunya. Institut D’Estudies Autònomic, 1999)

Halako lege batek, jakina, asko edo gutxi eska dezake, eta gauza batzuk beste batzuk baino onarterrazagoak edo eztabaidagarriagoak izango dira, eta gogoan auzi juridikoa dugu gero, ez hizkuntz politikaren aldetik komenigarria ote den edo ez. Bide batez esanda, kontu hori dela-eta, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ez du ezer askorik argitzen.

Informazio-eskubidea dela-eta, berriz, ez dago produktuen etiketetan hizkuntz betebeharririk agindu ezinik, zalantzarik ez (idatzizko informazioa da, kontsumitzaileei zuzendua, eta produktuari berari erantsia). Hainbat eta hainbat aurrekari dago bai Europako Erkidegoko bai estatuko araubideetan, eta Konstituzio barruko jurisprudentzia ere badago, berariaz aitortzen duena autonomia erkidegoek badutela non jokatu kontu horietan. Baina aurrerago ikusiko dugu zehatzago hori, gai horri eskaini diogun zatian. Halere, horretaz ari garenez, aurrera dezagun zer edo zer, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoak bai egin dezake etiketei buruzko legerik, kontsumitzailea babesteko eta hizkuntza normaltzeko dituen eskumenez baliaturik ²⁴.

Horixe bera gertatzen da informaziorako beste gauza batzuekin ere, (hizkuntzaren ageriko erabilerarekin zerikusia duten seinale edo informazio finkoekin; jendeari informazioa emateko agiriekin...). etiketak ez izanagatik ere, bai baitaukate kontsumitzailearen informazio-eskubidearekin zerikusia Hor ere bada nahikoa tirabira -ikusit dugu lehen ere-, baina, gure iritziz, enpresa eta dendei bai eska dakieke, legez, informazio hori elebietara emateko, eta baita “gutxienez” euskaraz jartzeko ere. ²⁵

Eztabaidagarriagoa izango da, behar bada, kontsumitzaileek euskaraz nahiz gazteleraz egiteko eskubiderik ote duten etxe saltzaileekin edo zerbitzu-emaileekin, eta haiek dena delako hizkuntza ofizial horretan erantzun behar ote

²⁴ Aurrerago izango dugu zer zehaztua, estatuak “osasunaren oinarriak” zehazteko duen eskumen ere hortxe baitago batzuetan, Konstituzio Auzitegiak berariaz esan duenez. Titulu honetako 4. paragrafoan dago gai hau arauturik.

²⁵ Ikus 23. oharra.

dieten. Eskubide horren alderdi aktiboa (kontsumitzaileak edo erabiltzaileak enpresarekin nahi duen hizkuntza ofizialean jarduteko duen eskubidea) hizkuntza bat ofizialtzat aitortu izanaren ondorio zuzena da. Horregatik, legegileak badauka agintzea kontsumitzaileak baduela hizkuntza ofizialeko bat erabiltzeko eskubidea dena delako dendatan edo enpresatan.

Eskubidearen alderdi pasiboa -kontsumitzaileari aukeratu duen hizkuntza horretan erantzun behar diotela agintzea- urrunago doa ordea. Betebehar hori ezartzeak hizkuntza aukeratzeko eskubidea mugatzea dakar, eta partikularren arteko harremanetan horrelakorik egin ote daitekeen eztabaidara garamatza horrek bete-betean. Hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea bai berma daiteke, hizkuntza horretan kasu egin diezaguten eskubidea ere bai, baina, harreman pribatuetan, ezin da inor guk aukeratu dugun hizkuntza ofizialean erantzutera behartu.²⁶

Atxikimen-hitzarmenak, hitzarmenetako baldintza orokorrak edo antzeko agiriak hizkuntza ofizialeko edozeinetan jasotzeko eskubidea dela-eta, gure ustez autonomia erkidegoak ez luke batere arazorik izango hori hala xedatzeko, ofizialtasunaren ondorio baten modura. Halako arautze baten edukia dela-eta, gogoan izan dezagun, estatuko legedia harturik kontuan, zer dioen, hitzez hitz, Aseguru Hitzarmenerako Legeko 8. artikulua, maiatzaren 13ko 18/1997 Legeak emaniko idazketan: “Asegurua hartzen duenak aukeratuko du hitzarmeneko poliza zein hizkuntzatan idatzi, hitzarmena egiten den tokian ofizialak diren artetik. Hartzaileak hala eskatzen badu, beste hizkuntza batean

²⁶ Kataluniako Aholku Batzordeak 203/1997 irizpenean gai hau dela-eta zioenez -hizkuntz politikako lege-egitasmoa aztertzen zuen irizpen horrek-, “kasu egin behar zaion horri hark aukeraturiko hizkuntza berean kasu egin beharrak ez du esan nahi *hizkuntza bera erabili behar denik*, bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko askatasun eta eskubide aitortuak ukatzea baitakar horrek”. (Irizpen horren itzulpena –ez da itzulpen ofiziala- Teoría y Realidad Constitucionalen argitaratu zen 1998ko 2. seiñilekoko 2. zenbakian, eta handik atera dugu).

Iritzi horri buruzko kritikarik irakurri nahi izanez gero, J.M. Puig Salellasengana jo: “La normativa lingüística y el mundo socioeconómico” *Estudios jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística* delakoan, Bartzelona, Generalitat de Catalunya. Institut D’Estudies Autònomic, 1999, 456. orr.. Haren ustez, enpresak edo dendak dauka bezeroak darabilen hizkuntzan erantzun beharra, ez jendaurrean beharrean ari diren langileek berek. Hau da, dena delako enpresak langile elebidunak izan beharko ditu jendeari kasu egiteko.

idatzi beharko da, Europar Batasuneko Kontseiluko 92/1996 irizpenarekin bat (1992ko azaroaren 10ekoa da).²⁷

3.2.3. Hizkuntz eskubideen bermea

Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak aldian-aldian ezarri behar dira beti. Hori behintzat argi dago, antza. Errealitate soziolinguistikoak hala eskatzen du eta administrazioek, ere, halaxe egokitu behar dute –hala arautu baita- bitariko ofizialtasunaren beharretara.

Honenbestez, legetan jarri beharko da –eta ezaguna dugu nola- aginte publikoen ardura dela kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak bermatzea, benebenetakoak izan daitezen. Aginte publiko horiei dagokie neurriak eta baliabideak hartzea, eskubide hori bermatzeko aldian-aldian.²⁸

Arrazoizkoa da, ordea, aldian-adikotasun hori bat eta bera ez izatea produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa horiek publikoak diren gorabeheran. Enpresa publikoei eta, pribatuak izan arren, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresei besteei baino gehiago eskatzeko politika bati ekiten bazaio arauetan, ezin ezer esan. Nolabait, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legean ere halaxe ulertu zen, 11. artikuluan ikus daitekeenez. Euskararen erabilera eta herri-administrazioei buruzko kapituluan dago, eta “garraio-zerbitzu publiko guztietarako” datoz han betebeharrak, inolako bereizketarik gabe, berdin dio zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzten, eta halako zerbitzuren baten emakida duten enpresak ere hor barruan leudeke beraz²⁹. Titulu honetako 5. paragrafoan garatuko dugu alderdi hori, esparru sozioekonomikoaz dihardugu-eta hor.

²⁷ Aseguru Pribatuak Antolatze eta Gainbegiratzeko azaroaren 8ko 30/1995 Legean ageri denez, Aseguru Hitzarmenerako Legeko 8. artikuluko aginduak ez betetzea arauhauste arinen artean dago, eta, behin baino gehiagotan gertatzen bada, arauhauste larria izango da (40. art.)

²⁸ Alde horretatik, hona hemen zer dioten Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legeko 6. artikulua, herritarrek administrazioarekin euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea daukatela-eta: “behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebatziko.”

²⁹ Estatuko gobernuak Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen aurka konstituzio-errekurtsoa jarri zuenean, ez zen ezbaian jarri artikulua hori Konstituzioaren barruan ote dagoen.

Enpresa pribatuak direla-eta, hau da, administrazioarekin inolako loturarik ez duten enpresak direla eta, gure ustez lege ezar daitezkeen hizkuntza betebeharrak zehazten saiatu gara aurreko puntuan, edo kasu batzuetan dauden zalantza arrazoizkoak azaltzen behintzat. Bestela esanda, Legearen ikuspuntutik *gehienez ere* noraino irits daitekeen aztertu nahi izan dugu. Jakina, beste aukera bat inongo betebeharririk ez agintzea da, eta aginte publikoek administrazioko sustapen-lan deritzon hori besterik ez egitea. Edonola ere, politikoki zer komeni den eta hizkuntz plangintzak zein lehentasun dituen hartu beharko da kontuan, azken batean, gai hau aztertzeko.

Eta, amaitzeko, beste kontu bat azpimarratu nahi dugu: hizkuntz eskubide horiek aldi-aldi sustatu nahi izatera, zein garrantzitsua izan daitekeen Eusko Jaurlaritzak euskarazko hiztegiak eta halako beste material berezi batzuk sustatzea, hitzarmenetan eta, orokorrean, merkataritzan eta profesioetan errazago erabiltzeko euskara. Sustapen-lan horiek partikularren arteko harreman juridiko guztietarako dira komenigarriak orokorrean (salerosketako hitzarmena, errentakoa, maileguak eta abar, edo jabe-erkidegoen berezko zereginetarako). Horregatik, eta eskuartean dugun gai hau dela-eta, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arautzeko dena delako legeak Eusko Jaurlaritzari material horiek sortzen eta zabaltzen laguntzeko eskatzea komeniko litzateke, hartara, gizarteak, esparru honetan, euskara errazago erabil dezan.

4. ETIKETEN HIZKUNTZ ARAUBIDEA

4.1. Sarrera

Makina bat aldiz agertu da gai hau bai arauetan bai jurisprudenzian, bai estatuan bai batasunean. Gai honek hainbat ikuspuntu du eta konplexua ere bada neurri batean. Alde horretatik, hizkuntz normalizazioaren ikuspuntutik edo

kontsumitzailea babestearen ikuspuntutik hel dakioko, baina osasunaren babesarekin ere badu zerikusia, eta baita –eta batasuneko printzipio bat da hau- salgaien zirkulazio librearekin ere. Azken batean, hainbat eskumenk ematen die esku hartzeko aukera aginte publikoei.

Eta, jarraian, gaur egungo arau-esparruan funtsezkoak iruditzen zaizkigun gauzak azalduko ditugu.

4.2. Europako Erkidegoko zuzenbideak dakarren erregimena

Etiketetako hizkuntz betebeharrak bai daude araututa Europako Erkidegoko zuzenbidean, eta epai bat baino gehiago ere badago.

Elikagaietako etiketen araubidea Kontseiluaren 1978ko abenduaren 18ko 79/112/EEE zuzentarauan dago. Azken kontsumitzailearentzako elikagaien etiketei, aurkezpenari eta publizitateari buruzko batasuneko estatuetako legediak hurbilarazteko da zuzentarau hori. Eta 13 bis artikuluan jartzen duenez (Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 1997ko urtarrilaren 27ko 97/4/EE zuzentarauaren bidez erantsi zioten), elikagaien etiketetako hizkuntza kontsumitzaileek erraz ulertu behar dute, eta batasuneko estatuek, nahi badute, 79/112 zuzentarauan eskatzen diren datuak gutxienez Europako Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean edo bat baino gehiagotan jarri beharra xeda dezakete, Ituneko arauak hautsi gabe beti ere.³⁰

97/4 zuzentarauak aldaketa garrantzitsu bat egin zuen, hau da, “hizkuntza ulerterraza” alde batera utzi irizpide modura³¹, eta etiketetan hizkuntza ofiziala

³⁰ 97/4/EE zuzentarauak 79/112 zuzentarauko 14. artikuluko bigarren paragrafoa indargabetu egin zuen. Honako hau zioen:

«Hala ere, 3. artikuluan eta 4. artikuluko 2. paragrafoan datozen zehaztapenak erosleek erraz ulertzeko moduko hizkuntza batean ez badakartzate, estatu kideek debekatu egin beharko dute elikagai horiek beren lurretan salerostea, non eta erosleentzako informazio hori ez den beste era batera bermatzen. Horrek ez du esan nahi zehaztapen horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jarri ezin direnik. »

³¹ “Hizkuntza ulerterraza” erabiltze hori, irizpide hori, Europako Justizia Auzitegiak ere berriki berretsia du, 2000ko irailaren 12ko epaiaren bidez (Geffroy C-366/98), baina, hori bai, auzitegia 79/112 zuzentarauaren lehengo idazketa aztertzen ari da orain. Lehen esan dugun moduan, Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 97/4/EE zuzentarauak indarririk gabe utzi zuen beste zuzentarau hori.

edo ofizialak eskatzen dituzten arauak onartzeko irizpidea hartu. Eta honenbestez, Europako Erkidegoak etiketei buruzko beste xedapen batzuetan erabakitakoa elikagaietan ere bete beharra dago³².

4.3. Estatuko zuzenbidea

4.3.1. Aplika daitezkeen arauak

Estatuko ordenamenduan, hainbat eta hainbat xedapen dago, oinarritzko arau modura emanik, etiketetako hizkuntzari buruz. Eta, horietako askotan, datu batzuk “gutxienez gazteleraz” jarri behar direla agintzen da.

Hortxe dugu, esate baterako, abenduaren 2ko 1468/1988 Errege Dekretua, zuzenean kontsumitzaileei eta erabiltzaileei saltzeko industriagaien etiketei,

Auzitegiak deklaratu duenez, ez da onargarria “estatu bateko araudian elikagaietako etiketetan halako hizkuntza jakin bat erabiltzeko agintzea, erosleek beste hizkuntzaren bat erraz uler ote dezaketen edo erosleentzako informazioa beste bide batzuk erabilita ere garbi geratzen den kontuan hartu gabe”. Doktrina hori honako ondorio hauetan labur daiteke (1991ko ekainaren 18ko epaia C-369/89, as. Piageme; 1995eko urriaren 12ko epaia, C-85/94, as. Piageme eta beste batzuk; 1998ko uztailaren 14ko epaia C-38, as. Gorres; 1999ko ekainaren 3ko epaia, C-33/97, as. Colim):

- ✓ Europako Erkidegoko zuzenbidearen aurkakoa da:
 - estatu bateko araudiak hizkuntza jakin bat bakarrik erabiltzeko agintzen badu elikagaiak etiketatzeko, erosleek erraz uler dezaketen beste hizkuntzarik erabiltzen utzi gabe edo informazio hori beste bide batzuetatik ematen utzi gabe;
 - salgaia saldu behar den eskualdeko hizkuntza nagusia erabiltzeko betebeharra (baita horrekin batera beste hizkuntzarik erabiltzen uzten badu ere).
- ✓ Ordea, etiketarako hizkuntza jakin bat erabiltzea aurrakusten badu araudiak, baina erosleek erraz ulertzeko moduko beste hizkuntza bat erabiltzen ere uzten badu, araudi hori bat dator Europako Erkidegoarekin

Gai hau dela-eta, Batzordeak badu komunikazio zalantz argitzaile bat bereziki interesgarria. 1993ko azaroaren 10ekoa da, elikagaiak salerosteko hizkuntzei buruzkoa, eta 1991ko ekainaren 18ko C-369/89 epaiaren ondorioz eman zuen. Eta, data horretakoa bertakoa, Batzordeak badu beste komunikazio bat Kontseiluari eta Europako Legebiltzarrari egina, lehengoa bezain interesgarria, Europako Erkidegoko eskubideei dagozkien hizkuntz betebeharrei buruzkoa.

³² Batasuneko estatuek, nahi badute, etiketetan salgaia kontsumituko den herrialdeko hizkuntza nazionala agertzeko agin dezakete, Europako Erkidegoko legegileak ate hori zabalik uzten du (Kontseiluaren maiatzaren 3ko 88/378/EEE zuzentaraua, jostailuen segurtasunari buruzkoa; edo urriaren 16ko 71/307/EEE zuzentaraua, oihalei buruzkoa). Beste batzuetan, merkaturatuko den estatuko hizkuntza eskatzen dute (Kontseiluaren martxoaren 31ko 92/27/EEE zuzentaraua, pertsonentzako sendagaien etiketei eta jarraibideei buruzkoa; edo ekainaren 11ko 92/41 zuzentaraua, tabako-eratorrinen etiketei buruzkoa).

Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren 1994ko abuztuaren 9ko epaiak zioenez (C-51/1993, Meyhui auzia), Kontseiluaren 69/493/EEE zuzentzarauak ez zuen salgaien joan-etorri askea –printzipio bat den hori- urratzen. Estatu kideek beirari buruz zituzten legediak hurbiltzeari buruzkoa zen zuzentarau hori, eta produktu batzuen izenak produktu horiek merkaturatzen diren herrialdeko hizkuntzan edo hizkuntzetan bakarrik jartzeko agintzen zuen, erosleentzako beste hizkuntza ulerterrazik erabiltzeko aukerarik gabe, edo informazio hori beste era batera emateko aukerarik gabe. Europako Erkidegoko legegileak kontsumitzailea babesteko hartu omen zuen neurri hori, neurriz hartu ere.

aurkezpenari eta publizitateari buruzko erregelamendua onartu zuena. Eta begira zer agintzen duen, oinarrizko arau modura, 8. artikuluan³³:

8.8.1. artikulua.- Aipaturiko inskripzio horiek guztiek gazteleraz agertu beharko dute gutxienez, Estatuko hizkuntza espainiar ofiziala baita.

Eta irizpide berbera dugu estatuko beste xedapen batzuetan ere³⁴, besteak beste, uztailaren 31ko 1334/1999 Errege Dekretuan. Elikagaien etiketatzea, aurkezpena eta publizitaterako arau orokorra onartu zen dekretu horren bidez, eta honako hau dio 18. artikuluan:

18. artikulua. Etiketatuko hizkuntza.

Espainian merkaturatzen diren elikagaietako etiketatuko derrigorrezko argibideak Estatuko hizkuntza espainiar ofizialean jarri beharko dira gutxienez.

Beste hizkuntza ofizial berezko bat duen autonomia erkidego batean eta han bakarrik egin eta banatzen diren betiko produktuetan ez da aurreko paragrafoan xedaturikoa bete behar.

Errege dekretu horretako xedapen gehigarri bakarrak dioenez, Konstituzioaren 149.1.13. eta 16. artikuluetan dago araudi hori sortzeko eskumena, eta honako beste hau ere gehitzen du: “18. artikuluko lehen paragrafoan agintzen den betebehar hori osagaien zerrendarako, kontserbatzeko argibideetarako eta nola erabili azaltzeko argibideetarako bakarrik da oinarrizkoa.”³⁵

³³ Oinarrizko deklaraturik dago, irailaren 29ko 1182/1989 Errege Dekretuaren bidez.

³⁴ Jar ditzagun adibide batzuk:

- ✓ 25/1990 Legea, abenduaren 20koa, sendagaiei buruzkoa (15, 19 eta 85. artikulua)
- ✓ 880/1990 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, jostailuen segurtasun-neurriak onartzen dituena (11. artikulua)
- ✓ 2236/1993 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, gizakientzako sendagaien etiketak eta argibideak arautzen dituena (2. artikulua).
- ✓ 1489/1998 Errege Dekretua, animaliak elikatzeko lehengaien zirkulazioari buruzkoa (4.2. artikulua)
- ✓ 770/1999 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, garbikariak eta garbitzaileak egiteko, batetik bestera eramateko eta salerosteko arau teknikoak eta osasunekoak onartzen dituena (11. artikulua).

³⁵ Azaldutako arautegiak ia hitzez hitz jasotzen du indargabetutako martxoaren 6ko 212/1992 Errege Dekretuan zetorrena.

Errege Dekretu horren jatorrizko idazkeran esaten zen nahitaez agertu behar zirela, gutxienez Estatuko espainiar hizkuntza ofizialean, Espainian merkaturatutako produktuen etiketetan jarri beharreko azalpenak (20. art.).

Geroago eman zitzaion, ordea, egun indarrean dagoen Errege Dekretuak daukan idazkera, uztailaren 24ko 1268/1997 Errege Dekretuari esker. Aldaketa hori nahitaezko azalpenak zehazteko eta tokian tokiko ohiko produktuekin salbuespenak egiteko izan zen, Diputatuen Kongresuko 1997ko otsailaren 18ko Akordioaren emaitza, hain zuzen Parlamentuko talde katalanak sustatutako legez besteko proposamenaren ondorioz.

Elikagaietako etiketak direla-eta, hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak ere baietz esan du, estatuak baduela hizkuntza betebeharrak ezartzeko eskumena, 149.1.16 artikuluan oinarriturik, aurrerago ikusiko dugun moduan. Artikulu hori oinarritzko osasun-baldintzei buruzkoa da.

4.3.2. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia

Konstituzio Auzitegiak³⁶ gai honen inguruan zabalduko azkenengo doktrina, hau da, *jakien etiketetan derrigorrez agertu beharreko datuen* hizkuntz erregimenari dagokion doktrina, irailaren 19ko 147/1996 epaian jasotakoa da. Epai hori Kataluniako Generalitateak eragindako eskumenen inguruko gatazka positibo baten ondorioz eman zen; arazoaren iturria irailaren 23ko 1122/1988 Errege-Dekretua izan zen, hain zuzen ere ontziratutako jakien etiketak, erakusteko modua eta horiei buruzko iragarkien araudi orokorra onartzen zituen dekretua.

Sortutako eztabaida horretan, auzitegiaren ustez estatuaren eginkizuna da jakien etiketetan derrigorrez agertu behar diren datuak zein diren zehaztea, osasun arloaren oinarriak jarri eta koordinatzeko duen eskumenean oinarrituta

³⁶ Gai horri berari buruz, lehenago apirilaren 19ko 69/1988 epaia eman zuten, eta epai horren arabera onartzen zen Kataluniako Generalitateak bazuela eskumena jakien etiketetan zein hizkuntza erabili behar zen arautzeko, Generalitateak bazuelako kontsumitzaileei informazioa ematearen gaineko eskumena. Epaitegiak esan zuen estatuko araua oinarritzkoa ez zela esateko arrazoia formazko arrazoia zela.

Epai hori estatuko gobernuak ustez eskumenen gatazka bat zegoela adierazi zuelako eman zen, hain zuzen ere Kataluniako Generalitatearen irailaren 15eko 389/1983 dekretuaren kontra. Dekretu horren arabera, Katalunian banatuko ziren produktuen etiketetan idatzi beharreko derrigorrezko eta aukerako datuak katalanez edo gaztelaniaz nahiz bi hizkuntzetan agertu beharko ziren. Estatuaren ustez, dekretu horrek ez zuen betetzen abuztuaren 12ko 2058/1982 errege-dekretuaren 20. artikuluan zehaztutako exigentzia (eta, gainera, estatuarentzat oinarritzko arau bat zen); zera zioen artikulua: "Espainian merkaturatzen diren jakien etiketetako derrigorrezko datuak nahitaez Estatuaren hizkuntza ofizialean agertu beharko dira". Konstituzio Auzitegiak epaian onartu zuen autonomia erkidegoak bazuela eskumena, baina ez hizkuntz normalkuntzako eskumenen tituluaren arabera, baizik eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko eskumenaren tituluaren arabera. Auzitegiaren ustez, kontsumitzaileak defendatzeko eskumenak "ez zuen bazterrean uzten Konstituzioaren 149.1.16 artikulua estatuari ematen diona, alegia, estatuak eskumena izango duela orokorrean ezartzekoak diren oinarritzko arauak ematekoa, edozein produktu motaren -eta bereziki jakien- kontsumitzaile guztien osasuna babesterakoan berdintasunez jarduteko helburua duenez; horrek autonomiek duten eskumen hura mugatzen du, eta, ondorioz, lotesleak eta horretaz xedatzeko aukerarik ematen ez dutenak dira eskumenaren titular direnentzat. Tituluaren arteko konkurrentzia hori zegoela onartuta ere, hala ere ez zuen onetsi estatuko errege-dekretu hori oinarritzkotzat har zitekeenik. (honela zioen: "artikulu hori ez da berariaz oinarritzkotzat hartzen errege-dekretuan bertan, eta artikulua berak duen egituratik ere ezin da ondorio horretara iritsi, arau orokor horretan zehatz-mehatz jasotzen direlako araututa kontu horiek, eta era askotakoak direlako; eta ondorioz ezinezkoa da ziurtasun osoz bereiztea zeintzuk izan daitezkeen oinarritzkoak -horien artean dagoela eztabaida honetan aipatzen ari garena-, eta, bestetik, erregelamendu bidezko antolamendu hori ez dago inolako oinarrien legeri lotuta...").

Antzeko argudioak ageri dira maiatzaren 23ko 80/1988 epaian, hain zuzen ere estatuko gobernuak Galiziako Xuntaren maiatzaren 23ko 101/1985 dekretuaren aurka sustatutako eskumen-gatazkaz ebazteko. Dekretu hori Galizian merkaturatutako produktuen etiketa eta iragarkietan galiziera erabiltzeari buruzkoa zen.

(Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua). Auzitegiak diotenaren arabera, informazio horrek gizakiaren osasunean duen garrantzia hain handia denez, saihestu ezina da gai hori zeri lotu erabakitzean Konstituzioko 149.1.16 artikuluekin lotzea lehenik, zeren, kontsumitzaileak defendatzearekin zerikusia duen arloaz lotzea badagoen arren, osasun arloa espezifiko delako kontuan izanda eta kontsumitzaileak defendatzearen arloa ez, orduan, lehena nagusitu behar da.

Horren ondoren, auzitegiak dio ondorio hori ezin dela indarririk gabe utzi estatuko arau horrek hizkuntza arloari heltzen dion ikuspegi bat ere baduela esanda. Generalitateak ³⁷ argudio gisa zioen estatuko legeak ez zituela kontuan hartu hizkuntzen ofizialkidetasunak zekartzan ondorioak, eta horren aurrean, hauxe esan zuen Konstituzio Auzitegiak:

“Konpetentziei buruzko arau baten aurrean (espresio hori zehatz-mehatz hartuta) gauden edo ez alde batera utzita, ezin dugu indiferentziaz jardun estatuak bereak diren eskumenak aurrera eramaterakoan hizkuntza kontuekin zer egiten duen ikusteko orduan. Dena den, garbi dago aurkatu den agindu horrek ez diola inolako oztoporik jartzen Kataluniako Autonomia Estatutuko 3.3. artikuluan esaten denari. Estatuko aginduak esaten duenez, etiketetan derrigorrez jaso beharko diren datuek "derrigorrez gaztelaniaz behintzat egon beharko dute", eta hortik aurrera, Generalitateak ahalmen osoa izango du katalanez ere gauza bera egin beharko dela esateko, Kataluniako Autonomia Estatutuko 3. artikulutik ondorio horretara iristen baldin bada. Baina horrek ez du esan nahi aurkatu den arau estatal hori bidegabekoa denik, kontuan izanda gutxienezko edukiei buruzko arau bat dela. (6. oinarri juridikoa)

Esandakoagatik, berriaz adieraziko du Konstituzio Auzitegiak autonomia erkidegoak berezko hizkuntza ofiziala erabil dadila eskatzeko aukera izango duela, baina aldi berean, estatuak ere eskumena izango du etiketetan nahitaez

³⁷ Esanda gera bedi Generalitatearen ordezkariak erabiltzeko argudioen artean beste hau ere bazegoela, alegia aurkatutako agindua ez zetorrela ados Europako 79/112/CEE zuzentarauarekin; gogoratuko duenez, zuzentarau horretan erabiltzen zen irizpideetako bat "hizkuntza ulertzeko modukoa izatea" zen, lehen ere adierazi dugunez (31. oharra ikusi). Auzitegiak ez zuen argudio hori onartu, bere ustez ez zegoen barne-zuzenbideko arau baten eta Europako Batasuneko arau-sistemaren arteko ustezko bateraezintasunaz epaitzea, eta ez zen hori, gainera, eskumen-gatazkaren esanahia.

gaztelania erabil dadila eskatzeko, osasunaren arloko oinarriak arautzeko eskumena duenez.³⁸

4.4. EAEk zer nolako arauak aurrera ateratzeko aukera duen

Orain arte arlo honetan kaleratutako xedapen bakarra Bezzeroaren Araudiko 17. artikulua da -lehen ere hitz egin dugu horri buruz³⁹-, baina hor ez da jasotzen norbanakoen jardueran zuzenean ezartzeko moduko inolako agindurik, aginte publikoei zuzendutako agindu bat baizik. Berezko hizkuntza duten beste autonomia erkidego batzuetan onartu dute etiketen hizkuntz erregimena arautzen duen legeren bat.⁴⁰

³⁸ Konstituzio Auzitegiaren jarrera hori ez zuten bertako kide guztiek onartu. Viver Pi-Sunyer eta González Campos magistratuek boto partikular bana idatzi zuten, eta horietan esaten zutenenez, ez zeuden ados osasunaren oinarriak jartzeko estatuak duen eskumenari emandako hedaduraz. Lehenengo magistratuak esaten duenez, etiketan ageri diren datu guztiak ez dira osasunaren oinarritzat hartzeko modukoak, eta beste horrenbeste gertatzen da datu horiei buruzko gainerako zehaztapenekin ere; halakotzat hartzeko, datu edo betekizun formal horiek ezinbestekoak izan beharko dute pertsonen osasuna bermatzeko, eta zehazkiago hitz eginda, Konstituzio Auzitegiaren 69/1988 eta 80/1988 epaietan esaten den bezala: "Osasuna izateko eskubidearen babesean kontsumitzaile eta erabiltzaile guztien berdintasuna bermatzen dutenak", hain zuzen.

Horrekin batera dio eskumen hori gauzatzera estatua jarritako muga hori baino aurrerago baldin badao, autonomien eskumen esparruan sar daitekeela edo eskumen horiek murriztu ditzakeela; eskumenok aipatzen ditu: kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskumena, osasunaren arloan legeak garatzeko eskumena, eta, etiketatako datuak zein hizkuntzatan adierazi behar diren baldin bada arautzen dena, baita beste eskumen batzuk ere, hain zuzen ere "Konstituzio Auzitegiak autonomia erkidegoko berezko hizkuntzaren ofizialkidetasunaren nondik norakoa mugatzeko eskumena ere, eta baita berezko hizkuntza ofizialak sustatzeko gaitasuna ere (...)"

³⁹ 17. artikulua hori 19. oharrean jaso da.

⁴⁰ Kataluniako Autonomia erkidegoko Hizkuntza Politikako Legeak hauxe dio:

"34. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileei eman beharreko informazioa.

1. Katalunian banatuko diren produktueta, etiketa eta bilgarrietan ageri diren datuak eta dena delako produktua nola erabili jakiteko ematen diren argibideetan, katalanez, gaztelaniaz edo Europako Batasuneko beste edozein hizkuntzatan eman ahal izango dira argibideok.

2. Kataluniakoak diren produktueta etiketetan derrigorrez eman beharreko datuak edo borondatez erantsitako gainontzeko informazioa katalanez ere agertu beharko da gutxienez; produktuoz ari gara: jatorrizko izendapena, eskualdearen izendapena, kalitatezko izendapena eta artisautzako produktuaren izendapena dutenak.

3. Generalitateko gobernuak erregelamendu bidez arautu beharko du zenbait sektoretako kontsumitzaile eta erabiltzaileei emandako informazioa, eta baita Katalunian banatzen diren industriako eta merkataritzako produktuak nola erabili jakiteko ematen den informazioa eta etiketetan agertzen dena. Bereziki, ontziratutako jakien, produktu arriskutsuen eta produktu toxikoen etiketetan jarri beharrekoa arautuko du, eta baita tabakoaren etiketetan jarri beharrekoa ere, eta hori lege honetan, Europako Batasuneko legeetan eta antolamendu juridikoko gainontzeko legeetan esaten dena kontuan izanda.

Ikusten denez, artikulua honetako lehenengo paragrafoan esaten dena, orokorra denez, estatuko oinarritzko legeekin kontraesan egon daiteke, baina, era berean, egia da 3. paragrafoan garbi geratzen dela gai hau erregelamendu bidez garatzeko orduan ondorengo zehazten dela: "lege honetan, Europako Batasuneko legeetan eta antolamendu juridikoko gainontzeko legeetan esaten dena kontuan izanda" beharko duela.

Era berean, martxoaren 10eko 1/1998 Legeak (lege horrek Balear Irlotako Autonomia erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua onartu zuen) salbuespen interesgarri bat egingo du. Nahiz eta onartu osasun eta segurtasuna zaintzeko garrantzia duten datuen kasuan gaztelaniaz ere eman beharko direla argibideok, bidezkoa izango da gaztelaniaz ez agertzea berezko hizkuntzan emandako azalpena ulertzeko modukoa denean. Irizpide hori ezaguna zaigu Europako Batasunaren eremuan, baina kasu honetan ondorioa beste bat da: Estatuak duen eskumenak leku egingo dio hizkuntzaren normalizazioaren alde egin nahi izateari, horrek ez baldin badio kalterik egiten osasunaren babesari, informazioa ulertzeko modukoa delako. Hauxe dio legeak, hitzez hitz:

Euskal autonomia erkidegoak bere lurralde-eremuan banatutako produktuen etiketetan hizkuntza erabiltzeko modua arautzeko aukera du, hizkuntz normalkuntzako eskumenak dituelako, barne-merkataritzako eskumenak dituelako eta baita jatorrizko izendapenen inguruko eskumenak, iragarkien gaineko eskumenak (Euskal Herrirako Autonomia Estatutoko 10.27 artikulua) eta baita kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eskumenak ere (Euskal Herrirako Autonomia Estatutoko 10.28 artikulua).

Legediak izan beharko duen edukiari begira, etiketak elebitan jartzeko beharrak Estatuak indarrean duen oinarrizko legediarekin lotuta doa baita Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziarekin ere, gorago adierazitakoaren ildotik.

Beste formularen bat erabiltzeko aukerari dagokionez ("gutxienez euskaraz", "euskaraz edo gaztelaniaz"...), estatuak emandako oinarrizko legeria bete beharko da kasu guztietan, kontuan izan behar baita estatuak eskumena duela osasunaren oinarriak arautzeko (Espainiako Konstituzioaren 149.1.16. artikulua), eta zehazki osasuna babestearekin zerikusia duten datuak ulertzeko moduan daudela bermatu beharko da.

Hori horrela izanik, eta jakiei dagokienez, badakigu Konstituzio Auzitegiak estatuaren eskumenen baitan utzi duela derrigorrezko datuen hizkuntz erregimena. Aldi berean, estatuko legeek osagaien zerrendari buruzko indikazioetan, gordetzeko argibideetan eta zuzen erabiltzeko azalpenetan baino

14. artikulua. Informazioan erabiliko den hizkuntza.

1. Kontsumitzaileari emango zaion informazioa, hain zuzen ere aurreko artikuluan aipatzen den informazioa, autonomia erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetakoren batean behintzat agertu beharko da.

2. Dena delako produktuaren etiketan agertuko diren datuek pertsonen osasunean edo segurtasunean eragina izan badezakete, emango den informazio hori estatuko hizkuntza ofizialean agertu beharko da, gutxienez.

3. Aurreko paragrafoan esandakoa ez da bete beharko autonomia erkidegoko berezko hizkuntzan emandako azalpena erraz ulertzeko modukoa denean.

Bukatzeko, eta erregelamendua dela jakinda eta Konstituzio-Auzitegiaren 147/1996 epaia baino lehenagokoa gainera, hala ere, aipatzeko modukoa da ekainaren 16ko 185/ 1994 dekretua, Galizian kontsumitzaile eta erabiltzaileei produktuei buruz eman beharreko informazioan galiziera erabiltzeari buruzko dekretua. Dekretu horretan esaten denez, etiketetan jarriko diren datuak "galizieraz, espainieraz edo hizkuntza horietan bietan idazteko aukera egongo da" (1. artikulua), eta horrekin batera esaten du dena delako produktuaren etiketan edo errotulazioan bi hizkuntzetako testuak erabiltzen baldin badira, neurri eta ezaugarri bereko hizkiak erabili beharko direla. (2. artikulua.)

ez diote oinarrizko arau izaera ematen gaztelaniaz jartzeari. Bestetik, ez dago zertan ondorengo exijentzia, alegia "gutxienez estatuko hizkuntza ofizialean, hau da, gaztelaniaz", aplikatu autonomia erkidegoaren eremuaren baitan baino egiten eta banatzen ez diren produktu tradizionalen kasuan.

Deskribatu dugun eremu horren baitan, eta azaldutako muga guztien barruan jardunda, euskal legegileak hizkuntzen inguruko betebeharrak jarri ahal izango dizkie produktugileei. Horren inguruan, komenigarria izango litzateke zer nolako aukerak dauden aztertzea (zenbaterainoko exijentzia, zer nolako epeak, e.a.), produktuak egin eta banatzerakoan egon daitezkeen eragile guztiak kontuan izanda.

5. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

5.1. Aldez aurretikoak

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legeak dionez, herritar guztiak hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea dute (5.1 artikulua). Horren ostean, beste hizkuntz eskubide batzuekin batera, lege horrek berak jarduera profesionalak, lan-arlokoak, politikakoak zein sindikalgintzakoak euskaraz aurrera eramateko eskubidea onartzen du. (5.2 artikulua). Era berean, eremu sozioekonomikoaren ingurukoak dira lege horretako 26 eta 27. artikulua.

"Eremu sozioekonomikoa" diogunean, oso orokorrean hitz egiten ari garenez, gure ustez arlo horretako hizkuntz normalkuntzaren azterketa juridikoaren ikuspegitik interesgarrienak diren gaiak mugatu beharra ikusten dugu.

Lan horri heltzeko, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hartu dugu bide-erakusle, izan ere, bertan jasotzen diren proposamenek indarrean dagoen legerik aldatzea eskatzen ez badute ere, sektore edo gunerik aipagarrienak zehaztuta ageri dira. Lan-munduari dagokionez, planaren helburua enpresetan euskara gehiago erabiltzea da. Horretarako, orokorrean bada ere, esaten da

"merkataritzako ganbaren, enpresarien eta enpresarien elkargoen, sindikatuen eta abarren parte hartzea lortu beharko dela; jarduera-eremua zehaztu beharko da, lantokietan euskararen aldeko proiektuak abian jartzeko, eta beharrezko giza baliabide eta baliabide materialak ere bideratu beharko dira.

Gogora dezagun, bukatzeko, eta hala adierazi dugu eremu sozioekonomikoaren eta kontsumitzaileen eskubideen titulu honen sarreran, bi arlo horiek aztertuta garbi ikusten dela bat etortze edo elkargune nabarmenak daudela bi eremu horien artean, batez ere ondorengo onartzen badugu: eremu sozioekonomikoaren barruan, euskararen erabilerraren normaltasuna lortzeari dagokionez lehentasuna kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideekin zerikusia duten arloek izan behar dutela.

5.2. Euskara enpresetan normaltzearekin zerikusia duen araudia

5.2.1. Gaur egungo araudia

Hasteko, apirilaren 15eko 86/1997 dekretua aipatu behar dugu; dekretu horretan Euskal Autonomia erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen da, eta bertan esaten denez, EAEko administrazio publikoen baitako baltzu publikoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, zerbitzu publikoak eskaintzen baldin badituzte, euskara eta gaztelania erabili ahal izatea bermatu beharko dute erabiltzailearekiko zuzeneko harremanetan.⁴¹ Dekretu horretan bertan, euskararen erabilera normaltzeko planetan zer neurri jaso beharko den arautzeko orduan, ondorengoak zehazten dira kontratazioari dagokionez: "kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena

⁴¹ Apirilaren 5eko 86/1997 dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak hauxe dio, hitzez hitz (EHAAn argitaratu zen, apirilaren 17an; 72. zenbakia):

"1.- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.- Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilia, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote horren berri, Dekretu honen 7. atalean ezarritakoari jarraituz.

duzen zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean bereziki, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermatzea lortu beharko litzateke” (18. d artikulua).

Enpresa pribatuei dagokienez, hizkuntz normalkuntzaren esparruan indarrean dauden xedapenak sustapenari lotutakoak dira, eta horren erakusle, 2000ko urriaren 18ko Agindua, Kultura Sailburuarena, hain zuzen ere arlo pribatuko erakundeetan euskara-planak aurrera eramateko diru-laguntzak arautzen dituena (2001. urteko ekitaldian aplikatzeko, 2001eko otsailaren 20ko Aginduaren bidez egokitu dena. Otsailaren 23ko EHAA).

Agindu horrek, zioen adierazpenean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarekin dituen loturak azaltzen ditu, eta 200 milioi pezetako laguntzak jartzen ditu plan horiek aurrera eraman ahal izateko.⁴²

5.2.2. Zer nolako arauak argitara daitezkeen

Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren, foru-erakundeen edo toki-erakundeen baitako enpresa eta elkarteek edo erakunde horiek sortutakoek eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten dena delako enpresek (kontsumitzaileak era askotakoak izan daitezke), hizkuntzaren arloko betebeharez ari garela, administrazio publikoek besteko betebeharrak izan beharko lituzkete administratuekiko. Horrela jardunda, jabetza publikoko zerbitzuetan -kudeatzeko modua dena delakoa izanik ere, zuzenekoa edo zeharkakoa- hizkuntz eskubide batzuk behintzat gordetzen direla bermatuko litzateke. Ondorioz, kontsumitzaileekin erabiltzen den hizkuntza bi hizkuntza

⁴² Jarduera hauengatik eskuratu ahal izango dira laguntzak: testuak euskaraz jartzeagatik, planaren helburuekin zuzeneko zerikusia duten langileak euskaraz trebatzeagatik, informatikako tresneria erosi eta egokitzeagatik eta planak egin eta ebaluatzeko gainontzeko lanak burutzeagatik.

Aginduan eredu gisa har daitezkeen aukera batzuk daude jasota, plan bakoitzaren helburuak zehazten laguntzeko. Hiru eredu zehaztu dira: lehenengoan, euskalduntzeko helburuen artean kanpo-harremanekin zerikusia dutenak jaso dira (kanpoko errotulazioa, iragarkiak, administrazioarekiko harremanetarako agiri laburrak, e.a.). bigarren ereduari, kanpo-harremanetan helburu zabalagoak jarri dira (esate baterako, banku eta hornitzaileekin dituzten harremanetan ahoz nahiz idatzizko testu laburretan jarduteko modua), eta horrekin batera, barne-harremanekin zerikusia duten helburu batzuk zehaztu dira (barruko errotulazioa eta langileei bidalitako idatzizko informazioa...). Hirugarrenean, helburuen arteko gorengo maila zehaztu da, bai kanpo-harremanei zein barruko harremanei begira (produktuen etiketak, bileretako aktak idaztea...)

ofizialetako edozein izango litzateke, eta enpresa horiek euskara zein gaztelania erabili beharko lukete beren komunikazioetan, karteletan, seinale-ikurretan, errotulazioetan, gainerako iragarki edo antzekoetan eta jakinarazpenetan (faktura edo trafikoko beste agiri batzuetan ere bai), EA Eren eremuan dihardutenean, non eta alde z aurretik kontsumitzaileak bi hizkuntzetako bat ez duen aukeratu.

Bistan denez, enpresa publikoek eta zerbitzu publikoak eskaintzeko emakida lortu duten beste enpresa batzuek beren jarduerak EA Eko bi hizkuntza ofizialetakoren batean aurrera eraman nahi baldin badituzte -herritar eta kontsumitzaileei kasu egiteko harremanak behintzat-, hizkuntza normaltzeko plan bat jarri beharko dute abian, horren ondoren sorburu duten administrazioan erabiltzen den erregimen juridiko bera erabili ahal izateko enpresa horietan.

Gogoan eduki behar dugu, gai honi lotuta, zer zioen Eusko Legebiltzarrak 1996ko azaroaren 15ean onartutako ebazpen batean: "administrazio publikoei eskatzen diegu erabilera bultzatzeko planetan normalizazioaren aldeko ekintzak ere zehaztu ditzatela; horrela, erabiltzailearekiko zuzeneko harremana eskatzen duten zerbitzu publikoak eskaintzerakoan, eta zerbitzu horiek administrazioak berak zuzenean ematen ez baditu, kasuan kasuko administrazioari eskatuko litzaizkiokeen hizkuntz baldintza berak bete daitezela lortu behar da."

Jakina, arauen mailaren araberrako gatazkarik ez sortzeko, 86/1997 dekretuaren laugarren xedapen gehigarria (baltzu publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei buruzkoa) eta 18.d artikulua (norbanakoek zerbitzu publikoak eskaintzeari buruzkoa) lege mailakoak izan beharko lirateke, eta horretarako, Legebiltzarrak onartu, maila horrekin.

Betebehar horiek guztiak lege z jasota egoteak, horrek dakarren segurtasun juridikoagatik, garrantzi berezia dauka, zentzuzkoa baita betebehar hori

autonomia erkidegoko enpresa publiko guztientzat sortzea, euskal administrazio publikoen baitakoa izan edo estatuko administrazioaren baitakoa izan.⁴³

Laguntzaren bat -edo administrazioarekin izenpetutako hitzarmenen baten bidez diru-bideren bat- eskuratzen duten enpresa pribatuei, herritar edo kontsumitzaileei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan guztien hizkuntz eskubideak bermatzeko eskatu ahal izango zaie baldintza moduan, eta baita hizkuntza erabiltzen den gune guztietan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea (errotulazioan, oharretan, komunikazioetan, iragarkietan...).

Administrazio korporatiboa osatzen duten erakundeei dagokienez, esate baterako merkataritza, nabigazio, hiri-jabego eta nekazaritzako elkargo profesional eta ganbarak, nahiz arrantzaleen kofradiak⁴⁴, juridikoki ez dago oztoporik horiei ere herritarren hizkuntz eskubideen inguruan gainontzeko administrazio publikoei eskatzen zaizkien betebeharrak eskatzeko.

Enpresa pribatuei dagokienez, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideei buruz esandakoa hartu behar da kontuan, logikoa baita uste izatea eremu horretan -enpresa pribatuenean- betebeharrak jartzea eskubideak bermatzearekin lotuta joango dela.

5.3. Enpresa, lan-harremanetarako gune den aldetik

Bukatzeko, labur bada ere, enpresaz hitz egin behar dugu, bai lantoki eta lan-harremanetarako gune den aldetik. Egia da Euskeraren Erabilpena

⁴³ Gogoan izan behar dugu zer dioen Konstituzio Auzitegiak gai honen inguruan (82/1986 epaia): autonomia erkidegoari dagokio "ofizialkidetasunaren nondik norakoa zehaztea, Konstituziotik eta autonomia estatututik zuzeneak sortutako eskubidea den aldetik, eta Konstituzioan bertan jasota dagoen kontzeptua den aldetik; dena den, estatuko administrazioaren eginkizuna izango da legezko araudi hura bere baitako organoetan nola garatu zehaztea". Horrekin batera, epaiak dio " autonomia erkidegoan dauden aginte publiko guztiek (estatukoek, autonomia erkidegokoek eta toki-mailakoek) Konstituzioan aurreikusitako eta estatutuan finkatutako elebitasuneko egoerara egokitu beharko dutela.

⁴⁴ Gai honi lotuta, ekainaren 25eko 16/1998 Legea ekarri behar dugu gogora, Arrantzaleen Kofradiei buruzko legea, hauxe baitio hirugarren xedapen gehigarrian: "Arrantzaleen kofradiek eta horien federazioek beharrezko urratsak emango dituzte beren jardueretan euskara era normaldu batean erabili dadin, horren bidez azaroaren 24ko 10/1982 legean, euskararen erabilera arauzkotzeko oinarritzko legean, aipatzen diren betebeharrak betetzeko.

Arauzkotzeko Legearen 5.2. artikuluan lan-jarduerak euskaraz aurrera eramateko eskubidea arautzen dela, baina inongo artikulutan ez dago zehaztuta eskubide horren nondik norakoa edo horretarako zein neurri hartu beharko diren; 26 eta 27. artikuluetan, salbuespen gisa, neurri orokor batzuk baino ez dira aipatzen.

Eremu horretan, aginte publikoek nola edo hala eragiteko izan dezaketen aukera alde batera utzi gabe, garbi dago negoziazio kolektiboak eginkizun nabarmena izan dezakeela enpresa eta langileen arteko harremanetan hizkuntzaren inguruko eskubide eta betebeharrak sortzeko, beti ere kasuan kasuko egoera soziolinguistikoaren arabera.

Lan-munduko ordenamenduan negoziazio kolektiboaren bidez arauak sor daitezke, eta berezitasun horri esker, une honetan bide egokia izan daiteke hori, lan-harremanetako hizkuntz erregimenari buruzko kontu batzuk zehazteko. Ondorioz, administrazioaren lana sustapen-lana izango litzateke batez ere, hau da, esate baterako lan-hitzarmenetan hizkuntzaren inguruko kontuak zehaztu daitezela sustatzea, langileek euskara jakitea bultzatzea dadin lortzeko edo lantegian euskara erabil dadila lortzeko.

Dena den, ez dago inolako oztoporik Eusko Legebiltzarrak gai horren inguruko legeren bat argitaratzeko, eta gutxika-gutxika aritzea eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartzea eskatzen duten printzipioen barruan, lan-munduko hizkuntz betebeharrak zehazteko. Estatuak lan arloko legerian eskumen osoa izateak ez du esan nahi Eusko Legebiltzarrak ezin duenik arautu, lege bidez, euskara ofiziala izateak lan-eremuan dituen ondorioak, autonomia erkidegoak baitu euskararen araubide juridikoa arautzeko eskumena. Hori horrela izanik, posible izango litzateke, esate baterako, enpresariak langileei ematen dien informazioa elebitan idatzita egoteko

eskatzea⁴⁵, beti ere, eskakizun hori enpresaren neurriari eta beste aldagai batzuei egokituta, egoera soziolinguistikoak dakartzanei, besteak beste.

VI. TITULUA

PIZGARRI FISKALAK

1. HIZKUNTZAREN NORMALKUNTZA SUSTATZEKO NEURRIAK

Txosten hau idaztea eragin duen Eusko Legebiltzarraren ebazpenak hauxe dio: "Eusko Legebiltzarrari beharrezkoa iruditzen zaio euskararen erabilera normaltzearen inguruko legeria garatzea, helburu hori duten ekimenetan aurrera egiteko (...) eta hori pizgarri fiskalen bidez."

Testu horretan esaten denaren arabera, euskararen erabilera normaltzea sustatzeko zein arau zehaztu daitekeen ikustea da kontua, beti ere aginte publikoek pizgarri fiskalak onartzearen bidez. Pizgarri fiskalak neurri ekonomikoak izaten dira, aginte publikoen esku dauden neurri ekonomikoetako batzuk, gizarteko eragileak modu batera edo bestera interes orokorraren alde lanean jarri ahal izateko.

Pizgarri fiskalak aginte publikoek dena delakoa sustatzeko duten tresnetako bat dira, era bateko edo besteko laguntzak edo diru-laguntzak diren bezalatsu; azken horiek, gainera, berariaz aipatzen dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian, bertan aurreikusten denez, administrazioaren eremuan "hizkuntz irizpideak ere erabili ahal izango baitira zerbitzuak kontratatze orduan, instalazioak erabiltzeko lizentziak emateko orduan edo diru-laguntzen deialdiak egiteko orduan". Horren inguruan, azaroaren 11ko legegintzako dekretuak, hau da, Euskadiko Ogasun Orokorra Arautzen duten Printzipioen Legearen testu

⁴⁵ Kataluniako hizkuntz politikako legeak hauxe dio 36.4. artikuluan: "Lantegi barruko errotuluak eta informazioa, testu bidezkoa eta finkoa eta lantegiko langilei zuzendutakoak baldin badira, gutxienez katalanez jarri beharko dira".

bateginak, hauxe dio 51. artikuluan, diru-laguntzak ematea dela eta administrazio autonomikoari dagokionez: "Laguntza edo diru-laguntza jasoko duen dena delakoaren ezaugarriengatik hizkuntzaren erabilerak garrantzia duenean, eta bereziki azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 25, 26 eta 27. artikuluetan aipatzen diren jarduera-eremuetarako direnean, hizkuntz irizpidea ere kontuan izan beharko da esleitzeko irizpide objektiboen artean." Ez da gauza bera gertatzen foru-administrazioetan eta toki-administrazioetan, eta, beraz, etorkizunean legezko esparru bera zehaztu ahal izango litzateke Legebiltzarraren aldetik. Batzar Nagusietan arazo handiagoak sortuko lirateke, baina litekeena da foru-erakundetan ere gauza bera egitea.

Zehazki pizgarri fiskalen kontuari helduta, aldez aurretik esan beharrekoa da Europako Batasuneko arauetan debekatuta daudela, orokorrean, era guztietako laguntza publikoak -nolakoak diren alde batera utzita-, laguntza horiek estatukideen arteko elkartrukeri eragiten badiete eta lehia galarazten baldin badute. Hori hala izanik ere, Europako Batasuneko Ituneko 87.3. artikuluan, d) hizkian, salbuespen bat aipatzen da printzipio horrekiko, eta salbuespen hori gu aipatzen ari garen neurrientzako heldulekua da, neurriok hizkuntz normalkuntza baitute helburu; laguntza hauek dira salbuespena: kultura sustatu eta ondarea babesteko helburua duten laguntzak, elkartrukeren eta lehiaren baldintzak aldatzen ez baldin badituzte, eta horrela interes orokorraren aurka jo.

Pizgarri fiskalen bidez hizkuntza normaltzea nola lor daitekeen aztertzen hasita, kontuan izan behar dugu tributu mota asko dagoela gaur egungo zerga-sisteman, eta horrek garrantzia dauka, izan ere tributuen helburua ez denez beti berdina, horien bidez eguneroko bizitzan hizkuntza normaltzearen alde lor daitekeena ere era batekoa edo bestekoa izan daiteke. Lortu nahi duguna lortzeko biderik onena zergek eskaintzen dute. Hala ere, zergetan ere mota guztiek ez dute pizgarri bihurtzeko aukera bera eskaintzen, eta hori horrela izanik, zer nolako aukerak dauden aztertzen saiatuko gara, zergetan asko erabiltzen den sailkapen batean oinarrituta: doktrina tributarioak zuzeneko eta zeharkako zergen artean bereizten du.

2. ZERGA-SISTEMAREN BIDEZKO PIZGARRI FISKALAK

Zeharkako zergetatik hasita, euskara normaltzea lortzeko zerga horiek izan dezaketen eragin pizgarria nahiko eskasa da, zerga horiek dituzten ezaugarriengatik. Azter dezagun zerga horien arteko garrantzitsuena, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), eta ikusiko dugunez, neurri batean guk lortu nahi dugun helburua lortzeko bidea eskaini baldin badezake ere, muga handiak ditu benetan, berehala ikusiko dugunez:

1. - Hasteko, Europako Batasun osorako armonizatutako zerga bat da, eta, ondorioz, autonomia erkidegoak horren inguruko arauen bat aldatu ahal izatea ia ezinezkoa da.

2. - Bestetik, eta gorago esandakoaren ondorioz, euskara sustatzeko modu bateko edo besteko onuraren bat eskaini nahi baldin bada, lehenbizi kontuan eduki beharko dira zerga horren gaineko araudi orokorrean dagoeneko jasota dauden beste onura batzuk. Ona hemen adibide batzuk: hizkuntzak irakastearekin zerikusia duten jarduerak eta lanbideko prestakuntza eta birziklatzeak ez dute zerga hori ordaindu behar; irakaskuntza horri lotuta dauden ondasun-emateak ere salbuetsita daude, eta beste horrenbeste gertatzen da hezkuntz sistemako edozein maila edo gradutako ikasketa-planetan jasotako ikasgairen bati buruzko ikasgai partikularrak ematen dituzten pertsona fisikoekin ere. Bestetik, %7a baino ez dute ordaindu behar, hau da, zerga-maila txikiagoa dute ondorengoek: filmeetako interpreteek, artistek, zuzendariak eta teknikoak (pertsona fisikoak baldin badira), ikuskizunen aretoetan ematekoak diren filmeak sortzen dituzten ekoizleak, eta antzerki-lanak eta musika-ikuskizunak antolatzen dituztenek. Liburu, egunkari eta aldizkariak %4a ordaindu behar dute.

3. - Bukatzeko, eta aurreko bi paragrafoetan esandakoari lotuta, ez dugu ahaztu behar zerga-mota honek duen antolaketa-modua dela eta, teoriarik deskribatu ditugun onura horiek ezartzeko orduan arazoak sor daitezkeela gero praktikan, eta kontrako eragina izan.

Zeharkako zergek, orokorrean, arazoak sortzen dituzte eguneroko bizitzako euskararen erabileraren pizgarri bihurtzeko, eta arazo horiek bereziki nabarmenak dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kasuan; hori dela eta, bide hori erabat baztertu beharrekoa izan gabe ere, beste bide batzuk urratu beharra dagoela ikusten dugu.

Zuzeneko zergei begira jarrita, gaur egun bada araudi berezi bat, eta horrek irabazteko xederik ez duten erakundeen erregimen fiskala finkatzen du, nahiko orokorra bada ere. Erregimen hori dena delako erakundeak gizartean duen funtzioaren, burutzen dituen jardueren eta jarduera horien ezaugarrien araberrakoa da. Horrekin batera, pertsona fisiko eta juridikoek lehen aipatutako erakundeei emandakoek (era bateko zein besteko ekarpenek) zer nolako erregimen fiskala izango duten ere zehazten du, eta baita interes orokorreko jardueren erregimena ere. Erregimen fiskal berezi hori dela eta, onura fiskalak lortzeko aukera dago sozietateen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, eta baita tokiko tributuetan ere.

Araudi hori ondorengo arauetan dago jasota: Arabako apirilaren 24ko 13/1996 foru-araua (arlo pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartzeko pizgarri fiskalei buruzkoa); Bizkaiko abenduaren 5eko 9/1995 foru-araua (onura publikoko fundazio eta elkarteen erregimen fiskalari eta arlo pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartzeko pizgarri fiskalei buruzkoa); eta Gipuzkoako martxoaren 24ko 5/1995 foru-araua (arlo pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartzeko pizgarri fiskalei buruzkoa). Araudi horren araberrako onurak multzo hauetan bana ditzakegu:

1.- Irabazteko xederik gabeko erakundeen erregimen fiskala:

Kasuan kasuko erregistroan izena emanda duten fundazioentzat da erregimen hori, eta baita onura publikokotzat jotako elkarteentzat ere, helburu hauek baldin badituzte, beste batzuen artean: hezkuntza, kultura edo zientziarekin zerikusia dutenak, ikerketa bultzatzen dutenak edo antzeko interes orokorreko beste xederen bat dutenak.

2. - Irabazteko xederik ez duten erakundeentzako egindako ekarpenen erregimen fiskala.

Erregimen fiskal onuragarriagoa dute bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta baita elkarten gaineko zergan ere pertsona fisiko edo juridikoek onura publikokotzat jotako fundazio edo elkarten esku utzitako ondasunek (dena delako dohaintzek), fundazio edo elkarteok helburu hauek badituzte: hezkuntza, kultura edo zientziarekin zerikusia dutenak, ikerketa bultzatzen dutenak edo antzeko interes orokorreko beste xederen bat dutenak.

3. – Enpresen lankidetzarentzako erregimen fiskala.

Guri interesatzen zaigunerako, lehen aipatutako araudi horretan badira beste onura fiskal batzuk ere, interes orokorrarentzat mesedegarriak diren jarduerengatik egindako gastuentzat, edo arte jakin batzuk bultzatu edo garatzeak eragindako gastuentzat. Hauek dira jarduerok: jendaurreko ikuskizun edo gertakariak, hezkuntza, kultura edo zientziarekin zerikusia dutenak, ikerketa bultzatzen dutenak edo antzeko interes orokorreko beste xederen bat dutenak, eta bereziki hizkuntza normaltzearekin zerikusia dutenak, eta baita zinea, antzerkia, musika, edo dantza sustatzearekin zerikusia dutenak nahiz liburu, bideo eta fonogramak argitaratzearekin zerikusia dutenak.

4. - Interes orokorreko jardueren erregimen fiskala.

Bukatzeko, urte edo ekitaldi bakoitzean, foru-aldundiek lehetasuna duten jarduera edo programen zerrenda bat zehaztu ahal izango dute, beti ere arlootaz ari garela: hezkuntza, kultura edo zientziarekin zerikusia

dutenak, ikerketa bultzatzen dutenak edo antzeko interes orokorreko beste xederen bat dutenak. Horrekin batera, jarduera horiek zer nolako baldintzak bete beharko dituzten adierazteko aukera ere izango dute.

Esandakoaz gainera, beste pizgarri fiskal batzuk onartzeko aukera ere egongo litzateke, horren bidez hizkuntzaren erabilera normaltzen laguntzeko, maiatzaren 30eko 3/1989 Legea garatzeko onartutako lege armonizatzaileen bidez eta lurralde historikoetako foru-arauen bidez.

3. TOKI MAILAKO TRIBUTUEN BIDEZKO PIZGARRI FISKALEI BURUZKO AIPAMEN BEREZIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak kasu zehatzen batean onartu duen moduan, toki mailako erakundeetako tributuen bidezko pizgarri fiskalak bidezkoak izan daitezke, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 26 eta 27. artikulua oinarri hartuta, beti ere helburua euskara sustatzea baldin bada. Hauxe adierazi zuen, zehazki: "udalak emandako sariak edo diru-laguntzak ez du oztoporik jartzen gaztelaniazko iragarkiak edo azalpen publikoak egiteko; euskarazko hitzak erabiltzea bultzatzen du ekonomikoki, horrek ekar dezakeen gastu osoa edo gastuaren zati bat ordaintzen baitu, eta horrek ez du administratuen hizkuntz askatasuna murrizten ez eta beste inolako eskubide edo gaitasunik mugatzen" (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 1992ko otsailaren 7koa, Usurbilgo udalaren ordenantza bat zela eta emandakoa).

Hala ere, beste epai askotan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak zera adierazi du, hots, 1988ko abenduaren 28ko Legeak, Toki-ogasunei buruzkoak, eragozten duela lege-mailako arauetan espresuki aurreikusten ez diren toki-tributuetan beste onura fiskal batzuk onartzea, Tributuei buruzko Lege Orokorrak lege mailako araua eskatzen baitue tributuen arloko hobariak zehazteko (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiotan dago jasota iritzi hori: 1992ko abenduaren 30eko epaia,



Nabarnizeko ordenantzari buruzkoa; 1993ko urtarrilaren 21eko epaia, Baliarraingo ordenantzari buruzkoa; 1993ko martxoaren 26ko epaia, Orendaingo ordenantzari buruzkoa; 1993ko apirilaren 14ko epaia, Dimako ordenantzari buruzkoa; 1994ko apirilaren 27ko epaia, Leaburu-Gazteluko ordenantzari buruzkoa... aurreko kapituluaren ikusi dugunez, iritzi bera erakutsi du Auzitegi Gorenaren 1999ko ekainaren 22ko Epaian).

Ikusitakoak ikusita, behin eta berriz ageri den jurisprudentzia nolakoa den jakinda, esan beharrekoa da nahikoa izango litzatekeela Eusko Legebiltzarreko lege batean adieraztea (Kataluniako hizkuntz politikako legerian jasota dagoen moduan⁴⁶), Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udalek euskara sustatu beharra dutela, bakoitzak bere eskumenetatik, eta, ondorioz, hobariak eta salbuespen fiskalak zehazteko aukera izango dutela euskararen erabilera normaldu eta sustatzearekin zerikusia duten ekintzetarako.

VII. TITULUA

TOKIKO HERRI-ERAKUNDEAK, ETA GEHIENGO EUSKALDUNA DUTEN GUNEEN AIPAMEN BEREZIA

⁴⁶ Antzeko hitzak ageri dira Kataluniako hizkuntz politikako legean, hauxe baitio 37.2. artikuluan: "Generalitateak eta toki-erakundeek, bakoitzak bere eskumenen barruan, katalanaren irudi publikoa eta erabilera sustatu behar dute, eta horretarako, onurak eta salbuespen fiskalak zehazteko aukera izango dute, katalanaren erabilera normaldu eta sustatzeko helburua duten ekitaldientzat".

1. HURBILPEN JURIDIKOA EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN NEURRIETARA, ETA TOKI-EREMUKO HERRI-ERAKUNDEEI DAGOKIENEZ, GEHIENGO EUSKALDUNA DUTEN GUNEEN AIPAMEN BEREZIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren arabera gehiengo euskalduna duten gunetzat jotzen diren eremuan harrigarria da zirriborratutako neurriak zein murrizak diren. Administrazioarekin oro har lotura duten planen garapenera mugatzen dira - udal funtzionarioen, osasun-arloko eta gizarte-mailako langileen hizkuntz prestakuntza, gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea - eta ez dira kontuan hartzen jurisprudenziak planteatzen dituen arazo juridiko asko. Horiei arreta berezia eskainiko diegu hurrengo kapituluetan. Lanaren eta merkataritzaren arloan ahozko eta idatzizko hizkuntz paisaia euskalduntzeari dagokion neurria baino ez da aipagarria: "a) izenburuak euskaraz egitea; b) ahozko erabileraren sustapena merkataritzaren eta zerbitzuen sektorean". Hizkuntz paisaiaren euskalduntzea sustatu daiteke sustapeneko jardueraren bitartez. Hori dela eta, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legeak lege-babesa ematen dio euskararen erabileraren sustapenaren jarduerari publikitate eta euskararen erabilera sustatzeko ofizialak ez diren erakunde mota guztien izenburuak egiterakoan (27. art.). Sustapeneko neurriak izan daitezke dirulaguntzak ematea edo hobariak eta zerga-salbuespenak ezartzea. Baina esan beharra dago horien onarpena ez dela erraza, gai horri buruz diharduen kapituluan, VI. kapituluan, adierazi denez.

Baina helburua euskaldun ugari dituzten guneeetan partikularrei betebeharrak ezartzea bada eta, horrela, enpresek eta saltokiek hizkuntz paisaiari dagozkion hainbat eskakizun bete behar badituzte, hala nola, jendearentzako edo langileentzako adierazpenak "gutxienez" euskaraz jartzea, orduan erabat beharrezkoa da lege-erreforma. Konstituziozko arazorik ez litzateke egongo

Quebec-en asmatutako "gutxienezko" formula erabiliko balitz. Formula hori Katalunian ere erabili da eta doktrinan Milian i Massanak⁴⁷ aztertu du.

Merkataritzaren eta zerbitzuen arloan ahozko erabilera "sustatzeari" dagokionez (pribatuak direla ulertzen da), kontsumitzaileen hizkuntz eskubideen bermetik egituratu behar da neurri hori. Euskararen ahozko erabilera besterik gabe sustatzeko ez litzateke inolako arazo juridikorik egongo; hala ere, helburua areago joatea bada eta euskararen ahozko erabilera kontsumitzaileen hizkuntz eskubidea denez benetan ziurtatzea, kontuan eduki behar da Konstituzioak harreman pribatu horiei jartzen dien muga beste pertsonak hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea dela. Beraz, hizkuntza erabiltzeko eta hizkuntza horretan arreta jasotzeko eskubidea ziurtatu ahal izango da, baina inoiz ezin da derrigortu -harreman pribatuetan- beste aldea hizkuntza ofizial berean erantzutera. Zerbitzu publikoetan eta herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremanetan gertatu behar lukeenaren aurkakoa da, kasu horietan hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide aktiboaz gain, erantzuna jasotzeko eskubide pasiboa ere badago eta.

Edozein erataria, gai horiek sakonago jorratzeko, ekonomi eta gizarte-arloaz eta kontsumitzaileen eskubideez diharduen lan honen titulura joko dugu.

2. EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEA TOKI-ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN EAEn

2.1. Euskararen erabilera arautzea herri-administrazioetan oro har

Gauza jakina da ofizialtasunak hizkuntza bati erabateko indarraldia eta eragin juridikoa ematen dizkiola, administrazio barruan zein administrazioen artean eta baita, azkenik, administrazioaren eta herritarraren artean. Hala ere, ofizialtasunak ez dakar berarekin ofiziala den hizkuntza nahitaez

⁴⁷ A. Milian i Massana "La exigencia de "al menos en catalán" como garantía de la presencia social de la lengua catalana" Estudios jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística, Barcelona, Generalitat de Catalunya. Institut D'Estudis Autonòmics, 1999. ikus 23. oharra.

administrazioaren jardun guztietan erabili beharra, ez aginte publikoek orokorrean erabili beharra ere. Legedi aplikagarriak –ofizialtasunaren edukia, zenbaterainokoa eta mugak arautuko dituenak- zehaztuko du zein erakundetan eta zein kasutan izango den erabilera nahitaezkoa.

Konstituzio Auzitegiak aitortu duenez "aginte publikoek hizkuntza ofizial bakarra erabiltzea erabaki dezakete, norberaren ekimenez edo baita interesdunek hala aukeratu dutelako, hala arautzen denean, baina beti ere interesdunen eskubideak kaltetzen ez direnean, interesdunek erabilitako hizkuntza ez dutela ezagutzen arrazoiz alegatu baitezakete, eta hori gaztelaniarengatik ez beste hizkuntzarengatik bakarrik esan daiteke. Prozedura osoa euskaraz egin ahal izatea, hizkuntza horrek Euskal Autonomia Erkidegoan duen izaera ofizialaren ondorio naturala da eta horrek berarekin dakar bertan gauzatutako jardueran eraginkortasuna, dagokion eremuan". (KAren 82/1986 epaia, 9. oinarri juridikoa).

Auzitegi Nagusiaren 1996ko martxoaren 26ko R.2593 epaiak eta 1997ko apirilaren 15eko R.3956 epaiak ere argi adierazten dute ofizialtasun bikoitzak ez dakarrela nahitaez "...herri-administrazioak, edo korporazioak, bi hizkuntza ofizialetara itzuli beharra argitaratzen edo izenpetzen diren agiri guztiak...".

Beraz, argi dago hizkuntza ofizial baten erabilera era bat baino gehiagotan arautu daitekeela. Dagokion gaiko arau erregulatuak zehaztu behar du administrazioen zein egintzak izan behar duten derrigor hizkuntza bietan idatziak eta zein, ostera, egin daitezkeen hizkuntza bakarrean. 1996ko martxoaren 26ko epaian oso erabaki esanguratsuak ageri dira gai horri buruz. Bartzelonako abokatuen elkargoko zein egintza idatzi behar diren hizkuntza bietan aipatzen denean, epaia Elkargoko Estatutuetoako 5.2. artikulura bidaltzen da zuzenean - albo batera uzten da hizkuntza bien ofizialtasunari buruzko araudi orokorra- eta honela dio:

"Estatutu araua irakurrita ikusten denez gaztelaniaz argitaratzeko agintzen dio elkargoari ("argitaratuko dira") katalanez argitaratzeaz gain ("baita ere") hainbat xedapen eta egintza jakin. Bestelakorik aipatzen duen klausularik ez dagoenez, adierazten diren kasuak mugatuak direla ulertu behar dugu eta, artikulua horren arabera, elkargoko kideek ezin diotela elkargoari eskatu adierazitakoak ez beste argitalpenak eta komunikazioak gaztelaniaz egitea."

Epai bereko beste lerroalde batean honela dio:

"...elkargoak kide guztiei bidaltzen dizkien argitalpenenei eta komunikazio orokorreari dagokionez, estatutuen 5-2 artikuluan zehaztutakoak bakarrik eska daitezke gaztelaniaz egon daitezela..."

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan eta xedapen zehatzagorik izan ezean, erakunde publikoek beren jardueretan aintzat hartu behar duten hizkuntz erregimena Euskararen erabilpena arautzen duen 8. artikuluan jasotzen dena da⁴⁸. Artikulu horretako bi lerroaldeetan hizkuntza bietan idazteko derrigortasuna ezartzen da, alde batetik "aginte publikoek emandako xedapen arauemaile edo ebazpen ofizial guztiak..." eta bestetik, aginte publiko horiek "parte hartzen duten egintza guztiak".

Irakurketa huts batek agerian uzten duenez, transkribatutako bi xedapenak administrazioaren jardunbide anitzetara aplikatzen dira. Horren aplikazio-eremuan sartzeko xedapen arauemaileak eta ebazpen ofizialak, eta bai EAEko aginte publikoek parte hartzen duten egintzak ere, egintza material baino ez direnak barne.

⁴⁸ Hona Euskararen Legeko 8. artikuluko hitzez hitz dioena:

8.1. Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoetatik datozen xedapen arauemaile guztiak ele bietan idatzita egon beharko dute publizitate ofiziala emateko.

8.2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden aginte publikoek parte hartzen duten egintza guztiek, bai eta jakinarazpenak eta administrazio-komunikazioak, ele bietan idatzi beharko dira. Salbuespena izango da interesdun pribatuek berariak aukeratzea autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialetako baten erabilera.



Aztertzen ari garen xedapenean azaltzen den "guztiak" adjektiboak nahiko argi erakusten duela dirudi lege-testua egin zutenek oso iritzi zabalak izan zituztela aginte publikoengandik datozen eta "...ele bietan idatzi behar diren..." idatziak zehazterakoan. Baina hori nahikoa ez balitz, xedapenek zehazten dute mota guztietako jarduerak bere jarduera-eremuan sartzen direla, xedapen arauemaileak, ebazpen ofizialak eta EAEko aginte publikoek parte hartzen duten jarduerak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 1995eko abenduaren 30eko epaian egiaztatzen denez, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8. artikulua eraginkortasuna ez da amaitzen aginte publikoen kanpoko jardueretan, alderantziz baizik, horien barne-jarduera edo jarduera orokorra ere osorik sartzen da eta. Hori horrela, hona epaiaren argudioa: *"...jakintzat emanda lehen aipatutako 8.1. artikulua kanpoko garrantzia duen jardueraz diharduela, 8.2. artikulua administrazio-jarduera orokorrari lotzen zaio..."*.

Bi xedapenen norainokoa argitzeko asmoz eta Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen Legebiltzarreko aurrekarietara jotzen badugu, ez dugu behar adinako frogarik aurkituko, baina bai ordea seinale nabarmenak legea egiten duenaren borondatea defendatu ahal izateko, 8. artikulua aplikazio-eremuan administrazio-jarduerak izaera anitzekoak izatea. Bigarren lerroaldeari dagokionez, adibide gisa aipatuko dugu MATURANA legebiltzarkideak gai horretaz jardun zen osoko bilkuran esandakoak: "Egintza terminoa oso zabala da, mota eta garrantzi anitzeko jarduerak hartzen ditu bere baitan".

Elebitasunaren edukia zehazten duten arauak ez betetzearen ondorioei dagokienez, administrazioaren jardun idatzian, 8.1. artikuluan xedatutakoarekin lotuta zehazki, jurisprudentziak ez du gai honi erantzun zuzena, bakarra eta behin-betikoa emateko aukera emango duen erabakirik hartu.

Batetik, Justizia Auzitegi Nagusiak 1991ko apirilaren 8an emandako epaiak dioenez arau bat gaztelania hutsez argitaratzea ez da oztopo arau hori indarrean sar dadin eta, ondorioz, eraginkortasun osoa azal dezan: *"...Argitaratzeko baldintza, indarrean sartzeko baldintza gisa hartuta, gaztelaniaz egiten den unean betetzen dela ulertu behar da, aginte publikoek araua euskaraz ere argitaratzeko duten betebeharra alde batera utzi gabe eta, horrekin batera, herritarrek betebehara hori eskatzeko duten eskubidea kaltetu gabe..."*.

Hainbat kasutan, ordea, auzitegiek aurkakoa defendatu dute, hau da, elebitasunaren eskakizuna ez betetzeak lege ezarritako kasuetan administrazioko xedapenen legekontrakotasuna dakarrela. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, adibidez, honako hau adierazi zuen 1990eko ekainaren 28ko epaian: *"...planeamenduko arau subsidiarioak gaztelaniaz onartzen badira eta, horrekin batera, euskaraz onartzen ez badira, ez da hizkuntza bien ofizialkidetasuna printzipioa betetzen, erkidego berezko hizkuntza diskriminatzen du eta Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.1. artikularen aurka egiten du zuzenean..."*

Legea urratzeaz gain, Auzitegiaren iritziz indarraldia eta eraginkortasuna galtzen dute administrazio-egintzek eta elebitasunaren eskakizuna betetzen ez duten erregelamenduek: *"zalantzazkoa da deuseztatzeko arrazoia edo prozedurako akatsa den, baina sala erabateko deuseztasuna aitortzearen aldekoa da, hizkuntzaren identitate ezagutzailea dela eta, Zuzenbideko Estatua zehazten duen Legearen nagusitasunaren oinarria"*.

Nolanahi ere, eta Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8. artikularekin loturik, saihestezina da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 824/1994 epaia kontuan hartzea. Bertan azaltzen denarekin lotuta, esan daiteke inolako zalantzarik gabe, xedapen orokorrek era hizkuntza bietan idazten ez diren administrazio-egintzak ez direla zuzenbidearen araberakoak,

eta horren arrazoia da Euskararen Legeko 8. artikuluko arauak administrazio-egintzen beren formazko elementuetara lotuagoak daudela jakinarazpenen eta argitarapenen baldintzetara baino. "... Administrazioaren egintzen forma-baldintzekin lotzen dira (Administrazio-prozedurari buruzko 41. Legea), eta ez jakinarazpenen edo argitalpenen baldintza formalekin; eta idatzita egoteak edozein xedapenen edukiari eragiten dio eta ez demandatutako udalak interpretatu nahi duen bezala, xedapena zehatzen duen eta xedapenari baliotasuna eta eraginkortasuna ematen dion onespren-erabaki formalari bakarrik...". Legea aztertuta eta honela dio epaiak: *"...administrazio-jardueren derrigorrezko izaera elebiduna, nahitaez idatziz formalizatuak..."*, eta errekurritutako administrazio-egintza deuseztatzen du - Lasarte-Oriako Udalaren aurrekontua- gaztelaniaz baino ez delako onartu.

Aurreko lerroetan azaldutakoarekin bat, badakigu EAeko administrazioek emandako xedapen orokorrak eta administrazio-egintzak - eta beste hainbeste esan daiteke baita ere jarduera materialez- legearen aurkakoak direla hizkuntza bietan onartzen eta jakinarazten edo argitaratzen ez badira. Eta legearen aurkakoak izanik, administrazioarekiko auzietako auzitegiek deuseztatu ahal izango dituzte, dagokion epean eta moduan errekurtsoa jartzen bada.

Hori arazoa da administrazio orokorrerako eta hiru foru aldundietarako, asko baitira oraindik ere hizkuntza bakarrean ematen diren administrazio-egintzak lau administrazio horietan. Baina, bestalde, eta aurkako kasuan, herri euskaldunenetako udalek eragozpen nabarmena dute bertan euskara hutsez jardun ahal izateko urratsak emateko.

2.2. Euskararen erabileraren azterketa toki-administrazioaren eremuan, EAEn

Auzitegi Goreneko jurisprudenzia sortu berriak bi zor ditu: Euskeraren Erabilpena Arauzkotzezko Legearen 8.3. artikuluari buruz KAren 82/1086 epaiak egindako interpretazioa, eta Eusko Legebiltzarraren legegintzako

jarduera-eza duela dagoeneko hemezortzi urte onartutako legedia eguneratzeko eta oraingo errealitateari egokitzeko. Horri buruz egin behar den galdera da Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legea oraindik ere tresna baliagarria den edo, aitzitik, pasatako denbora eta horren indarraldiak berak postulatuak dagoeneko bizi dugun errealitate soziolinguistikora egokitzea eskatzen ote duten euskararen normalkuntzan eragin dituen aldaketa positibo eztabaida ezinek, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko gunerik euskaldunenetan.

Dagoeneko ikusi dugu Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8. artikulua 1. eta 2. paragrafoek gaztelaniaren eta euskararen erabilera bateratuaren aldeko apustu garbia egiten dutela arau juridikoen publikitate ofizialean eta administrazio-egintzen jakinarazpenean, interesdun pribatuek berriaz hizkuntza bakar baten erabilera aukeratzen dutenean izan ezik. Bestalde, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikulua honako hau xedatzen zuen: "gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kalterako gerta ez dadinean euskara bakarrik erabili ahal izango dute, herri-agintariek, toki-arduralaritzaren alorrean". Batik bat euskaraz mintzatzen zen biztanleria duten toki-korporazioetarako bakarrik balio zuen salbuespeneko sistema diseinatzen zuen agindu hori Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen Konstituzio Auzitegiak, argudio juridiko honetan oinarrituta: "8.3. artikulua Konstituzioaren aurkakoa da, Konstituzioaren 3.1. artikuluan xedatutakoa urratzen baitu, hau da, Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 6. artikulutik eratorritik denez, Estatuko lurralde barruan inon ez baitago euskara jakiteko derrigortasunik (KAren 82/1986 epaia, 10. oinarri juridikoa).⁴⁹

⁴⁹ Hona zer dioen Konstituzio Auzitegiko 82/1986 epaiak:

"Estatuko abokatuak aldarrikatzen duen konstituziokontarakotasunari dagokionez, alderdi euskaldunak salbatu egin nahi du oinarritzat euskal gune elebakarrak daudela eta diglosia-egoeran dagoen hizkuntza gutxitua dela hartuta, eta gaur euskara salbatzeko dauden bestelako neurriak kontuan hartu gabe, onartezina da Konstituzioaren eta legeen ikuspegitik, eta Auzitegi honek hori kontuan hartu behar du, gaztelania baztertzea ezinezkoa dela, herritarren eskubideak kaltetzen direlako, herritarrek beste hizkuntza ofizialik ez dutela menperatze alegatzen dutelako. Bada, aipatutako 8.3. artikulua euskara hutsez idaztea aurreikusten du, eta herritarren eskubideak ez kaltetzeko salbuespenak ez du aukera hori alde batera uzten, agindu hori salbuespena da eta ("hala eta guztiz ere...") artikulua horretan bertan xedapen arauemaileak, ebazpenak, aktak, jakinarazpenak eta komunikazioak oro har ele bietan idaztea xedatzen duten lerroaldeekiko.

Zuzenbideko oinarri labur horri erraz egin dakioke kontra hitz juridikoetan, hainbat ikuspuntutatik. Baina hori baino lehenago beharrezkoa da adieraztea ikuspuntu soziolinguistikotik EAEn salbuespen gisa eraturako eredu hauxe dela orokorra Estatuko gainerako autonomia erkidego elebidunetan. Ondorio horixe atera daiteke Kataluniako udalari eta toki-araubideari buruzko 8/1987 Legearen 5. artikulutik, Galiziako toki-erakundeetan galiziera hizkuntza ofizial gisa erabiltzeari buruzko 5/1988 Legetik eta baita Galiziako toki-administrazioa arautzen duen 5/1997 Legaren 7. artikulutik ere.

Zehatz-mehatz hizkuntz politikarako 1/1998 Legeak idazketa berria eman dio aipaturako 8/1987 Legearen 5. artikuluari eta honako hau ezarri du argi eta garbi: "Katalana da Kataluniako toki-administrazio berezko hizkuntza eta, horrenbestez, bertako jardueretan orokorrean erabili behar den hizkuntza izan behar du. Herritar guztiek dute toki-erakundeekin harremanak izateko hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea eta toki-erakundeek aukeratutako hizkuntzan erantzuteko betebeharra...". Halaber ezartzen da autonomia erkidego horretako udalek "...katalana erabili behar dutela barne-jardueretan eta elkarren arteko harremanetan..." (9. art.), edo "Kataluniako toki-administrazioek eta gainerako korporazioek (...) izapidetutako administrazio-prozeduretan katalana erabili behar dela ..." (10.art.)

Galiziako legeak, bestalde, honela dio: "Galiziako toki-erakundeen bilkura-deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, batzorde iritzi-emaielen irizpenak eta aktak galizieraz idatziko dira", nahiz eta "beste hizkuntza ofizialean ere egin daitezkeen" (1. art.). Aldi baterako, galiziera administrazioaren egintza idatzietara sartzeko baldintzak betetzen ez zituzten toki-erakundeek, bi urteko epea zuten legea bermez bete ahal izateko. Aurrekari horri jarraituta, Galiziako

Horregatik, 8.3. artikulua Konstituzioaren aurkakoa da, Konstituzioaren 3.1. artikuluan xedatutakoa urratzen baitu, hau da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulutik eratorzen denez Estatuko lurralde barruan inon ez baitago euskara jakiteko derrigortasunik.

toki-administrazioa arautzen duen legeak aginduaren edukia zabaldu egiten du eta galiziera, Galiziako berezko hizkuntza denez, bertako toki-administrazioa ere badela adierazi ondoren, honako hau ezartzen du: "toki-erakundeek idatziz egindako bilkura-deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, batzorde iritzi-emaleen irizpenak, aktak, jakinarazpenak, errekursoak, eskritura publikoak, agerraldi judizialak eta izaera publikoa edo administratiboa duten egintza guztiak galizieraz egingo dira."

Horregatik guztiatik, Konstituzio Auzitegiaren erabakian ardazten bada azterketa, ikuspegi juridiko eskusiboa hartuta, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikulua eragindako arazoa gaztelania ezagutzeko betebeharraren ikuspegitik bideratzeak ez dirudi zuzena zuzenbidean, ezin baitira parekatu gaztelania ezagutzeko betebeharra eta gaztelania erabiltzeko betebeharra. Ondorioz, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikulua edukia konstituzio-betebeharraren menpe aztertzea hutsegite juridikoa da, agindu horretan hizkuntzaren ofizialtasunaren eragina besterik ez baita zehazten, hala nola "erabateko balioz eta eragin juridikoekin" erabili ahal izatea, beste hizkuntza ofiziala nahitaez erabili beharrik gabe, bestela gaztelaniaren ornamentua edo apaingarria baino ez litzateke izango eta.

Hori horrela, uler daiteke, logikoa baita, hiztun gutxiko hizkuntza bat oro har denek ezagutzen duten hizkuntzarekin batera erabili behar izatea, nahiz eta ofiziala izan (Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.1. eta 8.2. art.). Baina denek edo ia denek hiztun gutxiko hizkuntza ezagutzen duten tokian ere arrazoizkoa dirudi bera bakarrik erabiltzea, beste hizkuntzarekin batera izan gabe. Euskara ezagutu ala ez, gaztelania erabili nahi dutenen legeko eskubideak aintzat hartuko ez balira sortuko litzatekeen hizkuntzagatiko bereizkeria izan beharko litzateke muga bakarra, eta muga zeharkaezina gainera. Kasu hori jasota dago Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikuluan, euskararen erabilera eskusiboak ezingo dituela "herritarren hizkuntz eskubideak kaltetu" xedatzen baitu.

Planteamendu horren lagungarria da 2000ko irailaren 25ean Auzitegi Gorenak eman berri duen epaia. Epaia horrek A Coruña-ko Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa ebazten du, aurretik lehen auzialdiko epaitegiak ez baitzuen bidezkoztat jo udalak Hizkuntz Normalkuntzaren Aldeko Mahaiaren eskabidea gaitzestea, "A Coruña" izen ofiziala erabil zezan eta galiziera erabil zezan agindu ofizial guztietan. Auzitegi Gorenak adierazi duenez, lehen auzialdiko epaiak Galiziako Parlamentuko ekainaren 21eko 5/1988 Legea hitzez hitz aplikatzen du eta, horrenbestez, ordenamendu juridikoarekin dagoen kontraesana legerari berari ezarri behar zaio, eta konstituzioaren kontrakotzat joz gero, Auzitegiaren arabera, dagokion arazoa Auzitegi Gorenari planteatu behar zaio; baina hori ez da gertatzen. Auzitegiak gaitzetsi egin du errekurtsoa. Hona hemen gaitzespenaren argudio interesgarri batzuk:

"...legegile autonomikoari dagokio, Galiziako Parlamentuari, hizkuntz ahalmena, EAGko 5.3. artikularen arabera. Artikulu horrek Galiziako aginte publikoen gain uzten du hizkuntzen erabilera normalaren eta ofizialen bermea (gaztelania, Estatu osoko hizkuntza ofiziala denez, eta galiziera, Galiziako berezko hizkuntza denez), eta galzieraren erabileraren sustapena bizitza publikoaren arlo guztietan, baita kulturaren eta informazio-munduan ere. Eta "hizkuntz normalkuntzara" bideratutako orientazio teleologiko garbia duten legeztatze/agintze horren barruan hainbat aukera egin daitezke, errespetua ziurtatzeko eta autonomia erkidegoko berezko hizkuntza eta ofizialkidea denaren erabilera sustatzeko, KAren abenduaren 23ko 337/1994 epaiak aitortu duenez. Horrela, gerta daiteke lege autonomiko bidez galzieraren erabilerak lehentasuna edukitzea, beti ere, aipatu bezala, Konstituzioaren araberrako hizkuntz ereduaren mugak errespetatzen direnean eta, beraz, herritar guztiek gaztelania erabiltzeko duten eskubidea, bai aginte publikoekin dituzten harremanetan -gaztelaniarako itzulpena eskatzeko ahalmena barne, galiziera ez dela ulertzen alegatzen bada - , eta bai

funtzio eta gai publikoetan berdintasunez parte hartzerakoan ere.(EKko 23 art.). (...)

Horrela, aginduaren interpretazioak, Konstituzioaren hizkuntz ereduaren arabera, bereizketa egitea eskatzen du, hauen artean: batetik, Galiziako toki-administrazioetako barne-jarduerak, Galiziako Parlamentuaren Legearen 1.1. artikuluan adierazten direnak, eta bestetik, kanpoko edo *ad extra* jarduerak. Horrela, galiziera barne-jardueretan erabiltzeak herritarren eskubide subjektiboak errespetatzen ditu eta baita bi hizkuntza ofizialetako edozeinen erabilera ere, udal funtzioak eta karguak betetzerakoan, lege bereko 1.2. artikuluan adierazten denez Galiziako toki-erakundeek gaztelania ere erabiltzeko aukera badutela esatean, aipatutako eskubideak tartean direnean toki-administrazioak betebeharrak hori duela ulertzen badugu. (...) (7. oinarri juridikoa)

Toki-araubideari buruzko Estatuko araudiak ez du eragozpenik jartzen toki-erakundeek galiziera azaldu bezala erabil dezaten. Erakunde horien Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduak (azaroaren 28ko 268/1986 EDk onartutakoa) 86.1. artikuluan dioenez autonomia-araudira eta toki-erakundeen erabakietara jotzen du bilkura-deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, batzorde iritzi-emaielen irizpenak eta aktak zein hizkuntzatan egon behar duten idatzita zehaztean. Agindu bereko 2. paragrafoan, eztabaidetan hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko aukera ezartzen du, hizkuntzen ofizialkidetasunaren arauditik eratortzen den tokiko ordezkarien eskubide subjektiboak errespetatzearen. Eta Galiziako Parlamentuko ekainaren 21eko L 5/1988 Legeak toki-erakundeek galiziera erabil dezaten ezartzen duen aurrekariari jarraituz, lehen auzialdiko epaian adierazten denez, Galiziako Toki Erakundeari buruzko uztailaren 22ko L 5/1987 Legeak toki-administrazioetako jardueretan galizieraz idazteko betebeharrak jasotzen du eta, horrekin batera, beste hizkuntza ofizialean idazteko aukera,

gaztelaniaz alegia. Eta aukera hori betebeharrak gisa ulertu behar da, lehen esan bezala, herritarren baten edo tokiko ordezkariaren baten hizkuntza eskubideren bat tartean bada” (8. oinarri juridikoa).

Esandako guztien ondoren, argi dago gaur egun Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikulua gure ordenamendu juridikotik kanpo dagoela eta euskal legegileak bestelako alternatibarik egituratu ez duenez, beren jardueretan euskara lehentasunez erabiltzeko hizkuntza ofizial gisa hartu nahi izan zuten euskal toki-korporazioen oinarri juridikoa ezin da sustraitu Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 8.3. artikulua akabatuan, baizik eta autonomia erkidegoan ordezkari aplikaziokoa den Estatuko araudian. Eta horrek hizkuntza bakar bat baliotasun eta eragin juridiko osoz erabiltzeko aukera ematen du, korporazioak berak horretarako hartutako erabakien arabera (Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 268/1986 EDk onartutako Erregelamenduaren 86. artikulua).⁵⁰ Hala ere, artikulua horren eragozpena da, azkenaldiko jurisprudentzia ikusita, segurtasun handiegirik ez duela ematen, eta gainera aplikaziokoa izango litzateke "aplikaziokoa den legediaren arabera". Euskeraren kasuan legedia hori ezin da izan Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legea besterik, eta 8.3. artikulua desagertu egin da Euskeraren Erabilpena Arautzen duen Legetik.

3. AUZITEGI GORENAREN AZKEN ALDIKO JURISPRUDENTZIAK PLANTEATU DITUEN ARAZO JURIDIKOAK EUSKARA ETA TOKI-ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ

⁵⁰ Hona zer dioten toki-erakundeek Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 268/1986 Errege Dekretuak:

"86-1- artikulua. Gaztelaniaz edo entitateari dagokion autonomia erkidegoan gaztelaniarekin batera ofiziala den hizkuntzan idatziko dira bilkuretako deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak eta informazio-batzordeak emandako irizpenak, aplikatu daitezkeen legeriaren eta dagokion korporazioak horri buruz hartutako erabakien arabera.
2. Eztabaidak berdin egin daitezke gaztelaniaz edo autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialkidean.

110.1. artikulua. Akten idazketan 86.1. artikuluan xedatzen dena aplikatu ahal izango da, hizkuntzen erabilerari dagokionez.
(...)"



Auzitegi Gorenaren azken aldiko jurisprudentziari begiratzen badiogu ikus dezakegu, adibidez, ez dela buruan sartzen funtzionarioei euskara beren barne-eginkizunetarako gaitasun-irizpide gisa eska dakiekeenik, administratuekin harremanik ez badaukate. Horrela, adibidez Auzitegi Gorenak 1999ko maiatzaren 24an Aizarnazabalgo Udaleko ordenantzaren legezkotasuna epaitzerakoan eman zuen epaiak honela dio: "Hogeita hamabigarren artikuluari dagokionez, edozein lanpostu eskuratu ahal izateko euskara jakitea eskatzen duena, agindu hori ezin da zuzenbidearen aurkakotzat jo, ez bada bereizkeriarik sortzen autonomia erkidegoko hizkuntza erabili nahi duten administratuekin lotura zuzena ez duten lanpostuak betetzeko langileak hautatzerakoan euskal hizkuntza derrigor ezartzen delako." Horrenbestez, norbaitek pentsa dezake 86/1997 Dekretuak ematen diola babesa euskarari, lan hizkuntza gisa administrazio publikoetan, baina ikuspuntu juridikotik interpretazio-arazo bat baino gehiago sor daiteke Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legea eta 86/1997 Dekretuaren 1. artikulua artean. Eta konponbidea maila handieneko legearen aldekoa izango da.

Are larriagoa da Auzitegi Gorenak 200ko urtarrilaren 18an emandako epaitik datorren jurisprudentzia, gaitzetsi egiten baitu Tolosako Udalak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa. Doktrina horretatik ondorio atera daiteke bereizkeria dela euskara jakitea eskatzea iturgin, pintatzaile eta igeltsero lanpostuak betetzeko "euskara jakitea lanpostuak betetzearekin lotuta ez dagoelako". Zorionez, antzeko beste kasu batean, Auzitegi Gorenaren 2000ko urtarrilaren 26ko epaiak Lekeitioko Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoaz - puntu horretan lehen auzialdiko auzitegian deuseztatua- dihardu. Lekeitioko Udaleko ordenantzan zehazten zenez "udalak kontratatzen dituen funtzionarioek beren jarduna euskaraz gauzatzeko ahalmena izan behar lukete", eta Auzitegi Gorenaren arabera, orain "ez du eragozten administratuekin gaztelania erabiltzea, beharrezkoa edo komenigarria denean, eta eraginkortasun handieneko eskakizuna betetzea besterik ez du esan nahi, udal funtzionarioen jardunean, administratu gehienak hain zuzen ere euskara erabiltzen baitute".

Hala ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian gai horren inguruan zehaztasun juridikorik ez dagoela adierazten duen froga Auzitegi Gorenak 1999ko ekainaren 22an emandako epaia da, Lizartzako Udaleko ordenantzan puntu berdin-berdina epaitzerakoan, ulertezina bada ere kontrakoa esaten du: "langile berriei -funtzionarioei-" euskara jakitea eskatzeak gaztelania eta hizkuntza hori erabiltzen duten administratuak diskriminatzen dituela baieztatzen du. Ez dugu horretan gehiago jardungo, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak eskaintzen duen lege-babesa eta haren garapeneko legedia argia baita hizkuntz eskakizunei eta horien derrigortasun-egunei dagokienez. Horrenbestez, azken jurisprudentzia hori zentzugabea eta zehaztasun juridikorik gabea da.

Baina euskara berezko eta laneko hizkuntza denez modu eksklusiboan ad intra eraginekin erabiltzeari dagokionez, Auzitegi Gorenak 1999ko maiatzaren 24an emandako epaiak ulertzen du (Aizarnazabalgo Udaleko ordenantza) kasu horretan "kontraesan nabarmena sortuko litzatekeela Konstituzioaren hirugarren artikulua xedatutakoaren eta ordenantzaren hirugarren artikularen artean (euskara ez den beste edozein hizkuntza ezabatzea udaleko barne-jardueretan), eta hogeita batgarren artikularen artean (kontratazioari buruzko agiri guztiak euskaraz idazteko derrigortasuna)". Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 1eko epaiak, halaber, (Mallabiako udaleko ordenantza) bereizkeriatzat jotzen du, bereizkeria nabarmentzat, Udaleko inprimaki ofizialak jendeari hasiera batean euskara hutsez ematea eta norbaitek gaztelaniaz eskatzen duenean bakarrik ematea ele bietako bertsioa. Auzitegi Gorenaren 2000ko urtarrilaren 26ko epaiak, halaber, (Lekeitioko Udaleko ordenantza) dioenez, "komunikabideen, ahozko adierazpideen, seinaleen, administrazio-erregistroetako edukien, edo proiektuen formulazioak euskaldunei mugatzeak, Espainiako lurralde barruan, esan nahi du ez direla ezagutzen ez Konstituzioaren printzipioak...ez Auzitegi Gorenaren doktrina... eta ofizialkidetasuna autonomi lurraldean kokatuta dauden aginte publiko guztiei dagokiela aldarrikatzen du; hori guztia ahaztu gabe arrazoi bat edo bestea dela

eta euskara ez dakiten edo menperatzen ez dutenei -gutxi ala asko izan-egiten zaien bereizkeria nabarmena”.

Hala ere, Beasaingo Udalak "euskaraz bizi eta jarduteko" hartu zuen Erabakian norberaren eta gizataldearen hizkuntz eskubideen errespetua eskatzeko puntua eransteagatik aurkeztutako inpugnazioaren aurrean Auzitegi Gorenaren 1998ko urriaren 14ko Epaiak adierazten du Erabakiak ez duela ordenamendu juridikoa urratzen, "udalaren barneko eta kanpoko jardueran euskararen erabilera bakarra eta derrigorrekoa" bazter uzten baitu.

Era berean, dagoeneko aipatu dugun 1999ko martxoaren 8ko Auzitegi Gorenaren epaiak ulertzen duenez, "bereizkeria da euskaraz mintzatzeko gaitasun-maila eskatzea ezinbesteko baldintza gisa Zaldibarko udal pilotalekua zaindu eta garbitu ahal izateko administrazio-emakidarako hautagaien aurre-hautespenean sartzeko. Bereizkeria da, batetik, kasu honetan ez delako funtzio publikora sartzeko ez kargu publikoren bat eskuratzen eta, bestetik, batez ere emakidadunari arduraren egokitzeko zaion zerbitzuaren kudeaketaren eta ustiatketaren zenbaterainokoak eta edukiak, baldintz orrietako 3. artikulua araberak, ez duelako justifikatzen euskara jakitea "ezinbesteko baldintza" izatea. Izan ere, kasu honetan euskara ez dakiten hautagaiak baztertuta geratzen dira eta emakidadunaren kalitatea eta eginbeharrak ez daude lotuta euskara jakitearekin; euskara ez jakiteak ez dio frontoiaren erabiltzaileek euskara erabiltzeko duten eskubideari traba handirik egingo. Horrek arrazoitzen du, EKko 14. artikulua aplikazioz, estatuko abokatuak inbokatzen dituen gainerako aginduekin lotuta, hala egokituz gero, apelazio-errekurtsoa baiestea eta, ondorioz, errekurtsoa jarritako epaia errebokatzea eta udal erabaki hori deuseztatzea”.

Bestalde, administrazioen arteko harremanei dagokienez Mallabiako udalaren ordenantzak autonomia erkidegoan kokatuta zeuden administrazio guztiei -baita Estatuko administrazio periferikoari ere- agiri guztiak euskaraz bidaltzeko eskatzen zien. Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 1eko epaiak adierazi zuen

"Estatuko administrazio orokorrari euskara erabiltzera derrigortu nahi izatea ez datorrela bat Konstituzioko 3. artikularekin, ez Autonomia Estatutoko arauekin, ez Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legearekin ere.

Bide beretik doa Auzitegi Gorenaren 2000ko otsailaren 10eko epaia, Abaltzisketako Udalak hartutako erabaki bat, "Udal Euskaldunen Mankomunitatea deritzanaren estatutuak behin betiko onesteari" buruzkoa, epaitzen duena. Auzitegi Gorenak dioenez euskararen garapena eta sustapena ezin ditu mankomunitate batek gauzatu. Geroago emandako epaiek errepikatzen dituzten argudioen arabera, mankomunitateak obrak egiteko eta udal-eskumeneko zerbitzuak eskaintzeko bakarrik eratu daitezke "eta argi dago euskararen erabilera sustatzea eta garatzea ez dela inolako herrilana eta, bestalde, zerbitzu bat izan daitekeela uler baliteke ere (eta hori zalantzazkoa baino gehiago da), udal-eskumeneko zerbitzua izan beharko luke mankomunitateak eskaintzekoa. Eta zerbitzu hori ez da udal-eskumenekoa, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutoaren arabera; (...) euskararen erabilera garatzeko xedea edo jarduna autonomia erkidegoaren eskumena da".

Dirulaguntzen eta hobari fiskalen eremuan ere, Auzitegi Gorenaren ekainaren 22ko epaiak gaitzetsi egiten du Lizartzako Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa. Epai horren iritziz Toki Ogasunei buruzko 1988ko Legeak toki-tributuen hobari fiskalak mugatzen ditu lege-mailako arauetan zehatz-mehatz aurreikusten direnetera, eta ordenantza argi eta garbi sartzen da debekatuta daukan horretan, errotuluak ezartzeagatik ordaindu behar den tasaren gaineko hobaria sortzen du eta. Hala ere, horrek ez du oztopatzen Zerbitzuen Erregelamenduak toki-korporazioei ahalmenak aitortzea dirulaguntzen arloan, hori egin ahal izateko beharrezko lege-babesa beharko baita, kasu honetan derrigorrezkoa, eta ez da gertatzen Estatuko abokatuak dioenez".

Ez da hau une egokia Auzitegi Gorenak azkenaldian eman duen jurisprudenziatik eratortzen den doktrinari aurka egiteko edo bestelako argudio

juridikoak emateko (adibidez, hobari fiskalen azkeneko kasuan, Auzitegi Gorenak ez dio erreferentziarik egiten Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 26. artikulua eskain dezakeen lege-babesari); doktrina horren berri ematea zen helburua, abiapuntuko errealitatea zein den hobeto jakiteko. Gainera, salbuespen puntualen bat izan ezik, ezin da esan jurisprudenzian berrikuntza handirik dagoenik; laurogeita hamargarreneko hamarkada osoan gutxi gorabehera ezaguna izan dugu⁵¹. Une honetan garrantzitsua da egungo jurisdikzio-organo gorenaren jurisprudenzia ezagutzea, euskararen arloan, ondoren Eusko Legebiltzarretik zein erantzun juridiko eman daitekeen aurkitu ahal izateko, azaldu dugun jurisprudenziako doktrinarekin bat ez datorren heinean.

4. BEHARREZKO LEGE-GARAPENA NORMALKUNTZAKO EKIMENAK AURRERA ERAMATEKO TOKI-EREMUKO HERRI-ERAKUNDEETAN, GEHIENGO EUSKALDUNA DUTEN GUNEETAN BEREZIKI

Lerroalde honetan eremu honetako lege-neurri espezifikoak aipatzen dira. Lehenengo neurria, zalantzarik gabe, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen araudi orokorra malgutzea izango da, toki-administrazioen jardunean erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera bateratuari dagokionez, gehiengo euskalduna duten guneetan. Toki-administrazioan du euskararen erabilerak bizitasunik handiena, eta etorkizunean erabilera hori gehitu daiteke eta komunikatzeko benetako tresna edo benetako hizkuntza bihur daiteke, nahitaez gaztelaniarekin batera joan beharrik gabe, nahiz eta gaztelania erabili behar duten edo nahi duten pertsonak ez diren diskriminatu behar, administrazioarekin ad extra harremanak edukitzeko hizkuntza ofizial denez.

Aurreko lerroetan azaldu da bi hizkuntza ofizial izateak ez duela esan nahi herri-administrazio guztiek beren jarduera guztiak hizkuntza bietan idazteko

⁵¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpen judizialez ari gara, I. Agirreazkuenagak lan honetan xehetasunez aztertu dituen euskarari buruzko udal ordenantzei buruz: "Administración Local y Lengua. Referencia especial al caso vasco", Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica, 263 zk., 1994, 433-440. orr. eta "Administrazio Foral eta Lokalaren ezaugarriak Euskararen normalizazio bidean", Revista Vasca de Administración Pública, 44 zk. (II), 1996, 222-231 orr.

derrigortasuna dutenik. Ikusi dugu jurisprudenzia irizpide hori berresten duela eta dagoneko onartua dagoela beste autonomia erkidegoetako legedietan, eta bai Estatuak toki-araubidez emandako arauetan ere. Beraz, onar daiteke lege-mailako arau bat, euskara hutsezko erabilerari bermea emateko gehiengo euskalduna duten gunetako barne- nahiz kanpo-jarduerak babesteko. Legearen bitartez ahalmena emango zaie egoera soziolinguistikoak bidea ematen dielako euskara hutsez jardutea erabakitzen duten udalei, hala egin ahal izan dezaten.

Nabarmendu nahi dugu euskara hutsez jarduteak ez duela esan nahi gaztelaniaren erabilera debekatzen denik. Konstituzioak eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutoak zehazten duten hizkuntz ofizialkidetasunaren araubidean herritarrei aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea ziurtatzen zaie eta, horrenbestez, eskubide hori betetzea araubide juridikoaren elementu saihestezina da, edozein herri-administrazioetan.

Lege-araubidea planteatu daiteke Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legeari dagokion xedapena erantsita, horrela lege hori izango da euskararen erabilera administrazioetan arautuko duena. Esparru horretan gogoeta egin beharko litzateke, nahiz eta txosten honen xedetik kanpo dagoen gaia izan, elebitasunaren araubidea tokikoak ez diren beste administrazioetan malgutzea komeni den ikusteko. Adibide bat jartzearren, administrazioen arteko harremanetan euskara hutsaren erabileraren erabateko balio juridikoaren aipamen zehatza (administrazio guztien artean egin daitezkeela "gutxienez" euskaraz) legean sartzea egokia den baloratu behar litzateke.

Etorkizunean udal lege bat ere egin daiteke, beste autonomia erkidego batzuetan egin denaren antzera, toki-administrazioan euskararen erabilera lege horren bidez arautzeko.

Oinarrizko lege-neurri horretatik abiatuta, gainerakoek erreferentziaz hartu beharko lukete, sensu contrario, txosten honetako aurreko lerroaldean aztertutako jurisprudenzia, jurisprudenzia hori teknikoki sortzea ezinezkoa

izango baitzen, Eusko Legebiltzarrak onartutako lege batek lege-babesa emango balio toki-ordenantzetan egituratutako erregulazioari, baina beti ere -behin eta berriro esan den bezala- Administrazioarekin harremanak izateko gaztelania hautatzen duten administratuen bereizkeria eragozten bada.

Zehatzago esanda, Eusko Legebiltzarraren legeak honako hauek ziurtatu beharko lituzke gehiengo euskalduna duten guneeetan: derrigorrezko hizkuntz eskakizunak eskatzea funtzionarioei, lan-legepeko langileei edo kontratatutakoei⁵²; herriko zerbitzu publikoetan euskararen erabilera ziurtatzea, kudeatzailea administrazioa bera balitz bezalaxe; tokiko pizgarri fiskalak eta hobariak lege-babesa edukitzea; tokiko dirulaguntzak ematerakoan hizkuntz irizpidea kontuan hartzea; autonomi emakida bidez emandako komunikabideetan euskara izatea erabilitako hizkuntza bakarra; herriko hizkuntz paisaia "gutxienez" euskaraz egotea; udal lurraldean kontsumitzaile euskaldunen hizkuntz eskubideak errespetatzea; bake-epaitegietan, notariotzan, jabetz erregistroan, edo Estatuko administrazioaren menpeko beste edozein erakundetan euskal hiztunek inola ere ez jasatea diskriminaziorik, ez atzerapenik ahozko edo idatzizko harremanetan euskara erabiltzeagatik.

Aipatu ditugun gai gehienak sakonago aztertuta daude txosten honetako beste lerroalde batzuetan, batez ere gizarteko komunikabideei buruzko edo ekonomi eta gizarte-arloko eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko tituluetan; horietan euskararen erabileraren normalkuntzaren hainbat alderditan aurrera egin

⁵² Hori dela eta, Kataluniako udal eta toki-araubideari buruzko 8/1987 Legeak, 1/1998 Legearen bidez emandako idazkeran, ezartzen duenez toki-korporazioetako langileei buruz ezartzen duenez "Hautaketa-prozesuan katalana menperatzen dela egiaztatu behar da, eta Val d'Araneko toki-erakundeetan baita aranera ere, ahoz zein idatziz, lanpostu bakoitzari eginkizunen arabera dagokion mailan (294.2 art.). Honako hau ere ezartzen da: "Kataluniako toki-erakundeek katalana ahoz eta idatziz menperatzeko eskakizuna sartu behar dute Estatu-mailako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako lanpostuetarako lehiaketako deialdiaren oinarrietan" (310.2 art.).

Galiziako toki-administrazioa arautzen duen 5/1997 Legeari dagokionez, honako hau dio Estatu-mailako gaikuntza duten funtzionarioei dagozkien lanpostuei buruz: "Bai toki-korporazioek eta bai Galiziako Xuntak lehiaketaren oinarrietan sartu beharko dituzte galizieraren ezagutza nahikoa bermatzen duten ezaugarri haztatuak, beren lanpostuetako eginkizunak betetzeko" (240.3 art.). Eta, toki-korporazioetako gainerako funtzionarioak hautatzerakoan: "Toki-administrazioako lanpostuetara sartzeko egiten diren hautaketa-sistemetan galiziera menperatzen dela egiaztatu beharko da (245. art.).

daitekeela ondoriozta daiteke, Eusko Legebiltzarrak sektoreko legegintzako hainbat neurri onartuz gero.

VIII. TITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KOKATUTAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

1. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN NEURRIAK, EUSKARA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KOKATUTA DAGOEN ESTATUKO ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioenez "beharrezkoa da plan espezifikokoak martxan jartzea euskararen erabilera sustatzeko Estatuko Administrazioak izan eta EAEn kokatuta dauden erakundeetan, batez ere Justiziako Administrazioan". Horri buruz gogoan izan behar da hizkuntzaren arloan eskumenen banaketaren arabera, autonomi erakundeei dagokiela barruko edukia eta euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoak ezartzea; baina Estatuko Administrazioan hori burutzea Estatuko Administrazioari berari dagokio, eta orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Estatuko Administrazio periferikoan gertatu den bezala erkidegoko berezko hizkuntza erabili nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatzeko aukera emango duen plangintzarik egiten ez bada, autonomi erakundeek badute aukera Estatuaren erabakiak aurkatzeko, eskumena duen jurisdikzioaren aurrean.⁵³

Estatuko administrazio periferikoko funtzionarioen lanpostuak hornitzeko autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzak ezagutzeari buruzko arauak

⁵³ Enric Argullolek dagoeneko esan duenez "La competencia legislativa de la Generalidad de Cataluña para establecer normativas lingüísticas y "normalizar" el catalán" artikuluan; Estudios jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística, Bartzelona, Generalitat de Catalunya. Institut D'Estudies Autònoms, 1999, orr: 40-41.

ematen dituen 1990eko uztailaren 20ko Agindua onartu zuen Herri Administrazioetako Ministerioak (uztailaren 24ko BOE). Hala ere, agindu hori ez da aplikatu eta autonomi erakundeek ere ez die auzitegiei agindua aplika dezan eskatu, horniketako deialdiak inpugnatuz. Dena dela, etorkizunari begira arlo judizialean jarrera beligerantea izan ala ez, autonomi erakundeei dagokie legez zehaztea, xehetasun gehiagorekin, ofizialtasunarekin lotzen diren eta Estatuko administrazio periferikoak Euskal Autonomia Erkidegoan errespetatu behar dituen hizkuntz eskubideak.

Datozen epigrafeetan aztertuko dugu zein diren Eusko Legebiltzarrak arlo honetan onar ditzakeen xedapenak. Horretarako lerroalde espezifikoko bat izango dugu Justiziako Administrazioarako, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian azaltzen denaren arabera.

2. BEHARREZKO LEGE GARAPENA EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EKIMENETAN AURRERA EGITEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KOKATUTA DAGOEN ESTATUKO ADMINISTRAZIOAN

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legeak hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak eskumena duten organoen arabera sustatuko ditu euskara pixkanaka normalizatzeko arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako Estatuko administrazioan. Baina, orain arte, xedapen horren porrota itzela izan da eta esan daiteke, okerrik egiteko beldurrik gabe, euskarak praktikan ez duela ofizialtasun-statusik Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako Estatukoa Administrazioan.

Ondoren aztertuko ditugu arreta handiena merezi duten lehentasuneko gaiak zein izan behar luketen, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetatik ahalegin bat egin ahal izateko.

2.1. Hizkuntz eskubideak arautzea

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen hirugarren xedapen gehigarrian Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko organo eskudunek egindako hitzarmena aipatzen da, euskararen erabilera Estatuko Administrazioan pixkanaka normalizatzeko, "lege honetako 6., 8., 11, 13. eta 14. artikuluetan arautzen denerako". Horrela artikuluko hauek guztiak pixkanaka aplikatzeko aukera zabaltzen da -ez hitzez hitzeko edukietan ezaugarri hori ezartzen duten 6. eta 14. artikuluko bakarrik-. Baina, gainera, uler daiteke artikuluko horietako edukia hitzarmenak lortzeko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko administrazioen arteko lankidetz tresnak formulatzeko aplikatzen direla. Azken finean euskararen ofizialtasunaren ondorioak Estatuko Administrazioan *moteltzen edo nabarmentzen* duten elementuak dituzte arauak, eta horrek argitasuna kentzen dio herritarren hizkuntz eskubideen definizioari arlo horretan.

Badakigu, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokiela euskararen ofizialtasunaren kontzeptuaren berezko edukia ezartzea. Horrek Estatuko Administrazioaren organoak ere lotzen ditu, horiei dagokie eta ezartzea. Horrenbestez, Eusko Legebiltzarraren eskumena da Estatuko Administrazioak zein hizkuntz eskubide ziurtatu behar dituen argi eta garbi ezartzea. Horrela, adibidez Kataluniako Hizkuntza Politikari buruzko Legearen 12. 2 artikuluko ezartzen duenez "pertsona guztiek dute eskubidea Kataluniako Estatuko Administrazioarekin aukeratzen duten hizkuntza ofizialean izateko harremanak eta arreta jasotzekoa, ahoz eta idatziz. Ezin zaie inolako itzulpenik eskatu."⁵⁴

Lege-erregimenak gutxienez bermatu behar du ez dadila oztopatu -gainerako herri-administrazioetan bezala- administratuek aukeratzen duten hizkuntzan

⁵⁴ Gai horri arautzea Kataluniako Hizkuntza Politikako Legean gauza berria da aurreko legeak, Hizkuntzaren Normalkuntzarako 7/1983 Legeak xedatutakoarekin alderatuz gero. Izan ere, lehengo legeak EEALko hirugarren xedapen gehigarriak jasotzen duen planteamenduaren antzekoa zuen eta honela zioen: "Generalitatek katalanaren erabileraren normalkuntza sustatu behar du Estatuko administrazio periferikoan, eskumena duten organoekin bat..." (xedapen osagarri bakarra)

izatea harreman aktiboa eta pasiboa, arretoa eta erantzuna, ahoz eta idatziz. Ezin izango zaie inolako itzulpenik eskatu, ez atzerapenik eragin prozedurak euskaraz kudeatzean eta izapidetzean, inork ezin baitu zalantzan jarri Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietako edozeinetan egindako idatzi eta jarduera guztien baliotasunaz eta eraginkortasunaz. Bestalde, lege-erregimen hau ez litzateke kontraesanean egongo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean prozeduretako hizkuntza arautzen duen 36. artikuluan xedatutakoarekin ⁵⁵.

2.2. Pertsonalaren hizkuntz gaitasuna

Aurreko atalean adierazten genuenez, EEALren Hirugarren Xedapen Gehigarriak, besteak beste, 14. artikulua aipatzen du, hau da, Administrazio lanpostuetan sartzeko euskararen ezaguera eskatzea edo baloratzea arautzen duena. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, EEALaren Hirugarren Xedapen Gehigarria garatuz, honako hau ezarri du: "Eusko Jaurlaritzak, eskumena duten organoekin bat etorriz, Euskadin kokatutako Estatuko Administrazioan euskararen erabilera arian-arian normalizatzeko neurri egokiak hartzea sustatuko du. Horretarako, bai lanpostuen baldintzak zehazteko egitekoak, bai dagozkion egokitzapen-planen formulazioa, dekretu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetarako ezarritako irizpide berdinen arabera egitea bideratuko da, administrazio periferikoko sektore ezberdinen izaera eta

⁵⁵ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 36. artikulua, 4/1999 Legeak egindako idazketan ezartzen du:

"1. Estatuko administrazio orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira. Dena den, interesdunek autonomia erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete, autonomia erkidego horretan kokatutako estatuko administrazio orokorreko organoetara jotzen dutenean.

Kasu horretan, interesdunak aukeratutako hizkuntzan izapidetuko da prozedura. Prozeduran interesdun bat baino gehiago bada eta hizkuntza bera aukeratzen ez badute, prozedura gaztelaniaz izapidetuko da. Dena den, interesdunek eskatutako agiri edo lekukotasunak beraiek aukeratutako hizkuntzan emango zaizkie.

2. Autonomia erkidegoetako eta tokiko erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, kasuan kasuko autonomia-legedian ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.

3. Herri-administrazio instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli behar ditu agiriak, espedienteak edo horien atalak, autonomia erkidegoko lurraldetik kanpo ondorioz izan behar badute, eta interesdunei zuzendutakoak, espresuki hala eskatzen badute. Ez dago itzuli beharrik, gaztelania ez den beste hizkuntza ere ofiziala bada ondorioak izan behar dituzten autonomia erkidegoan."

berezitasun funtzionalek eskatzen dituzten beharrezko egokitzapenak eginez.” (hirugarren xedapen gehigarria). *Desideratum* bat zainpean uztera datorren araua da, hau da, administrazio periferikoan beste euskal herri-administrazioetan erabilitako irizpide berdintsuen arabera hizkuntz plangintza ezartzea, eta zehazki, *lanpostu-baldintak zehazterakoan*. Horrek asmoa dauka administrazio periferikoko hizkuntz plangintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioen plangintza antolakidetasunez ezartzea. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren eta eskumena duten estatuko organoen arteko lankidetzara jotzen du, oraingoz gauzatu ez den lankidetzara, alegia.

Halere, Estatuko arauetan ere, lanpostuak hornitzerakoan hizkuntz eskakizunak eskatu ahal izateko oinarriak jartzeko hizkuntz plangintzaren beharra antzematen da, hain zuzen ere, aipatutako baina erabili ez den 1990eko uztailaren 20ko Herri Administrazioen Ministerioaren Aginduan.⁵⁶

Legezketasuna beteko ez balitz, Erkidegoko erakundeek -herritarren hizkuntz eskubideen bermea zaintzea ardura dutenak- inpugnatu beharko lituzkete auzitegien aurrean autonomia erkidegoko berezko hizkuntza ezagutzea baloratzen edo eskatzen ez duten lanpostu-horniketarako deialdiak.⁵⁷

2.3. Erregistro publikoak

Azken buruan, Autonomia erkidegoan kokatutako Estatuko Administrazioko

⁵⁶ 1990eko uztailaren 20ko Aginduak honako hau ezarri zuen: "Ministerioetako sailek zehaztuko dute, gobernu-ordezkaritzek proposatuta, zein lanpostutan den derrigorrezkoa autonomia erkidego bakoitzeko hizkuntza ofiziala jakitea, lanpostu bakoitzaren edukia kontuan hartuta, eta lanpostuen zerrendetan hizkuntzaren baldintza ere adieraziko da.(2. art.), bai eta "Autonomia erkidego bakoitzeko berezko hizkuntza jakitea merezimendu gisa baloratuko da honako hauekin harreman zuzena duten lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko: a) Jendaurrekoak izatea. b) Agirien sarrera eta erregistroa. c)Jendearengandik hurbil dauden eta harremanak sarri izan dituzten kudeaketa-jarduerak. d) Hizkuntza jakitea garrantzitsua duten jarduerak. Horretarako, Gobernu ordezkaritzek urtero txosten bat egingo dute, Estatuko Administrazio periferikoan autonomia erkidego bakoitzeko hizkuntza ofizialak duen ezarpen-mailari buruzkoa. Ministerioetako sailek kontuan hartuko dituzte txosten horiek, puntu honetan adierazten diren lanpostuak zehazteko (3. art.). Horrezaz gain, "Arau hauetako hirugarren puntuan adierazten diren lanpostuak hornitzeko lehiaketarako deialdiek hizkuntza ofizialaren ezagueraren balorazioa edukiko dute, merezimendu espezifikoarekin (4.1. art.) .

⁵⁷ Horri dagokionez Kataluniako Hizkuntza Politikaren Legeak honako hau ezarria du: " Generalitatek zaindu egin behar du Estatuko gainerako aginte publikoen araudiak eta administrazio-jarduerak Konstituzioaren eta Estatuaren ordenamendua eta lege honetako errespetatu dituzten (...)" (zazpigarren xedapen gehigarria)

erregistro publikoak aipatu behar ditugu, batez ere Erregistro Zibila, Merkataritza Erregistroa eta Jabetza Erregistroa, horien guztien erregulazio materiala Estatuaren eskumena baita (EKko 149.1.8. art.).

EEALak horiexek aipatzen ditu 7. artikuluan, eta, aipatutako hirugarren xedapen gehigarrian araututakoarekin batera, honako hau ezartzen du:

“2. Autonomia erkidegoaren menpeko ez diren herri-errolategietan, Eusko Jaurlaritzak, gaitasunaren jabe diren jardutze-sailekin elkar hartuz, euskararen erabilpena arauzkotzea sustatuko du.

3. Horiek erakusteko eta/edo horiekiko egiaztapen-agiriak egiteko, Euskal Herriko Autonomia erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetarako itzulpenaren bermea emango da.”

Estatuko legeei dagokienez, Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 86. artikulua, maiatzaren 8ko 628/1997 Errege Dekretuak emandako erredakzioan, ezartzen duenez, "ez gazteleraz ez kasuan kasuko autonomia erkidegoetako gainerako hizkuntzetan erredaktatuta ez dauden agiriak" itzuli egin beharko dira. Alde horretatik, *a sensu contrario* onartzen da gaztelaniaz ez beste hizkuntza ofizialetan dokumentazioa aurkeztea, eta, era berean, zenbait eredu ofizial elebidun onartu dira.⁵⁸ Bestalde, aipatutako erregelamenduaren 298.6. artikulua, idazpenetan gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzea akats formaltzat jotzen du. 1784/1996 Errege-Dekretuak onartutako Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduak ez dio ezer gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialetan agiriak aurkezteari buruz⁵⁹, baina 36.1. artikuluan

⁵⁸ Esaterako, jaitza adierazteko galdera-sorta, Justizia Ministerioaren 1999ko azaroaren 10eko Aginduz onartutakoa, edo bizirik egotearen eta egoeraren fede emateko zenbait eredu eta akten egiaztagiri laburtu eta hitzez hitzekoen ereduak, Justizia Ministerioaren 1989ko uztailaren 20ko Aginduz onartutakoak.

⁵⁹ Horri buruz Konstituzio Auzitegiak honako hau esan du: "Bada, ez Merkataritza Erregistroko arautegiak ez beste ezein arauzko xedapenek ez diote behartzen Erregistroan agiri bat katalanez aurkezten duenari aurretik gaztelaniara itzultzea. Isiltasun horrek esan nahi du benetan autonomia erkidegoko hizkuntzan idatzitako agiriak aurkez daitezkeela erregistroan eta erregistratzaileak horixe hartu beharko duela kalifikazioa eta idazpena egiteko oinarri. Merkataritza Erregistroko arautegiaren isiltasunak ez du bestelako interpretaziorik egiteko biderik ematen, gaztelania ez beste berezko hizkuntza duten lurraldeetako hizkuntzen ofizialkidetasunetik eratorzen diren ondorioen arabera. Ondorio horien artean dago, auzitegi honek berriz ere esan duenez eta lehenagoko oinarrietan gogora ekarri dugunez, herritarrek edozein administrazioarekin harremanak gogoko duten hizkuntza ofizialean izateko duten eskubidea. (87/1997 Epaia, 5. Zuz.Oin.)

Esparru horretan ere, Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 1996ko maiatzaren 8ko Ebazpena aipatu daiteke, Merkataritz Erregistroetan gordetzeari begira aurkeztu beharreko urteko kontuen nahitaezko ereduak gainerako

argi zehazten du idazpenak gaztelaniaz erredaktatu beharko direla. 1947ko otsailaren 14ko Errege-Dekretuak onartutako Hipoteka Erregelamenduaren 37. artikuluan arautzen denez, erregistroari dagokionez "gaztelaniaz erredaktatuta ez dauden agiriak" edo "latinez eta Espainiako dialektotan edo antzinako idazkeraz edo erregistratzaileak ulertzeko modurik ez badago, itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira..... Erregistratzaileak, nahi izanez gero, eta bera erantzule bakarra dela, ez da beharrezkoa izango itzulpen ofiziala egitea, beti ere, dagokion hizkuntza, dialektoa edo antzinako hizkuntza ezagutzen badu."

Erraz ikus daitekeenez, aipatutako xedapenek osatzen duten arau-panorama heterogeneoa da eta ez dator beti bat hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren erregimenarekin. Horregatik, komenigarria izango litzateke horiek aldatzeko ekimenak sustatzea ⁶⁰, eta horretarako, egokiena liteke berezko hizkuntza dituzten beste autonomia erkidegoekin elkarlanean aritzea. Estatuaren arauak direnez, guztion ahaleginak koordinatzea fruituak ekar litzake (Aseguru Kontratuaren Legea 18/1997 Legearen bitartez aldatu zenean bezalaxe).

Eusko Legebiltzarrak, hizkuntz normalizazioaren arloan dituen eskumenak erabiliz, egin litzakeen legeei dagokienez, gogoratu behar dugu Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 24ko 87/1997 Epaia ⁶¹, Kataluniako Generalitateak,

hizkuntza ofizialetera itzultzea arautzen duena: "Konstituzioak Espainian gaztelaniaz gain hitz egiten diren gainerako hizkuntzei, dagokien autonomia erkidegoetako lurraldeetan aitortzen dien ofizialkidetasunarekin bat, beharrezkoa da eredu horiek elebidunak izatea (...)"

⁶⁰ Horrekin lotuta, Kataluniako 1/1998 Legeak honako hau dio: "[Generalitatek] katalana eremu guztietan erabili ahal izateko oztopo diren edo herritarren erabateko hizkuntz berdintasuna mugatzen duten Estatu-mailako arauen lege-aldaketa bultzatzea behar du." (zazpigarren xedapen gehigarria)

⁶¹ Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 3ko 103/1999 Epaian, Estatuaren menpeko erregistroetako hizkuntz erregimenaren konstituzionaltasuna aztertzen da, Marken Legearen aurka aurkeztutako errekurtsioen ondorioz. Kataluniako Legebiltzarraren errekurtsioan aurkeztutako arrazoibideen arabera, Marken Legearen 16.3. artikulua ("jabetza industrialeko erregistroan aurkeztekoak diren eskabideak nahiz agiriak gaztelaniaz idatzita egon beharko dute. Beste hizkuntza ofizial bat ere baduten autonomia erkidegoetan agiri horiek gaztelaniaz egoteaz gain beste hizkuntza ofizialean ere idatzi ahal izango dira") Kataluniako Autonomia Estatuaren 3.2. art. eta Espainiako Konstituzioaren 3.2. art. urratzen ditu ez baitu aintzat hartzen Kataluniako herritarrek Kataluniako Autonomia Erkidegoan kokatutako botere publikoekiko harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea. Konstituzio Auzitegiak ez du onartu arrazoibide hori honako hau esanez: "eskabide eta agiri horiek jabetza industrialeko erregistroan aurkezten dira. Organo hori nazionala eta bakarra da, Estatuaren menpekoa, eta Madrilen du egoitza, nahiz eta, aurretik aipatutako zuzenbideko oinarrietan, batzuk eta besteak gai horretan eskumena duten autonomia erkidegoetako organoetan aurkeztu ahal izan. Ez da, beraz, autonomia erkidegoan kokatuta dagoen organoa, KAren 87/1997 Epaia adierazten zituen lurraldeko merkataritz erregistroak ez bezala (4. eta 5. oinarri juridikoak). Legearen arabera, erregistro nazional bakarrak berak egin behar ditu inskripzioak eta, erregistroa bakarra denez Estatuaren lurralde osorako, Espainiako lurralde osoko herritarrei eman behar die bertara iristeko aukera. Horrenbestez, ez doa Konstituzioaren aurka Legeak eskabidearen ale bat nahitaez lurralde osokoa den hizkuntza ofizialean aurkezteko eskatzea".

Merkataritza Erregistroa onartzen zuen abenduaren 29ko 1897/1989 Errege-Dekretuaren 36.1. artikulua aurka aurkeztutako errekurtoa ebatzen duena. Horrek hitzez hitz dioenez, 1784/1996 Errege-Dekretuak onartutako erregelamenduaren egungo erredakzioarekin bat datorrena, nahitaezkoa da idazpenetan gaztelania erabiltzea. Auzitegiak esandakoaren arabera, Estatuak Autonomia erkidegotan kokatutako lurralde merkataritza erregistroetako hizkuntzaren erabilera arautzerakoan, hizkuntz ofizialtasun eta normalizazioaren klausula orokorrak bete behar ditu, eta alde horretatik, Estatuko legeek ezin dute ahaztu katalanez erredaktatutako agiriek, merkataritzako erregistroei dagokienez, gaztelaniaz erredaktutakoek daukaten eginkortasun eta baliozkotasun berdina izan behar dutela. Nolanahi ere, Auzitegiaren ustetan, idazpenak gaztelaniaz erredaktatu beharra ez doa printzipio horren aurka.⁶²

Auzitegiaren iritziz, Estatuak bere eskumenak erabili zituen, honako hau arrazoituz: "funtsezko eskumena bat duen erakunde titularrak arlo-esparru horretan hizkuntzaren erabilera ere arautzeko eskumena dauka, eta, ez bakarrik antolakuntza eta barne-jarduerari dagokionez, bai eta administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan ere." (4. oinarri juridikoa). Egia esan, hori baieztatuz, epaia Auzitegiak berak aurretik emandako epaietan formulatutako doktrinatik aldentzen da, esaterako, apirilaren 24ko 74/1989 Epaia, Estatuak Katalana eskritura publikoetan erabiltzea arautzen

⁶² Auzitegiak honako hau aitortu du: "Egia esan, Konstituzioaren eta Estatuaren esparruan badaude Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 36.1 artikuluan ez diren beste aukera batzuk, eta Espainia osoan publizitatea egiteko beharrak ere ez du eragozten bestelako formulak erabiltzea, beste eremu batzuetan egin den bezala. Argi dago Estatu osoko publizitatea gaztelaniaz egin behar dela idazpenetan Estatuak garrantzitsu irizten dituen datuetako hizkuntza delako; eta publizitate hori Merkataritza Erregistro Nagusiarean eta hark argitaratzen duen buletinaren bitartez egiten da, batez ere. Baina, esan bezala, bestelako formulak ere erabil daitezke, adibidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 36.1. artikuluan Estatuko Administrazioarako jasotzen den moduan edo Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.2 artikuluan Justizia administrazioarako jasotzen den moduan" (5. oinarri juridikoa).

Dena den, Auzitegiak onargarritzat jotzen du aipatutako 36. artikulua jasotzen duen aukera ere, eta honela dio: "Izan ere, inskripzioko, eta ez transkripzioko, erregistro-sisteman, aspaldidanik egon den eta oraindik ere dagoena Espainian, "idazpenetan jasotzen diren agiriak", Merkataritza Erregistroko arautegiak behin eta berriz adierazi duenez, erregistroan amaitzen dituzte eraginak, kalifikazioa eta erregistro-inskripzioa egiteko oinarri direnez. Idazpena egiten den unetik aurrera, egintza horixe da Merkataritza Erregistroaren beraren eraginak sortzen dituen. Horrela, bada, idazpenetan jasotzen diren agiriek beren eraginak amaitzen badituzte erregistroan aurkeztu diren unean, eta kalifikazioarako eta inskripzioarako oinarri badira, hortik ateratzen den ondorioa da, agiri horiek katalanez idatzi badaitezke itzulpenaren beharrik gabe, katalanez idatzitako agiriek gaztelaniaz idatzitako eraginak eraginak sortzen dituzte. (...) Egia da gaztelania ez den beste hizkuntza batean aurkeztu ondoren, idazpena gaztelaniaz egingo dela baina, esan bezala, idazpena egiten den unetik agiriak agiri denez sortuak izango ditu eragin guztiak erregistroaren aurrean, edozein hizkuntzatan egonda ere" (5. oinarri juridikoa).

duen apirilaren 17ko 125/1984 Dekretuaren aurka aurkeztutako errekurtsioa, hau da, Estatuaren eskumen eskusibokoa den gaia, kasu honetan gertatzen den bezala, Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua indarrez ("erregistro eta tresna publikoen antolamendua"). Auzitegiak, kasu horretan, ez zituen onartu Estatuaren ordezkarien arrazoibideak eta Dekretuaren baliozkotasuna sendetsi zuen honako hau adieraziz: "hizkuntzen ofizialkidetasunaren egoeran, Konstituzioaren 3. artikulutik eta EACren 3. artikulutik datozena alegia, autonomia erkidegoen hizkuntz normalizazioaren eskumenaren erabilerak Estatuaren beste eskumenek mugatutako gaietara eragiten die nahitaez". Irizpide horretan autonomia erkidegoari legeen arloan jarduteko aukera argiro aitortzen bazaio ere, 74/1989 Epaia, aldiz, ikusi dugunez, ez dator bat horrekin. Dena den, azken epai horretan ere badira hainbat eta hainbat baieztapen Auzitegiaren aldetik Autonomia Erkidegoaren eskumenaren aldekoak. Orain arte esandakotik argi ateratzen da duda-mudak daudela Konstituzio Auzitegiaren doktrinan.⁶³

Labur esanda, aipatutako epaiak ikusita, badirudi ez dagoela eskumen-problemarik Eusko Legebiltzarraren aldetik euskararen ofizialtasunaren ondorioen legezko erregulazioan, Estatuaren menpeko erregistroen esparruan, bereziki, herritarrek Erregistroarekiko harremanetan, aktiboki zein pasiboki, hizkuntza ofizial bat edo beste aukeratzeko duten eskubideei dagokionez, bai eta, aurkeztutako dokumentazioaren erabateko baliozkotasunari dagokionez, berdin duela zein hizkuntza ofizialetan idatzita dagoen.⁶⁴

⁶³ Nahiz eta 87/1997 epaiaren erabakia eta 74/1989 epaian jasotako ondorioak bat ez etorri, badira azken honi buruzko aipamen ugari 74/1989 epaian. Izan ere, esan liteke bi epaiok bat datozela erabilitako arrazoibide askotan, nahiz eta ondorio ezberdinak atera. Horrela 87/1997 epaian zehazten denez, funtsezko eskumena Estatuari dagokionean: "gaztelania ez berezko beste hizkuntza bat duten autonomia erkidegoak ez daude erabat araudi honetatik kanpo. Izan ere, Konstituzio eta Estatuak neurriak eta, batez ere, hizkuntzen ofizialkidetasun-erregimena arautzeari begira agintzen dienaren arabera, gaitasuna ematen diete Konstituzio Auzitegiaren beste ebazpen batzuetan "ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukia" edo "ofizialkidetasunaren norainokoa" izenarekin ezagutzen dena ezartzeko, hau da, hizkuntza baten ofizialtasunak bere baitan dakartzan ondorio orokorrak, erakunde eskumendunek (...) "prius" gisa bete behar dituztenak ofizialkidetasunaren legezko erregulazioa "abian jartzeko antolamendu jakina" ezartzerakoan (...) Ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukiaren ondorioei dagokienez Auzitegiak honako hau dio: "besteak beste, herri-administrazio guztiekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntz eskubideak eta -betebeharrak ezartzea, -adibidez, horiekiko harremanetan dagokion erkidegoan ofizialak diren hizkuntzetako edozein erabiltzeko eskubidea- eta hizkuntza horietan idatzitako dokumentuen ondorio juridikoen benetako berdintasuna aldarrikatzea" (4. oinarri juridikoa).

⁶⁴ Konstituzio Auzitegiaren 87/1997 Epaian jasotzen denez. Ikus aurreko oharra.

Hala ere, erregistro-idazpenen hizkuntz erregimenaren erregulazioari dagokionez, begibistakoa da segurtasun juridiko gutxiko plazan sartuko ginatekeela.⁶⁵

Azken aipamen bat Erregistroko bulegoetako langile hizkuntz gaitasunari dagokionez.⁶⁶ Arauen aldetik ez da euskara aipatzen arlo horretan ⁶⁷ Alde horretatik, Kataluniako Hizkuntza Politikaren Legeak ezarri duenez “erregistroetako bulegoek gauza izan behar dute herritarrei ofizialak diren bi hizkuntzetan erantzuteko, eta, horretarako, ezaguera egokia eta nahikoa duten

⁶⁵ Kataluniako Hizkuntz Politikaren 1/1998 Legeak 17. artikuluan jasotzen ditu horri buruzko arauak. Hori irakurrita agerian dago legegileak ofizialtasunaren ondorio guztiak arautzeko aukera egin duela, erregistro-idazpenei dagokienean ere. Artikulu horren testua transkribitzen dugu hitzez hitz:

“1. Baliozkoak dira hizkuntza ofizial bietako edozeinetan egindako erregistro-idazpenak. 2. Kataluniako erregistro publiko guztietan, administrazio-erregistroak salbu, idazpenak, adierazpena egiten den edo dokumentua idatzita dagoen hizkuntza ofizialean egin behar dira. Dokumentua elebiduna bada, erregistroan aurkeztu duenak adierazitako hizkuntzean egiten dira. 3. Erregistratzaileek, eskarian erabilitako hizkuntza ofizialean egin behar dituzte ziurtagiriak. 4. Erregistro-bulegoek gauza izan behar dute herritarrei bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan erantzuteko eta hizkuntzok nahiko eta egoki ezagutzen dituzten langileak izan behar dituzte, euren lanpostuen berezko funtzioak betetzeko bide emateko moduan. 5. Erregistro-bulegoko edozein idazpen, interesdunak eskatutako hizkuntza ofizialera, ahoz edo idatziz, berehala eta fidagarritasunez interpretatu eta itzuli ahal izatea bermatu behar da. 6. Erregistro-bulegoetan jendearen eskura dauden formulario eta gainerako inprimakiak, gutxienez, katalanez idatzi behar dira.”

Aholkularitz Kontseiluaren irizpenak arau horri buruz dituen zalantzak jasotzen ditu, bereziki 17.2. artikulua lehen intzisoari dagozkionak. Lehenengo eta behin, bere iritziz, xedapen horrek, ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukia ezartzen du besterik ez, Estatuak gai horretan duen eskumena hautsi gabe. Gainera, bere ustetan, arau horretan jasotako erregulazio materiala koherentea da ofizialtasun bikoitzaren printzipioarekin, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 36.1. artikulua errespetatzen ez duena alegia.

Halere, segidan honako hau dio: “irizpide honek bi eragozpen ditu: a) ez dator bat Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin. Izan ere, horren arabera autonomia erkidegoak hizkuntz arloan -Estatuaren eskumenpeko gaietan- “printzipioak” ezarri behar ditu, eta, Estatuak printzipio horiek jaso eta bere antolakundean aplikatu behar ditu; eta b) apirilaren 24ko 87/1997 Konstituzio Auzitegiaren Epaiaren aurka doa, guztiz.”

Arrazoi horiek direla-eta, erredakzioa aldatzeko gomendioa eman zuen –gero gomendioari jarraitu ez zitzaion arren–, izan ere, erregistro publikoetako idazpenak dagozkien agiriak idatzita dauden hizkuntza ofizial berean idatzi behar diren arren, “Generalitateak Estatuaren arauen aldaketa bultzatu behar duela” erantsi behar baita, arauok helburu horren oztopo direnean. Kontseiluaren ustetan formulazio hori seguruagoa da konstituzionaltasunaren aldetik.

Bassols i Parés kontseilariak adierazitako boto partikularrean Aholkularitz Kontseiluaren gehiengoaren tesia kritikatzeko da: “erabateko kontraesana dago irizpenaren arrazoiak eta argumentuen artean”. Izan ere, bere ustetan, erabilitako arrazoi bideek arauaren konstituzionaltasunaren aldeko ondorio batetara eramaten gaitu, eta beraz, ez da bidezkoa hori aldatzeko gomendiorik ematea.

⁶⁶ Erregistro zibilar dagokionez, kontutan hartu behar da Justizia administrazioiko langileen hizkuntz gaitasunaren erregimena, geroago aztertzen dena.

⁶⁷ Euskara kontutan ez hartzea arazo orokorra da. Izan ere, hizkuntz gaitasuna ez da inolaz ere kontutan hartzen -ez eta gehiengo euskalduna duten eremuetan ere- funtzio publikoen jardun pribatuan. Jakina denez, funtzio horiek, honako hauek burutzen dituzte, besteak beste: notarioek, jabetz eta merkataritz erregistratzaileek, merkataritzako artezkariek, portu-praktikariek, erregistro zibileko medikuek edo jabego industrialeko agenteek; eta, nahiz eta funtzio horiek dituzten autonomia erkidegoek hizkuntz ofizialtasun bikoitza izan, ez da inolako aurreikuspenik egin autonomia erkidego horren berezko hizkuntzari dagokionez, ez lanpostu horietan sartzeko ez eta lanpostu horiek hornitzailekoan. Dударik ez, apurka-apurka konponbide bat bilatu beharko zaio egoera irregular horri. Lehenik, gehiengo euskalduna duten eremuetan bete beharreko postuak hornitzailekoan euskara ezagutzea gaitasun-baldintzat eskatzeko bidea eman beharko da, mende-hasieran notarioen kasuan egiten zen bezala.

langileak izan behar dituzte, hau da, lanpostu horien berezko funtzioak betetzeko gai direnak” (14.5. artikulua). Era berean, “bermatu behar da erregistro-bulegoan segituan eta fidagarritasunez interpretatu edo itzuli daitekeela edozein idazpen interesdunak eskatutako hizkuntza ofizialera”.

3. EUSKARAREN ERABILERA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN NORMALIZATZEKO EKIMENAK BULTZATZEKO BEHAR DEN LEGE GARAPENA

3.1. Sarrera

Ez dirudi inork argudio juridikorik azaltzen duenik Justizia Administrazio elebiduna izateko beharrezana, herritarrek auzitara jotzen dutenean nor bere hizkuntzan egiterik izan dezan. Era berean, ziurtzat jotzen da Botere Judiziala gaur egun ez dagoela prest erronka horri aurre egiteko. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak berak, 1997. urtean Justiziaz onartu zen Liburu Zurian, nabarmendu zuen auzitegiaren eta ingurunearen arteko aldea, arlo horretako langileen hizkuntz prestakuntza urria dela-eta.⁶⁸

⁶⁸ Jarraian, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 1997ko irailaren 8an onartutako Liburu Zuriaren hitzez hitzeko zenbait pasarte jaso ditugu interesgarriak direlakoan:

“Jarduera jurisdikzionala zein gizarte-ingurumenetan garatzen den kontuan hartzea funtsezkoa da bulego judizialari konfigurazio egokia emateko. Izan ere, modu arinean egokitu behar zaio. Funtsezko adibideetako bat hau da: hizkuntza ofizialkideak ezagutzea. Herritarrek berezkoa duten hizkuntzean adierazteko eskubidea daukate.

Espainia Estatuan hizkuntza bat baino gehiago izateak erreformak sortarazi ditu herri-administrazioetan. Horren adibide argia dugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Hala ere, Justizia administrazioa, alde horretatik, isolatuta geratu da eta bere jarrera orokorrean gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak erabiltzearen kontrakoa izan da.

Iragazkaiztasun horren arrazoiak asko eta anitzak dira. Besteak beste, honako hauek azpimarratu daitezke: arlo juridikoak hizkuntza aldatzearen aurka izaten duen berezko joera; hizkuntza ofizialkideetako informatika-tresnen urritasuna; funtzionarioen mugikortasun handia eta material juridikoaren urritasuna autonomia erkidegoaren berezko hizkuntzan.

Halere, ukaezinak diren zailtasunen gaineratik, nahitaezkoa da herritarrek autonomia erkidegoaren lurraldean hizkuntza ofizialkidea erabiltzeko duten eskubidea bermatzea, Konstituzioaren 3.2. artikulua zehaztutakoaren babespean. Horrek, halaber, egoki diren erreformak egitera behartzen du. Txosten honen beste atal batzuetan aipatzen badira ere, atal honetan erreforma garrantzitsuenak adierazten dira.

Autonomia erkidego jakin batean justizia administrazioaren funtzio publikoan sartzerakoan pizgarriak jarri behar zaizkio hizkuntz ezaguerak dituztenei. Justizia administrazioako Kidegoetarako lehiaketak lurraldeka bereiztea orokortu behar da, eta autonomia erkidego jakin batean lan egiten duten funtzionarioei erraztasunak eman behar zaizkio hizkuntza ofizialkidea eta berezko Zuzenbidea ezagutzeko. Bulego judizial bakoitzean hizkuntz eskakizuna duten plazak sortu behar dira, herritarri berak aukeraturako hizkuntzean erantzun ahal izateko. Horretarako, egoki diren prestakuntz sistemak sustatu beharko dira. Inprimaki judizialak, gaztelaniaz gainera, hizkuntza ofizialkideetan ere idatzi behar dira. Informatika-sistemak bide eman behar du dagokion autonomia erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzak aukeran erabiltzeko, eta ezinbestekoa da apirilaren 14ko 489/1997 Errege-Dekretuak aipatutako hitzarmenak egitea. Azkenik, itzulpen-zerbitzuak bultzatu behar dira eta behar beste baliabide eman behar zaizkie itzultzeko eta interpretatzeko jasotzen diren eskaera guztiei arin erantzun ahal izateko. Horretarako, autonomia erkidegoekin hitzarmenak egiteko bide guztiak urratu beharko dira.

Neurri horiek, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua egungo erredakzioari egin beharreko aldaketekin eta beste ukitze-erreforma batzuekin batera, adibidez, Prozedura Zibileko Legearen 601. artikulua, eta

Hurrengo ataletan Justizia Administrazioak euskararen erabileraz duen araubide juridikoa aztertuko dugu, baita bertako langileen hizkuntz prestakuntzari buruzko arauak aztertu ere, beti ere helburua euskararen erabileraren normalkuntzan aurrera egiteko ekin beharreko lege-garapenak aztertzea izanik. Aldez aurretik, aipamen labur bat egingo dugu arlo horretako eskumenen banaketaren inguruan.

3.2. Hizkuntz normalizazioaren arloko eskumen-araubidea Justizia administrazioan

Justizia administrazioari dagokionez, EEALaren 9. artikulua honako hau dio:

- Artículo 9. 1. Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
2. Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritz jardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.
3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien jardutze-sailekin elkar hartuta, Euskal Herriango Epai-Arduralaritzaren euskararen erabilpena arauzkatzea sustatuko du.

Horrela, euskal legegileak, bere eskumenak erabiliz, Konstituzio Auzitegiak⁶⁹ sendetsitakoaren arabera, Justizia administrazioaren ofizialtasun bikoitzak bere baitan dakartzan ondorioak atera ditu, herritarren eta Justizia administrazioaren

ezinbestekotzat jotzen dira herritarrek Justizia-Administrazioarekiko harremanetan aukeratzen duten hizkuntza ofizialkidea erabiltzeko eskubidea gauzatzeko. Muga bakarra hau da: alderdiek ados jarrita aukeratzen duten hizkuntza ofizialean prozesua tramitatzeko duten eskubidearekiko begirunea.”

Aipatutako apirilaren 14ko 489/1997 Dekretuan, Estatuaren legeak argitaratzerakoan autonomia erkidegoen hizkuntza ofizialkideek duten tratamendua arautzen da. Horretarako, 2.1. artikuluan honako hau ezarri da: “Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 6. artikuluan ezarritako esparruan, Estatuako Gobernuak eta autonomia erkidegoen gobernu-organismoek lankidetz hitzarmenak egin ahalgo dituzte lege-mailako Estatuaren arauen itzulpena, edizioa eta banaketa elkarlanean egiteko. Oraingoz behintzat ez da gai horri buruzko hitzarmenik izenpetu Estatu Administrazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

⁶⁹ *Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak honela esan zuen 82/1986 Epaian: “10/1982 Euskal Legearen 9. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ez da ezartzen inola ere justizia administrazioan euskara erabili beharra, eta Euskadiko Autonomia Estatuaren 6. artikuluan euskara erabiltzeko zehaztutako eskubideak bere baitan dakartzan ondorioak adierazten ditu besterik gabe. Beraz, artikuluko hori ez da konstituziokontrakoa eta ez du Estatuaren eskumenpeko inolako esparrurik inbaditzen, ez baitu inolako gai prozesalari buruzko ezer arautzen. Begibistakoa denez, 3. zenbakia ere ez da konstituziokontrakoa, hau da, Euskal Herriko Justizia administrazioan euskararen erabilera normalizatzea dagozkion organoekin bat etorri sustatzeko betebeharra Eusko Jaurlaritzaren esku izan da.” (11. oinarri juridikoa)*

arteko harremanetan bi hizkuntza ofizialak aukeran erabiltzeko eskubidea arautuz.

Konstituzioak Estatuaren esku uzten ditu Justizia administrazioaren (EKko 149.1.5. art.) eta legedi prozesalaren (EKko 149.1.6. art.), eskumen osoa. Nolanahi ere, jurisprudentzia konstituzionalak bi modutan bereizten du Justizia administrazioa, hertsiki eta zabalki ulertuta, alegia. Horrela, Justizia administrazioaz hertsiki hitz egiten dugunean ulertzen dugunarekin identifikatzen den funtsezko nukleoaren aurrean, badira nukleo horretan sartzen ez diren hainbat baliabide pertsonal eta material -Justizia administrazioaren edo "Justizia administrazioaren Administrazioaren" zerbitzurako baliabideak-, autonomia erkidegoek euren eskumenen barruan har ditzaketenak, esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 13.1. artikuluan jasotako "subrogazio-klausula"ren indarrez⁷⁰.

Beraz, bateratu beharrekoak dira, batetik, Estatuaren eskumena, eta, bestetik, Autonomia Erkidegoak euskararen ofizialtasun-erregimena ("ofizialkidetasun kontzeptuaren berezko edukia" arautzea) arautzeko duen eskumena, Konstituzio-Auzitegiak berariaz adierazi zuen bezala. Izan ere, Konstituzio-Auzitegiak konkurrentetzat jo zuen Estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumena Justizia Administrazioan erabili beharreko hizkuntzak arautzeari dagokionez.⁷¹

⁷⁰ Konstituzio Auzitegiak gai horri buruz emandako doktrina gehiena, honako epai hauetan jasota dago: uztailaren 29ko 108/1986 Epaia, martxoaren 29ko 56/1990 Epaia, martxoaren 30ko 62/1990 Epaia, eta apirilaren 13ko 105/2000 Epaia.

⁷¹ Judizio-egintzetako hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 231. artikulua aurka aurkeztutako alegazioei erantzunez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren aurka Kataluniako Legebiltzarrak, Galiziako Xuntak eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako konstituziokontraotasunaren errekursoak ebatzi zituen 56/1990 Epaia honela dio:

"Organo errekurtsogileek legeari jartzen dioten erreparoa hau da: autonomia erkidegoek berezkoa duten eskumen baten aitoraz sartzeari, hots, tokian tokiko hizkuntzen erabilera arautzea. (...) Gai horren inguruan, hein batean baino ez bada ere, doktrina ezarri joan da Euskadiko, Kataluniako, Galiziako eta Balearretako hizkuntza normalkuntzako legeen aurkako errekursoak ebatzi zituzten epaiak direla medio (KAre 82, 83 eta 84/86 eta 123/88 Epaia, hurrenez hurren). Horiek horrela, ebazpen horietako lehenean adierazi zenez, hizkuntzen erabilera arautzeko esparrua Konstituzioa (3. art.) eta autonomia-estatutuak dira, eta ondorengo araubidea konstituziotasunaren ildotik joan behar da. Hortik aurrera, bai Estatuak, bai autonomia erkidegoek arautu ahal izango dute, zeinak bere eskumeneko esparruan. Eskumen konkurrentea da, beraz. Ebazpen horretan bertan deliberatu zen Justizia Administrazioa hizkuntzen erabilera, eta hau jasotzen da: Konstituzioaren arabera Justizia Administrazioa (149.1.5 art.) eta legeria prozesala (149.1.6 art.) Estatuaren erabateko eskumenak direnez, Estatuak arautu behar du hizkuntzen erabilera Justizia Administrazioan, inolaz ere ukatu gabe autonomia erkidegoek ofizialkidetasunaren nondik norakoa arautu ahal dutenik, Konstituzioaren 3.2. artikuluan eta autonomia-estatutuetan jasotzen denez. Bide horretatik doaz zenbait autonomia erkidegok emandako hizkuntza normalkuntzako legeak (Euskadikoaren 9 art.; Kataluniakoaren 9 art.; Galiziako 3/83 Legearen 7 art.; Balearretako 3/86 Legearen 11 art.). Hortik atera daitekeen ondorioa zera da: hizkuntzen erabilera arautzeko

3.3. Justizia administrazioan euskararen erabilera arautzea

EEALaren 9. artikuluz gain, Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 231. artikulua ere judizio-egintzen hizkuntza arautzen du.⁷² Judizio-egintza guztietan gaztelera erabili beharko dela adierazi ostean, onartzen da epaileek, magistratuak eta, orokorrean, funtzionario judizial guztiek gainerako hizkuntza ofizialak erabiltzea, beti ere, alderdiak babesik gabe uzten ez baditu. Legez lehentasuna ematen zaio gaztelerari⁷³, nahiz eta Justizia administrazio

eskumena bakar baten erabateko eskumena ez denez, konkurrentea baizik, Estatuak dauka eskumena hizkuntzen erabilera arautzeko Justizia Administrazioan, 149.1 artikularen 5 eta 6 puntuen eskumen-erreserbak kontuan harturik; hori dela-eta, LOPJren 231 artikulua ez da sartzen autonomia erkidegoen eskumenen esparruan" (5. oinarri juridikoa).

⁷²Botere Judizialaren uztailaren 1eko 5/1985 Lege Organikoaren 231. artikulua (azaroaren 8ko 16/1994 Lege Organikoak aldatu zuena) hitzez hitz errepikatzen da urtarrilaren 7ko Judiziamendu Zibilari buruzko 1/2000 Legearen 142. artikuluan:

- “1. Judizio-egintza guztietan, epaileak, magistratuak, fiskalak, idazkariak eta epaitegi zein auzitegiak gainerako funtzionarioak gaztelaniar baliatuko dira, hori baita Estatuaren hizkuntza ofiziala.
2. Epaileak, magistratuak, fiskalak, idazkariak eta epaitegi zein auzitegiak gainerako funtzionarioak autonomia erkidegoko berezko hizkuntzan ere mintzatu ahal izango dira, alderdietako batek ezetz esan ezean, ezagutzen ez duela eta babesgabe geratzen dela argudiatuz.
3. Alderdiak, beren ordezkariak eta abokatuek, baita lekukoak eta adituek ere, judizio-egintzak gauzatzen diren autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialak ere hitz egin ahal izango dute, bai ahozko bai idatzizko adierazpenetan.
4. Autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizialean egindako judizio-egintzak eta aurkezturiko agiriak guztiz baliozko eta indarrezkoak izango dira, gaztelaniara itzuli beharrik izan gabe. Eragina autonomia erkidegoan dauden organo judizialen jurisdikziotik haratago doanean, administrazioaren kabuz itzuliko dira agiriak eta egintzak, non eta hizkuntza bera ez den beste erkidegoko berezko hizkuntza. Halaber, legeetan ezartzen den kasuetan, eta alderdiaren batek babesgabetasuna alegatzen duenean itzuli egingo dira jarduteak.
5. Ahozko jarduteetan, epaileak edo auzitegiak hizkuntza ezagutzen duen edonor interprete izenda dezake, zin edo promesa egin eta gero.”

4. idatz-zatiak, 16/1994 Lege Organikoak onartu zuena, konstituziokontraotasunaren errekurtsoa jaso zuen, horren arabera organo judizialek ezingo baizuten beren kabuz autonomia erkidegoaren berezko hizkuntza ofizialean erredaktutako idazkiak itzultzeko agindu. Horiek horrela, epaile eta magistratuak dagokion berezko hizkuntza ofiziala ezagutu beharko lukete dagokion autonomia erkidegoko postuetan lan egin ahal izateko. Konstituzio Auzitegiak, apirilaren 13ko 105/2000 Epaian adierazi zuenez, araua ez zen Konstituzioaren aurkakoa: “Izan ere, organo judizialeko titularrek, bertako hizkuntza ezagutzen ez dutenean, eragin prozesala duten idazki edo agiriak ofizioz itzultzeko agindua ematerik ez dutela esatea, botere jurisdikzionala erabiltzen eragoztearen parekoa izango litzateke, eta botere hori Konstituzioaren 117.3 artikulua aitortzen die haiei modu esklusiboan (...). Ondorioz, Konstituziotasuna aztertzen ari den aurreko xedapenean jasotako ahalmena —epaileak nahierara itzultzeko agindu ahal izatea— aldatzen bada ere, epaileak eta magistratuak, 16/1994 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren, autonomiatako hizkuntzetan idatzitako agiriak itzultzeko agindua eman ahal dute, eta eman behar dute; baldin eta beharrezkoa denean denei babes judiziala emateko (Konstituzioaren 117.1 eta 3. art.), hala agintzen baita Konstituzioaren 24.1 artikuluan. Horrela interpretatuz gero, LOPJren 231.4 artikulua ez doa EKko 3, 117.1 eta 149.1.5 artikuluen aurka.” (12. oinarri juridikoa)

⁷³ Konstituzio Auzitegiaren BJLOri buruzko 56/1990 Epaia, honela dio horri buruz: “Aztertzeke geratzen da konstituziotasunaren esparru materiala hausten den ala ez aipaturiko xedapenean hizkuntzei dagokienez. Hori dela-eta, jartzen zaion erreparatu bakarria autonomia erkidegoko berezko hizkuntza "hondar-hizkuntza"tzat edo "bigarren mailakotzat" jotzea da. Hala eta guztiz ere, eta lehenago aipaturiko ebazpenetan ezarritako doktrina, batez ere lehenengo ebazpenean ezarritakoa berriro ere aintzat hartuz, ez dago konstituziotasunaren blokearen hausterik hizkuntzei dagokienez.

Gaztelania esparru orokorreko hizkuntza ofiziala denez, eta espainiar guztiek ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutenez (EKko 3.1 art.), hizkuntza hori izaten da Justizia Administrazioan eskuarki erabiltzen dena, eta hori bera aitortzen da LOPJren 231.1 artikuluan. Dena dela, orokortasun horren ondoan badaude zenbait autonomia erkidego hizkuntz ofizialkidetasuna dutenak, eta horren ondorioz, berezko hizkuntza erabili ahal izango da herri-administrazioen barruan eta horiekiko harremanetan, hala aitortzen baita, Justizia Administrazioari dagokionez, LOPJren 2 eta 3 idatz-zatietan. Horrek dakarren ondorioa zera da: autonomia erkidego horien bi hizkuntza ofizialak

funtzionarioek aukera duten beste hizkuntza ofizial bat erabiltzeko.⁷⁴ Gainera, ELan jasotakoaren antzera, alderdiek, berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan, nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta judizio-egintzen baliozkotasuna eta eginkortasuna aitortuko da, berdin duela zein den erabilitako hizkuntza ofiziala.

Eusko Legebiltzarrak, bere eskumenak erabiliz, legeak egin ditzake arlo horretan, baina beharrezkoa da (KAre 87/1997 epaian erabilitako hitzak berriz erabiliz) "hizkuntz normalizazioaren arloan autonomia erkidegoek duten eskumenaren" eta "Estatuaren arlokako eskumenen" artean oreka lortzea. Zehazki esanda, eremu judizialean, ikuspegi formal batetik, ezin da eragotzi Estatuko legegileak judizio-egintzetan hizkuntza ofizialen erabilera arautzea. Baina, era berean, autonomia erkidego elebidunetan, legegileak zenbait obligazio ezar dakioke Justizia administrazioari, alegia, herritar guztiok berezkoa duten hizkuntza erabiltzeko bermeak jartzea —Estatuko arauetik krontraesanik gabe— eta berdintasunezko arreta publiko judiziala ematea, berdin duela zein hizkuntza ofiziala erabiltzen duten.

Alde horretatik, adibidez, Galiziako hizkuntz normalizazioaren Legeak (3/1983 Legea) zehaztutakoaren arabera, Galiziako autonomia erkidegoaren lurralde-esparruan, herritarrek galegoa edo gaztelera erabil dezakete Justizia administrazioerikiko harremanetan, eta judizio-egintza guztiak baliozkoak izango dira eta ondorio juridikoak ekarriko dituzte berdin duela zein den erabilitako hizkuntza ofiziala. "Nolanahi ere, alderdiak edo interesdunak eskubidea izango du argibideak edo jakinarazpenak aukeratu duen hizkuntza ofizialean jasotzeko" (7. art). Bada, horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren 84/1986

pareko egoeran daude. Alderdietako baten eskariz botere judizialeko kideek eta Justizia Administrazioiko langileek gaztelaniaz hitz egin behar badute (2 idatz-zatia), eta zenbait jardute edo agiri itzuli behar badira, ez da horregatik hausten hizkuntz ofizialkidetasuna, konstituziotasunaren blokean diseinaturik dagoen bezala".

⁷⁴ "Legearen arabera, bada, hasierako lehentasuna ematen zaio gaztelaniari auzitegiaren eta, halatan, botere publiko horretako langileek beste hizkuntza ofizialen bat erabiliz gero, bigarren maila batean izango da orokorrean. Hori horrela izanik, ezin da esan gabe utzi —batez ere eskuarki betetzen ez delako— jarduteen eragina auzitegien mugetatik haratago doanean, eta argitaratu behar direnean (boletinetan edo egunkarietan) edo jakinarazi behar direnean, ofizialkidetasun bikoitzaren betebeharrak bete behar direla, denon ezaguna baita hala dagoela ezarrita Euskararen Normalkuntzaren Legean" Cobreros Mendazona, E. El régimen jurídico de la oficialidad del euskara, HAAE-IVAP, Oñati, 1989.

epaiak ulertu zuenaren arabera, xedapen horrek ez du Estatuaren eskumena inbaditzen (EKko 149.1.6 art.), hizkuntz ofizialtasunaren printzipioari darizkion ondorioak aitortzen baititu, besterik gabe (3. oinarri juridikoa).

Halaber, gaur egun Katalunian indarrean dagoen Hizkuntz Politikaren Legeak (1/1998 Legea) 13. artikuluan zehazten duenez, pertsona guztiek eskubidea dute Justizia administrazioarekin harremanak -ahozkoak nahiz idatzizkoak- aukeratu duten hizkuntza ofizialean gauzatzeko, eta ezin zaie inolaz ere itzultzeko eskatu. “Herritar guztiek, eskatuz gero, aukeratutako hizkuntza ofizialean jaso behar dituzte eragiten dieten epai eta ebazpenen lekukotasunak, hizkuntza dela-eta atzerapenik gabe” (13.3. art.). Horri dagokionez, esan daiteke arau horrek ez duela eskumen-arazorik sortzen, hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren printzipioari darizkion hizkuntz eskubideak aitortu besterik ez baitu egiten.

Aipatutako legek berariaz arautzen dute pertsonak euren interes zuzeneko guztiaren berri aukeratu duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea. Horrela hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidearen alderdi pasiboa aitortzen da baina ez alderdi aktiboa, ez baita inoiz ere ezarri prozedura judiziala interesdunek aukeratutako hizkuntzan bideratu beharra dagoenik.

Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntz eskubideak modu berean arautzeak argi gehiago ekarriko lioke euskarak Justizia administrazioan duen erregimenari. Edonola ere, herri-administrazio guztietan aitortutako zenbait hizkuntz eskubide esparru judizialean ezartzea baino ez luke ekarriko aldaketa horrek. Adibide baterako, Estatuak Autonomia Erkidegoaren lurraldean duen Administrazioari dagokionez, gogora dezagun Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 36.1. artikuluko bigarren paragrafoa, azken hitz tartea⁷⁵.

3.4. Karrera judizialeko kideen eta Justizia administrazioko langileen

⁷⁵ Artikulu honen testua 55. oharrean dago hitzez hitz.

hizkuntz gaitasuna arautzea

Gaur egun, ezin da antolatu, ez eta lanpostu-horniketan ere, epaile eta magistratuei ezarri beharreko euskara-maila. Karrera judizialeko kideei dagokienez, euskara ezagutzea merezimendu gisa baino ez da kontuan hartzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110, 216 bis 3, 313, 341 eta 431. artikuluetan zehaztutakoari jarraiki⁷⁶. Gainera, fiskalen eta idazkari judizialen kasuan, merezimendu gisa baloratzeak ere problemak sortzen ditu.⁷⁷

⁷⁶ Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 35.1. artikulua zehaztutakoaren arabera, euskara jakitea lehentasunezko merezimendu gisa baloratu daiteke EAEko epaileak, magistratuak eta idazkari judizialak izendatzerakoan.

Karrera judizialari dagokionez, gai hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110, 216 bis, 313, 341 eta 431. artikuluan arautzen da. BJLOren 341. artikulua adierazten duenez, berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetan, hizkuntza hori jakitea merezimendu gisa baloratuko da auzitegi nagusietako eta lurralde-azuzitegiak presidente-plazak hornitzaerakoan, bai eta "lehentasunezko merezimendu" gisa lurralde horretako jurisdikzio-organoen lehiaketetan. 110. artikulua dioenaren arabera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Legea garatzeko erregelamenduak eman ditzake. Erregelamendu horietan, besteak beste, autonomia erkidegoen berezko hizkuntza jakitea dagokion autonomia erkidegoko plaza judizialak hornitzaerakoan lehentasunezko merezimendu gisa baloratzea arau daiteke. Arau hori Karrera Judizialaren ekainaren 7ko 1/1995 Erregelamenduan garatzen da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Plenoak 1998ko otsailaren 25eko Akordioan emandako erredakzioan Horrek dioenez, berezko hizkuntza ofiziala duen autonomia erkidegoaren lurraldeko plaza batean lehiatzen duen epaile edo magistratuari, lekualdatze-lehiaketan ondorioetarako, eskalafoian duen plazari segidan datozen antzinatasun-aldiak gehituta legokion postua emango zaio: a) Epaile-kategoria duten karrera judizialeko kideak zerbitzari duten organo jurisdikzionaletako plazak betetzeko lehiaketetan: urtebete. b) Magistratu-kategoria duten karrera judizialeko kideak zerbitzari duten kide bakarreko organoetako plazak betetzeko lehiaketetan: bi urte. c) Kide anitzeko organoetako plazak betetzeko lehiaketetan: hiru urte. (Karrera Judizialaren Erregelamenduen 110. art.)

Balorazioaren ondorioetarako, hizkuntzaren ezagupena egiaztatzen duen agiri edo titulu ofiziala aurkeztu beharko da, dagokion autonomia erkidegoan eskumena duen erakundeak egina. Autonomia erkidegoekin hitzarmenak eginez, titulu ofizialak zehaztu eta, hala badagokio, hizkuntz ezagupen nahikoa egiaztatzeko frogak ezarri ahal izango dira (Karrera Judizialaren Erregelamenduen 109. art.).

Alde horretatik, aipatu beharra dago Botere Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeari buruz egindako lankidetzaren hitzarmena, 1999ko otsailaren 18an izenpetuta (E.H.A.A., apirilaren 9koa). Bertan adierazten denez, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lanpostuak eskuratzeko lekualdatze lehiaketetan euskara jakitea lehentasunezko meritutzat baloratu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren hizkuntz eskakizuna onartzen da. Ohartaraztekoa da zehaztutako hizkuntz eskakizuna bat datorrela administrari-laguntzaileen kidegoaren berezko funtzioak betetzen dituzten langileei eskatzen zaien hizkuntz eskakizunarekin. Dena den, hitzarmenaren azalpenetan honela esaten da: "...beste hizkuntz plangintzaren bat egin beharko balitz ere, zenbait neurri hartu behar lirateke, ama-hizkuntzaren ezagupena baloratzean gaitasun desberdinak mailakatzeko, eta, horrenbestez, hizkuntzaren goi-mailako ezaguera teknikoak (3. Eta 4. hizkuntza eskakizunak) izateko eta baloratzeak aukera ezarri behar litzateke."

Gainera, hitzarmen honek, karrera judizialeko kide, kidegai, behin-behineko epaile, ordezkari magistratu, ordezkari epaile eta bake-epaileentzako hizkuntz gaitasuneko ikastaroak arautzen ditu. Matrikula-kostuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak finantzatzeko zati berdinetan (2000ko abenduaren 29ko addendaren bitartez aldaketak sartu dira klausulen testuan. Aldaketa horiek operatiboak dira, HAEren eta HABEren arteko funtzioen berregokitzaren ondorioak islatzera mugatzen baitira.)

Gai horretan aplikagarria den araudiaren azalpena amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Karrera epaile, fiskal eta idazkari judizialen karreretan sartzeko lehiaketak prestatzeko sustatutako dirulaguntzen politika aipatuko dugu. Horrela, dirulaguntzak horiek arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2000ko uztailaren 31ko Aginduan zehaztutakoaren arabera (EHAA, irailaren 12koa), euskara ezagutzea merezimendutzat baloratuko da dirulaguntzak ematerakoan, 15 puntu emanda, alegia (guztira 100 puntu emango dira).

⁷⁷ Ministerio Fiskalari dagokionez, ez dira autonomia erkidego elebidunetako berezko hizkuntzen inolako aipamenik egiten, ez estatutu organikoa arautzen duen 50/1981 Legean, ez hori garatzen duen 545/1983 Errege-Dekretuan. Karrera fiskaleko ordezkariak arautzen dituen azaroaren 6ko 2397/1998 Errege-Dekretuan, aldiz, aipamen zehatza

Oraingoz, behintzat, ezin zaie inoiz ere eskatu euskara jakitea Eusko Jaurlaritzaren menpeko Justizia administrazioko funtzionarioei (ofizialak, laguntzaileak, agente judizialak, auzitegi-tako medikuak), martxoaren 1eko 410/1996 eta martxoaren 15eko 14/1996 errege-dekretuen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako pertsonala.⁷⁸

Azken horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak laster eman beharko du epaia. Izan ere, Estatuak eskumen-arazo positiboa planteatu du Eusko Jaurlaritzak martxoaren 31n emandako 63/1998 Dekretua dela-eta; dekretu horren bidez onartu egin zen justiziaren zerbitzu publikoaren eraberritzeari buruz eta horrek justizia administrazioan diharduten langileen lan-baldintzetan izango duen eraginari buruz sindikatuekin izenpetutako hitzarmena. Eskumen-arazoaren alderdietako bat da, hain zuzen ere, Dekretuak, besteak beste, hizkuntz ofizialkidetasuna bermatzea duela helburutzat, eta, horretarako, plantillak osatzeko irizpide gisa —langile horien erabateko sindikatu-akordioarekin—,

egiten da: berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan, berezko hizkuntzaren ezagupena egiaztatzen bada, gehienez hiru puntu emanaz baloratuko da, guztira 19 puntu emango direla (3.2. art.)

Idazkari judizialei dagokienez, BJLOaren 471. art. garatuz, apirilaren 29ko 429/1988 Errege-Dekretuak, Idazkari Judizialen Kideogaren Erregelamendu Organikoa onartzen duenak, adierazitakoaren arabera, ofizialkidea den hizkuntzaren ahozko eta idatzizko ezagupena -agiri ofizialez behar bezala egiaztatuta bada- kontuan hartuko da berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetako lanpostu hutsak betetzerakoan: "seis urteko aintzinasuna aitortuko baitzazio funtzionarioari, duen aintzinasunaz gain". Dena den, Auzitegi Gorenaren 1995eko azaroaren 7ko Epaia adierazitakoaren arabera, balorazio hori neurritz kanpoko zen nabarmen. Ondorioz, lanpostu hutsak betetzerakoan ez da baloratzen euskara ezagutzea, nahiz eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren 35. artikuluan lehentasunezko merezimendu gisa kontutan hartzeari buruzko aipamena egin.

Fiskalen eta Idazkari Judizialen hizkuntza prestakuntzari buruz, euskara ikasteko eskaintza Justizia Administrazioako Ikasketa Juridikoaren Zentroarekin Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten Fiskalen eta Idazkari Judizialen prestakuntzari buruz 1997ko maiatzaren 29an (urriaren 1eko EHAA) sinatu zen Lankidetzaren Hitzarmenaren 2000. Urteko Eranskinean jasota dago.

⁷⁸ Eusko Jaurlaritzako egungo langileei dagokienez, BJLOaren 471. artikulua honako hau dio: "berezko hizkuntza — ofiziala— duten autonomia erkidegoen lurraldeko justizia administrazioan diharduten langileen plazak betetzeko lehiaketetan, merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial hori jakitea, betiere erregelamendu bidez ezarriko den eran".

Gai hori, Justizia Administrazioako Ofizial, Laguntzaile eta Agenteen Kidegoetako Araudi Organikoan garatzen da (otsailaren 16ko 249/1996 Errege-Dekretuak onartuta). Sartzeko edo kanpoko hautaketan, hizkuntz azagupena egiaztatzeko froga ez-baztertzailera egin ahal izango da postuen esleipenaren ondorioetarako bakarrik (20.4. art.); barne-promozioan merezimendu gisa baloratu ahal izango da, 6 puntu gehienez (5. 2.1.e, 5.4 eta 11.2.1.e eta 11.4. art.), lekualdatze-lehiaketetan ere puntuazio bera aitortu ahal izango da, ezagupen-mailaren arabera bigarren xedapen gehigarrian zehazten denez (54.9. art.), hau da: 2. hizkuntz eskakizuna: bi puntu; 3. hizkuntz eskakizuna: 4 puntu; eta 4. hizkuntz eskakizuna: 6 puntu.

Auzitegi-tako medikuen kasuan, antzeko erregimena ezartzen da otsailaren 23ko 296/1996 Errege-Dekretuaren indarrez. Horren arabera, hizkuntza ofizialkideen ezagupena baloratuko da destinoa esleitzerakoan (4.7. art.) edo lanpostuak betetzeko lehiaketetan (20.7. eta 23. art.).

euskara jakin beharra ezartzen duela zenbait lanpostutarako.⁷⁹

Datu positibo gisa, aipatzekoa da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, egindako txostenean —alegia, Euskadiko justizia administrazioko ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoen egitura-plantillak zehazteko Aginduaren proiektuari buruzkoan—, aldeko irizpena eman duela Eusko Jaurlaritzak bidalitako plantilla-proposamenari buruz⁸⁰.

Berrikitan, onetsi egin da abenduaren 26ko 309/2000 Dekretua; xedapen horren bidez, onartu egin da Justiziako zerbitzu publikoaren modernizazioari eta horrek justizia administrazioan diharduten langileen lan-baldintzetan izango dituen ondorioei buruz sindikatuekin adostutako II. akordioa. Dekretuan adierazten denez, lanpostuak tresna, teknologia berri eta printzipio horietatik datozen lan-baldintzetara egokitzeko, plantillek beren baitan jasoko dituzte, batetik, lanpostuak eurak, eta, bestetik, lanpostuetan aritzeko bete behar diren baldintza teknikoak; berariaz aipatzen da, besteak beste, "euskaraz jakin behar dela Hizkuntza Normalizatzeko Planean zehazten diren lanpostuetan" (V. kapituluko lehenengo atala).

Halaber, VII. kapituluan, hizkuntz normalkuntzari buruzkoan, ezartzen denez, arlo honetan prozesua arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren Dekretua aplikatuko da. Bere helburua justizia administrazioan diharduten langileak euskarazko gaitasuna lortzera bideratutako jarduketa-plana arautzea izango da, betiere gaitasun hori egokia izan dadin herritar guztiek justizia administrazioarekiko

⁷⁹ Bigarren titulua, 6. kapitulua, lehenengo atala, 5. paragrafoa (plantilla eta lanpostuen zerrenda).

harremanetan dituzten hizkuntz eskubideak bermatzeko. Hizkuntza normalizatzeko planean txertatu beharko diren oinarritzko elementuen artean, besteak beste, honakoak aipatzen dira: normalizazio-planak lanpostu guztien hizkuntz gaitasuna jaso behar du; plana amaitzen denean nahitaez bete beharreko indizeak barruti judizial bakoitzaren maila soziolinguistikoaren arabera finkatuko dira; lehentasunezko jardun-eremuak finkatuko dira (jendearentzako bulegoak, erregistro zibilak, bake-epaitegiak, jakinarazpen- eta bahikuntza zerbitzuak eta %50etik gorako euskalduntze-maila duten epaitegiak eta zerbitzuak); hizkuntz eskakizun jakinak dituzten langileek berehala bete beharreko lanpostuak finkatu behar dira, dagoeneko euskaldunduta edo euskalduntzen ari diren langileen laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritza, horrela, araubideko neurriak hartuz doa, betiere estatuko legediak onartutako eskumenetan oinarrituta.⁸¹ Hala ere, antzeman daitekeenez, arauen garapen hau ez da baketsua izango. Ildo horretan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzako dekretu honi buruzko txostenean dio "euskararen jakite-maila espezifikoa lekualdatze-lehiaketan balioetsi beharko dela, merezimendu gisa, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 471. artikulua arabera, eta ez da ezinbesteko baldintza teknikoa izango plaza jakinak lehiaketan hartu ahal izateko (...)". Txostenak adierazten du, bestalde, hizkuntz eskakizuna ezartzen

⁸⁰ Txostenak adierazten du "zenbait lanpostutan aritzeko hizkuntz eskakizunak eta baldintza teknikoak zehazten dituen heinean, arrazoizkotzat jo behar dela eta bat egiten duela Justiziako Liburu Zuriaren printzipioekin". Kontseiluaren Osoko Bilkurak 1998ko uztailaren 27ko txostenean, orobat, adierazi du behin eta berriro defendatu duela, Botere Judizialaren gobernu-organotik, "autonomia erkidegoko hizkuntza organo jurisdikzionaletan erabiltzeko eskubidea, eta, aldi berean, hizkuntzaren normalizazioa bultzatu duela justiziaren administrazioan. Normalizazio horren edukiak batez ere helburu bikoitza du, batetik, herritarrek berak nahi duen hizkuntzan komunikatzeko eta hizkuntza horretan erantzun diezaioten eskubidea benetan bermatzea, eta, bestetik, prozesua justiziaren xede ona lortzeko egokiena den hizkuntzan egitea, betiere kontuan hartuta asko izan daitezkeela prozesuan parte hartzen dutenak eta asko ere horietako bakoitzaren hizkuntz jarrerak". Beraz, helburu horiek lorgaitzak dirudite, ez bada bide juridiko jakin bat arautzen justizia administrazioiko estatuko kidegoetako gutxienez zenbait plaza betetzeko prozesuetan euskara jakitea ezinbestekoa izan dadin. Bestela, arrazoizkoa al litzateke eskualde batean, biztanleen %90 euskal hiztuna den batean, justizia administrazioak ez bermatzea herritar horien hizkuntz eskubideak? Ez al litzateke bidezkoagoa izango plaza horiek betetzeko prozesuetan euskara jakitea eskatzea?

⁸¹ Horiek horrela, gogorazi behar dugu Botere Judizialaren Lege Organikoak ezartzen duela, 455. artikuluan, zein eskumen dagozkien, hala denean, autonomia erkidegoei, justizia administrazioan diharduten langileen arloan. Lege horretako lehenengo xedapen gehigarriak arloko eskumenak dituzten autonomia erkidegoak gaitzen ditu legearen garapenak eskatzen dituen erregelamenduak onar ditzaten. Bestalde, otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretuaren 50.1 eta 2 artikulua, eta otsailaren 23ko 296/1996 Dekretuaren 16.2 eta 3. artikulua kontuan hartuz, justizia administrazioiko giza baliabideen eskualdaketa jaso duten autonomia erkidegoek beren lurralde-eremuan dauden organoen plantillak eta lanpostuen zerrendak finkatuko dituzte, eta lanpostu horietako bakoitzean aritzeko funtsezko baldintzak, halakorik denean, zehaztuko dituzte.

duen dekretuak eta hizkuntz eskakizunak dituzten lanpostuak betetzeko deialdiak, nahitaez, aipatutako legezko muga errespetatu beharko dutela.

Horiek horrela, Eusko Legebiltzarrak legegintzako ekimenak bultza litzake, estatuak arlo honetan duen legedia aldatzeko lege-proposamenak aurkeztuz.

Horrela egin zuen Kataluniako Parlamentuak; izan ere, lege organikoaren proposamena aurkeztu zion Diputatuen Kongresuko Mahaiari Parlamentuan izapidetzeko. Aurkeztutako testua artikulatua zen, eta, haren bidez, aldatu egin nahi zen 6/1985 Legea —Botere Judizialari buruzkoa— (KNAO, 2000ko apirilaren 19koa). Testua 2000ko ekainaren 13an eztabaidatu zen Kongresuan (hizkuntza bera sakoneko eztabaidagai izan zela), baina ez zen onartu, proposamenak 168 boto aurka eta 152 alde jaso baitzituen⁸².

Kataluniako Parlamentuak, berrikitan, mozio bat onartu du, eta horren bidez eskatu egiten zaio Generalitateari katalanaren erabilera berma dezan Kataluniako epaitegietan. Kataluniako Gobernuak, bi hileko epean, ebazpen-proposamena aurkeztu beharko du, eta, horren ondorioz, lege-proposamena egin beharko da, Kongresuan aurkeztuko dena. Proposamenaren helburua da, batetik, katalanaren eta gaztelaniaren ofizialkidetasuna bermatzea Kataluniako epaitegietan, eta, bestetik, herritarrek aukeratzen duten hizkuntzan harrera egin diezaieten eskubidea bermatzea.

Justiziako administrazioan diharduten magistratu, epaile, fiskal, idazkari, ofizial, laguntzaile, agente eta epaitegiko medikuen hizkuntz gaitasunari dagokionez, baldin eta benetan bermatu nahi badira herritarren hizkuntz eskubideak, edozein delarik ere Justiziako administrazioarekiko harremanetan erabiltzen duten hizkuntza, ezinbestekoa da hizkuntz plangintzari ekitea. Plangintzan,

⁸² Botere Judizialaren Lege Organikoari egindako aldaketen artean, 471. artikulua aldatzea proposatzen zen; izan ere, horrela, ezinbesteko baldintzatzat joko zen hizkuntza hori jakitea berezko hizkuntza —ofiziala— duten autonomia erkidegoen lurraldeko justizia administrazioan diharduten langileen plazak betetzeko lehiaketetan eta hautapoben deialdietan. Indarrean dagoen testuak dioenez, ordea, "berezko hizkuntza —ofiziala— duten autonomia erkidegoen lurraldeko justizia administrazioan diharduten langileen plazak betetzeko lehiaketetan, merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial hori jakitea, betiere erregelamendu bidez ezarriko den eran".

besteak beste, jaso beharko da zein-nolako balioa ematen zaion erkidegoko berezko hizkuntza jakiteari edo nolako maila eskatzen den lanpostu bakoitzean; horretarako erabiliko den ereduak erreferentziatzat har dezake autonomia erkidego bakoitzeko herri-administrazioetan hasitako plangintza. Eta, adibidez, ikuspegi materialetik begiratuta, eginkizun jurisdikzionalak betetzen dituztenei dagokienez, bi talde egin beharko lirateke: karrera judizialean sartzen direnak (epaileak eta magistratuak) eta gainerakoak (bake-epaileak, ordezkooak, ordezko magistratuak eta aldi baterako magistratuak, azken hauek oraindik badiren neurrian —ikus, argigarri gisa, BJLOaren laugarren xedapen gehigarria—).

Karrera judizialaren eta gainerakoen arteko bereizketa hori egiteko arrazoia da, bada, epe laburrean errazagoa izango dela "lanbide-izaerarik gabeko" eginkizun jurisdikzionalak betetzen dituztenei —etengabeko aldaketaren mende daudenei—hizkuntz gaitasuna eskatzea, epaile eta magistratuei baino; izan ere, azken hauek eginkizun jurisdikzionaletan jarduteak berarekin dakar botere judizialaren zerbitzuan baldintza jakin batzuetan jardutea, eta horrela, zeharka baino ez da posible izaten autonomia erkidegoko berezko hizkuntzako hizkuntz gaitasunari pizgarriak ematea.⁸³

Paradoxa bada ere, une hauetan, erkidego elebidunetan, epaile eta magistratuen plazak betetzean, posiblea da kasuan kasuko erkidegoko berezko hizkuntza balioestea, baina ordezko epaile eta magistratuen plazetan, Auzitegi Gorenaren hainbat epaik —1997ko ekainaren 2koak (Azdi. 4917), 1998ko apirilaren 14koak (Azdi. 4528) eta 1998ko apirilaren 20koak (Azdi. 4527)— ez dituzte onartu Abokatuen Bizkaiko Elkargoak eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak jarritako errekursoak; errekurso horiek jarri ziren, bada, erkidegoko berezko hizkuntza balioesten ez zuten zenbait deialdiren aurka, alegia, ordezko izaerako plazak betetzeko zenbait deialdiren aurka. Auzitegi

⁸³ Aranzadiren Noticiero Jurídico-ak (19. zk., 1999ko ekainaren 10ekoak) jakinarazten du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak eskatu diola organo judizial horretako Azterlan eta Txostenen Batzordeari sistema bat ezar dezan euskal hiztun askoko aldeetan lan egingo duten ordezko epaileen eta ordezko magistratuen euskara-maila ebaluatzeko.

Gorenak, gutxienez arrarotzat jo daitezkeen argudioak erabiliz, erabaki du errekurtsua jarri zaien deialdiek bat egiten dutela Botere Judizialaren Lege Organikoarekin, eta, beraz, uste du kasu honetan ez dela era osagarrian aplikatu behar Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 35.1 artikulua ("Magistratu, epaile eta idazkarien izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoetan aurreikusten den bezalaxe egingo da, lehentasunezko merezimendua izango da euskal foru-zuzenbidea ezagutzea eta euskara jakitea, eta ezin izango da inolako salbuespenik ezarri izatasuna eta auzotasuna dela eta."), bere juzgua baita "kontraesana dagoela lege organikoaren lerruna duten bi araturen artean"⁸⁴. Auzitegiak, beraz, kontraesana dagoela iritzi dio; baina Botere Judizialaren Lege Organikoak ez du galarazten erkidegoko berezko hizkuntza merezimendutzat hartzea ordezkoko epaileak eta ordezkoko magistratuak hautatzeko lehiaketetan.

Azken finean, eta amaitzeko, komenigarri deritzogu estatuko legedia aldatzeari; izan ere, horrela, gaitasun-baldintza gisa arautu ahal izango da euskararen eskakizuna eremu horretan. Horri dagokionez, justizia administrazioan diharduten epaileak, magistratuak eta, oro har, langileak estatu-mailako kidegoetan sartuta egotea ez da aitzakia izan behar hori guztia galarazteko; ikusi bestela estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen kasua⁸⁵.

3.5. Hizkuntza normalkuntza Justiziako Administrazioan eta lurralde-eskumena zehazteko arauak

⁸⁴ Epaia horiek diotenez, "kontraesana dago lege organikoaren lerruna duten bi araturen artean, eta hori ebatzi egin behar da, kasu bakoitzean, interpretazio bidez". Baina horrek ez dio baimenik ematen salari arau horietako bat indarrik gabe uzteko; izan ere, salak ez du horretarako ahalmen juridikozionalik. Hori guztia dela-eta, ezetsi egin da administrazioarekiko auzi-errekurtsua.

⁸⁵ Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituena; 99. eta 100. artikulua. Konstituzio Auzitegiak 1989ko abenduaren 21ean emandako 214/1989 epaiak berretsi egin zuen artikulua horien konstituziozkotasuna. Artikulu horiek aukera ematen dute hizkuntza ofizialak jakitea zenbait plazatan baino ez jartzeko, eta hizkuntza horiek jakitea merezimendutzat jotzeko.

Karrera judizialeko, karrera fiskaleko eta Justiziako Administrazioiko langileak pixkanaka elebidun bihurtzera bideratutako neurriak beharrezkoak izan arren, ez dira nahikoak Justiziako Administrazioiko zerbitzu publikoan euskararen erabilera normalizatuagoa lortzeko. Hori nabarmena da Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan; Galiziarekin edo Kataluniarekin alderatuz gero, eremu horretan bertako hizkuntza erabili ahal izateko egoera kaxkarragoan dago. Indarrean dauden prozedura-arauekin, erabiltzaileek euskara normaltasunez erabili ahal izateko bermea egongo litzateke epaile eta magistratu guztiek euskara eta gaztelania, biak, menperatuko balituzte. Egoera horixe da beharko litzatekeen helburua baina ez dirudi epe ertainera lorgarria izango denik. Bien bitartean, beharrezkoa da bestelako neurriak hartu behar den planteatzea, gaur egun herritarrek Justiziako Administrazioan euskara erabili ahal izateko dituzten eragozpenetako batzuk kentzeko.

Gaur egun prozedura judizialean euskara erabiltzea prozesuaren ohiko jarduerari oztopo egiten dion zerbait da. Eta hori bi arrazoiengatik batez ere:

- Justiziako Administrazioiko itzulpen zerbitzuen kalitate-maila egiaztatuta baldin badago ere, horrek ez du konpontzen euskara erabiltzen duen aldearen kezka erantsia; hau da, epailearekin duen komunikazioak itzultzaile edo interprete baten bitartekaritza izango duela. Gorabehera horrek arartegabetasunaren printzipioari eragiten dio.
- prozesuan mugarri bat sartuz gero, nahitaez atzeratzen da prozedura judizialen jarduera.

Itzultzailea edo interpretea ezinbestekoa izango da epaileak edo alderdi guztiek alderdietako batek erabiltzen duen hizkuntza ulertzen ez duten bitartean. Baina Justiziako Administrazioak eskaintzen duen zerbitzu publikoa kalitatezkoa izan dadin, epailearen eta alderdien arteko komunikazioa ahal den heinean itzultzaile edo interprete baten bitartekaritzarik gabe eman ahal izateko,

neurriak hartu beharra dira⁸⁶. Hori horrela, lurralde-eskumena zehazteko arauak tresna egokia osa dezakete, herritarrek gaztelania ez gainerako hizkuntza ofizialak normaltasunez erabil ditzaten laguntzeko, berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan egiten diren prozedura judizialetan.

Espainiako Konstituzioak aukera ematen du, gure ustez, lurralde-eskumena zehazteko arauen artean hizkuntzaren irizpidea aintzat hartzen duten legeak garatzeko. Horretarako, Konstituzioko 24.2. artikulua aitortzen duen eskubidetik, hots, legeak aurretik zehaztutako epailea izateko oinarrizko eskubidetik abiatuko gara. Konstituzio Auzitegiak hainbat epaitan mugatu du legeak aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidearen berezko edukia. Epaitan adierazten duenez, eskubidearen berezko edukiaren barruan sartzen da arauak organoari jurisdikzioa eta eskumena orokorrean eta epaitu behar den auzia hartu aurretik egotzi beharra, baita eskumena zehazteko irizpideak jasotzea ere, horrela, auzia epaitu behar duen epaitegia edo auzitegia zehaztu ahal izateko (KAren azaroaren 8ko 101/1984 epaia). Ez da beharrezkoa lege organikoaren mailakoa izatea aurretik sortutako jurisdikzio-organoei (KAren maiatzaren 26ko 95/1988 epaia) zehaztutako eskumen orokorrak dituen jurisdikzio-eskumena emateko (KAren uztailaren 1eko 224/1993 epaia); aurretik izaera generikoa aitortuta duen eskumena zehazteko nahikoa da lege arrunta.

Ez dugu inolako eragozpenik ikusten, EKko 24.2 artikulua arabera, eskumena zehazteko arauetan prozedura-legeek aintzat har dezaten herritarrak zehaztutako berezko hizkuntza, horrela epaileak herritarrari uler diezaion, interpretearen edo itzultzailearen beharrik gabe.

Prozedura-legeetako eskumena zehazteko arauak aztertzen baditugu ikusiko dugu predeterminazio-maila ez dela berbera guztietan.

⁸⁶ Ez da gure asmoa beste herrialde batzuetako konponbideak ekartzea hona eta orain, baina gai horren inguruan gogora ekar dezakegu Kanadako hizkuntza ofizialei buruzko 1998ko uztailaren 28ko Legeak dioena: auzitegi federalen eremuan auzilari guztiek dute eskubidea prozedura batean parte hartzen duten epaileek eta funtzionarioek auzilariak aukeratu duten hizkuntza uler dezaten, interpretearen beharrik gabe.

Horrela, Prozedura Kriminaleko Legean predeterminazioa erabatekoa da eta ez zaio batere lekurik uzten alderdietako borondateari.

Prozedura Zibileko Legean (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea), aldiz, lurralde-eskumenari buruzko arauak xedapenezkoak dira eta esanbidez nahiz isilbidez justiziaren eskumenean jartzeko irizpidea da nagusia, eskumenari egozten zaion araua denez⁸⁷.

Gure ustez Prozedura Zibileko Legea aldatu egin beharko litzateke eta alderdiek epailearen eskumenean jarri arren, kontuan hartu beharko litzateke epaileak bertako hizkuntza ulertzea, itzultzailearen edo interpretearen beharrik gabe. Horrek eskatuko du, barruti jakin bat adierazi ez den kasuetan, autonomia erkidego osoko epaile elebidun eta dagokion gaiaz jarduteko eskumen objektiboa duten guztien artean txandak ezartzea.

Lan Prozeduraren Legean, ⁸⁸lan-arloko epaitegien eskumena zehazteko arauak erakusten dutenez, garrantzitsutzat jo da egileari forua hautatzeko aukera

⁸⁷ Hona aplikaziokoak diren Prozedura Zibileko Legearen artikuluetako testua:

51. artikulua. Lurralde-eskumenari buruzko arauen xedapenezko izaera.

1. Alderdiak esanbidez nahiz isilbidez barruti jakin bateko epailearen eskumenean jartzen ez direnean bakarrik aplikatuko dira lurralde-eskumena egozten duten lege-arauak. Salbuespenak dira lehenengo lerroaldeko 1, 4 eta 13. zenbakietan eta 49. artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen diren arauak, eta bai lege honek edo beste batek berariaz agindu-indarra egozten dien beste edozein arauetan ezarritako arauak ere.

2. Alderdiak auzitegien eskumenean jartzea baliozkoa eta eraginkorra dela joko da, dagokion gaiaz jarduteko eskumen objektiboa duten auzitegiak badira.

52. artikulua. Auzitegien eskumenean berariaz jartzea.

Interesdunen artean zein barrutitako auzitegiaren eskumenean jarri ituntzen eta adierazten denean esango da auzitegien eskumenean berariaz jarri dela.

54. artikulua.- Auzitegien eskumenean berariaz jartzea eta banaketa.

Alderdiek auzitegien eskumenean berariaz jartzen direnean gaiaren berri zein barrutitako auzitegi izan behar duen zehaztuko da. Barruti horretan mota bereko auzitegi bat baino gehiago baldin badago, gaien banaketak zehaztuko du zein auzitegiri dagokion auziaren berri izatea, eta alderdiek ezingo dute erabaki auzitegi jakin baten eskumenean jartzea eta besteak kanporatzea.

⁸⁸ Lan-Prozeduraren Legearen 10. artikulua honela dio:

“Lan-arloko epaitegien eskumena arau hauekin bat etorri zehaztuko da:

1. Orokorrean, zerbitzuak ematen diren tokikoa edo demandatuak helbidea duen barrutikoa izango da epaitegi eskudun, eskatzaileak berak aukeratuta.

Zerbitzuak lurralde-barruti ezberdinetako lekuetan emango balira, langileak helbidea duen epaitegien artean aukeratu ahal izango du, hau da, kontratuaren helbideari dagokiona -baldin eta bertan dagoelarik demandatua deia egiteko moduan dagoen- edo demandatuaren helbideari dagokiona.



ematea. Horrela, besteak beste, bizilekua duen barrutia aukeratu ahal izango du. Egilerari forua aukeratzeko ahalmena aitortzen zaion bezala, hau da, helbidea duen epailea aukeratzekoa, zentzuzkoa da, gure ustetan, egilearen hizkuntza dakien epailea izateko aukera ematea ere, itzultzaile edo interpretariren beharrik gabe. Epaile hori, helbidea duen barrutikoa izango da, eta, ez badago epaile elebidunik barruti horretan, autonomia erkidegoko epaile elebidun eta dagokion gaiaz jarduteko eskumen objektiboa duten guztien artean txandak ezartzen duena izango da.

Administrazioarekiko auzitarako epaitegi eta auzitegien lurralde-eskumena zehazteko arauari dagokienez, forua hautatzeko ahalmena ematen zaio eskatzaileari, Lan Prozeduraren Legean zehaztu den bezala⁸⁹. Egilerari forua aukeratzeko ahalmena aitortzen zaion bezala, hau da, helbidea duen epailea aukeratzekoa, zentzuzkoa dirudi, egilearen hizkuntza dakien epailea izateko aukera ematea ere, itzultzaile edo interpretariren beharrik gabe.

Azken finean, aipatu dugun lurralde-eskumena zehazteko arauetan antzematen denez, herritarra justizia administrazioko hartzailetzat jotzen da. Bada, planteatutako proposamenak ideia horretan oinarritzen dira eta prozedura-legeetan garatu beharreko berehalakotasuna areagotzen dute. Proposamenen bideragarritasunari dagokionez, nahikoa izango litzateke

Demandatuak bat baino gehiago badira, eta helbideari dagokion barrutikoa aukeratzen bada, egileak edozein demandaturen helbidekoa aukeratu ahal izango du.

Herri-administrazioen aurkako eskeetan, zerbitzuak ematen diren barrutian edo demandatzaileak helbidea duen barrutian dagoen epaitegia izango du eskudun, eskatzaileak berak aukeratuta.

2. Datozen paragrafoetan adierazten diren prozesuetan honako epaitegi hauek izango dira eskudun:

a) 2. artikulua b) paragrafoan aipatutako gaiari buruzkoetan: prozesuan aurkatutako esanbideko edo presuntziosko ebazpena eman den barrutikoa edo eskatzailearen helbideari dagokion barrutikoa, eskatzaileak berak aukeratuta.

b) 2. artikulua c) eta d) paragrafoetan aipatutako gaiari buruzkoetan: demandatuaren edo eskatzailearen helbideari dagokion barrutikoa, eskatzaileak edo demandatuak berak aukeratuta, aurreikuspeneko mutualitateen arteko prozesuetan izan ezik. Izan ere, prozesu hauetan, demandatuaren forukoak behar du izan.

⁸⁹Jarraian, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14.1 artikulua bigarren araua ematen dugu:

“Bigarrena. Errekurtsoan, pertsonal gaian Administrazio Publikoaren egintzak, jabetza bereziak eta zehapenak objektu direnean, eskatzaileak berak aukeratuta aurkatutako jatorrizko egintzaren egilearen helbidea edo bere bizilekua barrutian duen Epaitegi edo Auzitegi izango du eskudun.”

autonomia erkidegoan jurisdikzio zibilean, lan-arlokoan, eta administrazioarekiko auzitarakoan epaile elebidun bana egotea.

3.6. Hizkuntz normalizazioa Justizia Administrazioan eta banaketa-arauak

Justizia administrazioko hizkuntz normalizazioa errazteko neurriei buruzko arazoaren azterketa ez zen osoa izango banaketa-arauetan hizkuntz irizpidea kontutan hartuko ez balitz.

Banaketa-arauen arazoa, garrantzizkoa bada ere (banaketak, azken buruan, arazo bakoitza erabakiko duen "epaile arrunta" zein izango den zehazten du), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erregelamendu-mailako arau batez bideratu da, hau da, jarduketa judizialen alderdi osagarrien ekainaren 7ko 5/1997 Erregelamendua. Botere Judizialaren Lege Organikoak, bere aldetik, banaketa-arauen xedea eta horiek onartzeko organo eskuduna ezarri ditu, hau da, Auzitegi Nagusiaren Gobernu-Sala⁹⁰. Banaketa-arauen irizpideei dagokienez, ekainaren 7ko 5/1997 Erregelamenduaren 24.1. artikulua honela dio:

“2. Banaketa-arauek helburu izango dute zenbatekozko irizpideen arabera barruti eta jurisdikzio bakoitzeko epaitegien artean gaiak banatzea. Horretarako, organo eskumendunek euren esku dauden baliabideak erabili ahal izango dituzte banaketaren aleatoriotasuna bermatzeko.”

⁹⁰Botere Judizialaren Lege Organikoaren 167. artikulua

“1. Jurisdikzio bereko epaitegi bi edo gehiago dagoenean, gaiak, aldez aurretik finkatutako arauak jarraiki banatuko dira epaitegi horien artean. Banaketa-arauak Auzitegi Nagusiaren Gobernu-Salari onartuko ditu, dagokion jurisdikzioko Epaile-Batzordeak proposatuta. Interesdunak eskatuta, Epaile-Batzordeak, epaile bati, guztiz edo zati batean, gaiak ez emateko proposatu ahal izango du, denboraldi mugatu batez, justiziaren administrazio onaren arabera beharrezkoa bada. Akordioa Gobernu-Salari bidaliko zaio, horrek, egokia irizten badiu, onar dezan.

2. Banaketa, Epaile Dekanoak ikuskatuko du, idazkari batek lagunduta. Bestetik ere, Epaile Dekanoak, barne-gobernuko arazoak eta irregulartasunak ebatzi beharko ditu, beharrezkoak diren neurriak hartuz eta, hala badagokio, erantzukizunak eskatzen.”

Banaketa-arauak onartzeko edo aldatzeko prozedura 5/1997 Erregelamenduaren 25. artikuluan arautzen da⁹¹. 5/1997 Erregelamenduaren 27. artikuluko 24.2. artikuluko irizpideetara jotzen du sala bakoitzaren sekzioen eta espezializazio bera duen probintzia-auzitegi baten sekzioen artean auziak banatzeko arauei dagokienean.

Gure ustez, auzi-eskean edo hasierako idazkian zein hizkuntza erabili den kontuan hartzeko irizpideetako bat izan daiteke gaiak epaileen artean banatzeko orduan, baina horrek ez du esan nahi ekainaren 7ko 5/1997 erregelamenduko 24.2. artikuluan zehaztutako oinarriak bete behar ez direnik. Euskaraz aurkeztutako gaiak euskara ondo ezagutzen duten titularrak dituzten epaitegietara bideratzeak ez du kontraesanik sotzen banatzeko irizpidea kopuruaren arabera izango dela dioen printzipioarekin. Bada beste printzipio bat ere, banatzerakoan aleatoriotasuna bermatu beharra eskatzen duena, eta printzipio horren eta gaian erabilitako hizkuntza ofiziala kontuan hartzearen artean gatazkarik sortu ez dadin, dena delako barrutian eta jurisdikzian euskaraz ondo dakiten bi epaile egon beharko dira gutxienez.

Gaiak banatzeko orduan hizkuntza irizpide hori kontuan hartzeak gure ustez ez du legezotasunaren inguruko arazorik sortzen; arazoak bestelakoak dira, hau da, une honetan ba ote dagoen eskatzen dugun baldintza hori betetzerik (barruti bereko jurisdikzio berean euskara ongi dakiten bi epaile edo gehiago egotea).

Hala ere, gaiak nola banatu esaten duten arauak zela dauden zehaztuta ikusirik, era bateko zein besteko interpretazioak ere egon daitezke. Hori horrela

⁹¹ "25. artikulua.

1. Banaketa-arauen onarpena edo aldaketa honako tramite hauen arabera burutuko da:
 a) Arlokako Epaile-Batzordeari deia egitea, dagokion gai-zerrendan arazoa sartuz.
 b) Epaile-Batzordeak, arauak onartzeko edo aldatzeko proposamena dagokion Gobernu-Salari aurkeztea.
 c) Auzitegi Nagusiaren Gobernu-Salak onartzea. Aurretik Ministerio Fiskalaren txostena eskatu daiteke.
 d) Onartutako banaketa-arauak argitaratzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.a. artikuluan eta Epaitegien Gobernu-Organoen ekainaren 7ko 4/1995 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

2. Gobernu-Salek banaketa-arau berriak egiteko edo indarrean daudenak aldatzeko eska diezaiekete Epaile-Batzordeei, beti ere justizia hobeto administratzeko beharrezkoa bada. Eskaera hori egin eta hilabeteko epean Epaile-Batzordeak ez badio erantzuten eskatutako proposamenari, Gobernu-Salak egoki deritzon arauak onartuko ditu."

izanik, Justizia Administrazioiko Euskararen Egoera Normaltzeko Sortutako Erakunde Arteko Batzordean gaia aztertu eta proposamena bidezkoa zela pentsatu zutenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari txosten bat eskatu zioten. Erakunde arteko batzorde hori 1998ko apirilean sortu zen, Justizia Sailak eskatuta, eta ondorengo arloetako kideak daude bertan: autonomia erkidegoko administrazioiko ordezkariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ordezkariak, Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu-salako ordezkariak, epaileen elkarteetako ordezkariak, abokatuen euskal kontseiluko ordezkariak, fiskalen elkarteetako ordezkariak eta epaitegietako idazkarien ordezkariak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko azterlan eta txostenen batzordeak oraindik ez du gai horri buruzko txostenik idatzi, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu-salako osoko bilkuran (organo horri dagokio banaketak egiteko irizpideak zehaztea), hizkuntz irizpidea kontuan hartzea baztertzekoa zela adierazi zuten 1999ko uztailaren 19an, barruti eta jurisdikzio bakoitzeko kide bakarreko organoen artean gaiak banatzeari zegokionez.

Horren ondorioz, komenigarria izango litzateke gaiak banatzeko arauak zein printzipio bete behar dituzten lege mailako xedapen baten bidez ezartzea, eta xedapen horretan berariaz adierazi beharko litzateke dena delako gaia epaibidean jartzean erabilitako hizkuntza kontuan hartzeko moduko irizpide bat izan beharko litzatekeela bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan, beti ere ondorengo baldintza ere betetzen bada: barruti eta jurisdikzio bereko bi epaile edo gehiagok euskaraz ondo lan egiteko gaitasuna izatea.

ONDORIOAK

GOGOETA OROKORRAK

1. Konstituzioaren eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren arabera, hizkuntz araubidea eratzen duten oinarrizko printzipioak ofizialtasuna eta hizkuntzarengatik bereizkeriarik ez egitea dira; horien osagarritzat har daitezke gaztelania jakin beharra eta erkidegoko berezko hizkuntzaren printzipioa.
2. Aginte publikoen eskumenen banaketari erreparatzen badiogu, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioei dagokie euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoak legez antolatzea, baita hizkuntz normalkuntzaren helburuak lortzeko beharrezko plangintza neurriak zehaztea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistiko anitza kontuan hartuta.
3. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioak dira bertako lurraldean herritarren hizkuntz eskubide guztiak errespetatzen direla zaindu behar dutenak; beraz, euskararen erabilpena bermatu behar dute, era guztietako harreman publiko zein pribatuetan euskara erabili nahi duten herritarrentzat. Horretarako, beharrezko neurri sustatzaileak hartuko dituzte, eremu material guztietan aurrera egin dezan. Hala, “Espainiako hizkuntz modu bat, eta errespetu eta babes berezia behar dituen kultura-ondarea” denez (EKko 3.3 art.), euskara sustatzeko neurriak beste edozein instituzio publiko nahiz pribatuk ere bultzatu ditzake.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek “euskararen ofizialtasunaren kontzeptuaren berezko edukia” eta horren ondorio juridikoak finkatu ondoren, auto-antolaketako berezko eginkizunen eremukoa da euskararen erabilpena eraginkortasun eta balio osoz antolatu eta lortzeko modu zehatza

gauzatzea, autonomia daukaten instituzio publiko bakoitzean gaztelaniarekin gertatzen den erara.

5. Gaztelaniari dagokionez, Estatuko instituzio zentralak dira, beharrezkoa ikusten badute, Konstituzioko 3.1. artikulua edukiaren lege-garapena egiteko eskumena daukatena, baita aginte publiko guztietan gaztelania hizkuntza ofizial moduan erabiltzeko berdintasunerako oinarritzko bermeak arautzeko ere. Nolanahi ere, neurri horiek betearaztea autonomia daukan instituzio publiko bakoitzaren eginkizuna izango da, bakoitzaren auto-antolaketako berezko eginkizunen eremuan.

KOMUNIKABIDE SOZIALAK. INFORMAZIOKO ETA KOMUNIKAZIOKO TEKNOLOGIA BERRIAK

6. Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Legeko 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, komunikabideak arautzeko egingo diren legeetan hizkuntz normalkuntzari buruzko titulu bat sartu behar da. Hala ere, hainbat arlo garrantzitsu euskararen araubide juridikoa finkatuko duen araudirik gabe daudela nabarmendu ahal izan da.
7. Ez da hori, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatutako komunikabideen kasua –EITB-.
8. Hala ere, egoera desberdina da Autonomia Erkidegoak esleitzen dituen emakideetako komunikabideen kasuan, maiztasun-modulazioko irrati-difusioaren kasuan izan ezean, zerbitzu horretan, hizkuntzaren erabilpen-kopuruak ezartzen baitira herrietako irrati-tietan eta “hizkuntzen erabilpen-orekatua” hartzen baita kontuan kudeaketa pribatuko irrati-tietan emakidarako irizpide moduan.
9. Toki-telebista eta komunikabide digitalak (hedadura autonomikoa edo lokala duten kanalak) dira Autonomia Erkidegoaren administrazioaren eskumenen

barruko beste komunikabideen emakidak. Kasu horietan, euskararen erabilpena gehitzeko bideratutako arauak onartzea komeni da. Hizkuntz normalkuntza arautzeko eskumena izatea eta emakidak antolatzekeo eskumena dira egoki irizitako araubidea onartzeko oinarri.

10. Antzerako planteamendua egin daiteke kable bidezko telebista eta irratiaren kasuan ere, Euskal Autonomia Erkidegoari onartzen baitzaio eremu horietan programazioko edukiak arautzeko eskumena, nahiz eta emakidak esleitzeko ardura berea izan ez.
11. Ez da txosten honen egitekoa egon dauden aukeren artean bakar baten alde egitea. Argi dago, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoa dela aurreko bi paragrafoetan adierazitako eremuetan euskararen araubidea arautu behar duena, bai emanaldietako hizkuntzaren erabilpen-kopuruak finkatuz, bai emakidak esleitzeko irizpideetan euskararen erabilpena zehaztuz.
12. Estatuko gobernuaren eskumenekoak diren emakidetako kudeaketa pribatuko komunikabideei dagokienez –lurreko uhinen bidezko telebista pribatua, satellite bidezko telebista, eta komunikabide digitalizatuak (estatu osora hedatzen diren kanalak)-, Euskal Autonomia Erkidegoak euskararen normalkuntza arautzeko daukan eskumenak ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldera mugatutako emanaldietarako euskararen erabilpena arautzeko erkidegorako arautegia onartzeko aukera. Kasu horretan, ordea, arazoa praktikoa da; izan ere, estatuko araubide juridikoak eredu mistoa taxutu badu ere, estatu osoko emanaldiak lurraldeetako emanaldiekin bateragarriak izateko moduan, azken horiek, lurraldeetakoak alegia, oso murrizak dira eta ia egon ere ez dago halakorik.
13. Informazioko teknologia berriei dagokienez, gaur egun ez da ikusten sustapena arautzea baino gehiagorik egin daitekeenik. Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legean eremu horretan jarduteko berariazko oinarririk ez badago ere, legearen erredakzioaren hedapenak lege-oinarri

nahikoa eskaintzen die botere publikoei *giza bizitzako eremu guztietan* euskararen erabilpena sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jartzeko.

KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BERMEA ETA EREMU SOZIO-EKONOMIKOA

14. Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arautzeko, Eusko Legebiltzarrak onartutako lege bat behar da, Euskal Autonomia Erkidegoari hizkuntz normalkuntzarako eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako dagozkion eskumenez baliatuta (EAEko 10.28. artikulua).

15. Hizkuntz eskubideak arautzeko legeak, –bai hizkuntz normalkuntzaren legearen bidez, zein kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa arautzeko legearen bidez- eduki hauek jaso ditzake orokorrean:

- Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eskainitako produktu eta zerbitzuei buruzko informazioak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- Aurreko puntuan aipatutako informazioa era ulergarrian jasotzeko eskubidea, kontsumitzaile zein zerbitzu horien hartzaile direnei eskainitako hizkuntzan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean diharduten enprekin zein beste establezimenduekin euskaraz nahiz gaztelaniaz harremanak izateko eskubidea.
- Atxikipen-kontratuak, kontratuen ezaugarri eta baldintza orokorrak eta antzerako agiriak euskaraz jasotzeko eskubidea.

16. Kontsumitzaileen hizkuntz eskubideen araugintzari ekingo dion legearen aldetik, Eusko Jaurlaritzari euskarazko materialak egin eta zabaltzeko agindua ematea komeniko litzateke, eremu horretan hizkuntza gizartean erabiltzeko lagungarri izan dadin.

17. Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurraldean banatutako produktuen etiketei dagozkien hizkuntz araubidea arautu lezake, batetik, hizkuntz normalkuntzari buruz dauzkan eskumenez baliatuta, bestetik, barne merkataritzan, jatorrizko izendapenetan, eta publizitatean dauzkan eskumenez baliatuta (EAEko 10.27. artikuluan jasotakoaren arabera), eta, hurrena, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako dauzkan eskumenen arabera (EAEko 10.28. artikulua).
18. Lege horren eduki materialari dagokionez, etiketetan bi hizkuntzak erabiltzeko eskakizunaren araudia Estatuaren oinarrizko legediari eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari egokitzen zaie. Beste formula batzuk erabiltzeko aukera kontuan hartzen bada (“euskaraz bai behintzat”, “euskaraz nahiz gaztelaniaz”...), Estatuak osasun-gaietako oinarriak arautzeko bere eskumenez baliatuz emandako oinarrizko arauak bete behar dira beti (EKko 149.1.16. artikulua) eta, zehazki, osasuna babesteko garrantzizko datuak zuzen ulertzea bermatzeko behar diren arauak errespetatu behar dira.
19. Legez bermatu behar da, bestalde, bai autonomia erkidegoko, foru-aldundietako eta tokian tokiko administrazioek sortu edo bere menpe dituzten enpresa eta sozietate publikoek eta bai zerbitzu publikoen emakidadun direnek ere –era guztietako kontsumitzaileei dagokienez-, administrazio publikoei dagozkien hizkuntza betebeharrak izatea, bakoitzak bere eremu soziolinguistikoan.
20. Legez eska dakieke, halaber, dirulaguntzaren baten onuradun diren enpresa pribatuei -zein administrazioarekin hitzarmen edo itunen bat dutelako dirutan laguntzak jasotzen dituzten enpresa pribatuei-, bi hizkuntza ofizialen erabilpenean eta hizkuntz paisaian (errotuluak, oharrak, jakinarazpenak, publizitatea...), herritarren eta kontsumitzaile guztien hizkuntz eskubideak bermatzea.

21. Aurreko bi paragrafoetan aipatu gabeko enpresa pribatuei dagokienez, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak arian-arian gauzatuko direla bermatzeko neurri egokiak sustatu behar dituzte aginte publikoek. Neurri horiek sustapeneko jardun publikoari lot dakizkioke, baina, ikuspegi juridiko soil-soiletik begiratuta, aukerakoa litzateke enpresa horientzat hizkuntz betebeharrak legez ezartzea; esaterako, hizkuntz paisaian zein jende guztiarentzako agiri eta informazioetan euskara agertzeko agindutako betebeharrak; kasu biotan, bada, bi hizkuntzetan idatzita egotea eska liteke, edo euskaraz “bai behintzat”.

PIZGARRI FISKALAK

22. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko, onura eta pizgarri fiskalak onar daitezke, maiatzaren 30eko 3/1989 Legea garatzeko onartutako harmonizazio-legeen bidez, eta lurralde historikoetako foru-arauen bidez. Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga arautzen dituzten araudietan aplika daitezke pizgarri horiek, Europako Erkidegoa eratzeko Ituneko 87.3. d) artikuluan enpresentzako laguntza publikoak onartzen direlako, baldin eta “kultura sustatu eta ondarea zaintzeko” badira, eta “Erkidegoko trukaketetarako eta lehiarako baldintzak interes orokorraren kontra jartzen ez badira”.

23. Tokian tokiko zerga-ordainketako pizgarri fiskalei dagokienez, nahiz eta Euskararen Erabilpena Arauzkutzeko Legeko 26 eta 27. artikuluetan legeoinarri nahikoa izan horretarako, zelan udal ordenantza fiskalak arlo hori arautzeko nahiko ez direla esanez etorri diren bata bestearen ondoren epai-erabakiak, arazo bat sortu dute. Beraz, egoera hori gainditzeko, Eusko Legebiltzarrak lege bat onartu behar du, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-korporazioek, bakoitzak bere eskumenen eremuan, euskararen erabilpena sustatu behar dutela esanez, eta, ondorioz, euskararen erabilpena normaltzeko eta bultzatzeko egintzetarako hobari eta salbuespen fiskalak ezar ditzaten.

TOKIKO HERRI-ERAKUNDEAK, ETA GEHIENGO EUSKALDUNA DUTEN GUNEEN AIPAMEN BEREZIA

24. Gune euskaldunenetako toki-administrazioen jardunean malgutu egin daiteke erkidegoko bi hizkuntza ofizialak biak batera erabiltzeko Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legean jasotako araubide orokorra. Izan ere, hizkuntza biak ofizialak izateak ez du esan nahi administrazio publiko guztietan nahitaezkoa denik bi hizkuntza ofizialetan bertako jarduera guztiak idaztea, eta hala onartu du jurisprudentziak berak ere.
25. Aukeran dago, bada, gune euskaldunenek bertako jardueretan euskara bakarrik erabiltzeko oinarri nahikorik emango duen legea onartzea, bai barruko zein kanpoko jardueratarako. Lege horren arabera, gaitasuna emango zaie udalei euskara bakarrik erabiltzeko, bakoitzaren testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta hala egitea erabakitzen badute. Euskara bakarrik erabiltzea ez da gaztelania erabiltzea baztertu edo debekatzea. Konstituzioak eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutoak zehazten duten hizkuntzen ofizialkidetasunaren araubidean bermatzen da herritarrek berek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea; beraz, eskubide horri zor zaion errespetua euskararen araubide juridikoaren ezaugarri baztertu ezina da edozein administrazio publikotan.
26. Beste eremu batzuei dagokienez, baina ez administrazioak berak euskara erabiltzeari dagokiona, txosten honetan beste gaien inguruan landutakotik atera ditugun ondorioak ikus daitezke. Azken batean, txosten honen xede diren arloetako jarduera-eremuak, hau da, gizarte-hedabideak, arlo sozioekonomikoa, e.a., hartzen dituzten lurralde-eremuak dira toki-erakunde publikoak eta gunerik euskaldunenak.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KOKATUTAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

27. Eusko Legebiltzarrak arautu ditzake, hizkuntz normalkuntzarako eskumenaz baliatuz, euskararen ofizialtasunak Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Estatuko administrazioan sortutako ondorio juridikoak (“euskararen ofizialtasunaren kontzeptuaren berezko edukia”); hala ere, Estatuari dagokio, bere barneko antolaketa gauzatzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoak ezarritako ofizialtasunaren legezko araugintza praktikan jartzeko antolamendua.

28. Eskumen hori gauzatuz, Eusko Legebiltzarrak arautu behar du euskararen ofizialtasunaren araubidea Estatuko administrazioan, beste administrazioentzat ezarritakoaren antzera, herritarrek eremu horretan dauzkaten hizkuntz eskubideak argi eta garbi zehaztuta gera daitezzen; hain zuzen, herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitzez eta idatziz harremanak izateko eskubidea, eta hizkuntza horretan jaramon egin eta erantzun dakien, herritarrei inolako itzulpenik eskatu gabe.

29. Herritarren eskubideak legez arautu behar dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuak dauzkan erregistroetarako, herritarrek erregistroarako hizkuntza bata zein bestea aukeratzeko daukaten eskubidea jasoz, harreman hori aktiboa zein pasiboa dela ere, eta aurkeztutako agiriek ondorio guztietarako daukaten balioa aitortuz, agiriok idazteko hizkuntza ofiziala edozein izanda ere.

30. Goiko baieztapenak Justizia administrazioa ere hedatu behar dira. Horrela, Eusko Legebiltzarrak –hizkuntz normalkuntzaren gainean dauzkan eskumenez baliatuz, eta Estatuak araututakoaren kontra jarri gabe-betebeharrak ezar diezazkioke legez Justizia administrazioari herritar guztiek beren hizkuntzak erabiltzeko bermea izan dezaten, eta Justiziako

zerbitzu publikoak berdintasunez har ditzan herritarrok, erabilitako hizkuntza ofiziala edozein izanda ere, hori baita Justiziako zerbitzu publikoaren betebeharra. Hizkuntz eskubideen artean arautu beharrekoa da, halaber, pertsona bakoitzak duela berari dagozkion justizia-jarduerak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea.

31. Magistratuen, epaileen, fiskalen eta Justizia administrazioaren zerbitzura dauden langileen hizkuntz gaitasunari dagokionez, baldin eta herritarrek Justizia administrazioarekin dituzten harremanetan erabilitako hizkuntza ofiziala edozein dela ere haien hizkuntz eskubideak bermatu nahi badira, ezinbestekoa da hizkuntz plangintzaren bat abian jartzea, lanpostu guztietan erkidegoko berezko hizkuntza jakitea balioetsi edo eskatzeko arauak zehaztu daitezen, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek hasitako plangintza erreferentziatzat hartuta kasu bakoitzean. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gainerako funtzionarioentzat ezarritako tratua antzerakoa eskatu beharko litzateke Justizia administrazioan ere.
32. Eusko Jaurlaritzari eskualdatuta dauden Justizia Administrazioako langileen lanpostuak betetzeko euskaraz jakitea eskakizun bat izateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren 63/1998 Dekretuaren kontra aurkeztutako eskumen-arazoan Konstituzio Auzitegiak hartzen duen ebazpena kontuan hartu beharko da baita abenduaren 26ko 309/2000 Dekretuan hizkuntz normalkuntzari buruz aipatzen duen erregelamendua ere –Justiziako zerbitzu publikoaren modernizazioari eta horrek Justizia administrazioaren zerbitzuko langileen lan-baldintzetan izango dituen ondorioei buruz sindikatuekin adostutako II. akordioa onartzen duen dekretua alegia–.
33. Salbuespen horrekin, Estatuko eskumenen eskumenekoa da Justizia administrazioarekin lotutako karrera profesionalen baitan euskaraz jakitearen gainean indarrean dauden arauak aldatzea. Horregatik, Eusko Legebiltzarrak arlo horretan daukan eginkizun bakarra legegintzako ekimenak sustatzea da, Estatuko legedia aldatzeko lege-proposamenak

eginez.

34. Epailen, fiskalen eta justizia administrazioko gainontzeko langileen artean gero eta kide elebidun gehiago egoteko hartutako neurriak beharrezkoak izanik ere, ez dira nahikoa euskara justizia administrazioan gero eta modu normalduago batean erabil dadin. Justizia administrazioko zerbitzu publikoa eskaintzerakoan kalitatea hobetu nahi baldin bada, neurri batzuk hartu beharra dago, epaile eta alderdien arteko komunikazioa itzultzaile edo interprete baten bitartekotzarik gabe joan dadin aurrera, ahal baldin bada behintzat. Hori lortu nahi bada, lege prozesalak aldatzeko eskatu beharko litzateke (Prozedura Zibileko Legea, Prozedura Laboraleko Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea), eta horrela, dena delako gaian lurralde-eskumena nork duen zehazterakoan, herritarrak zein hizkuntza aukeratu duen ere hartuko litzateke kontuan, eta epailearekiko harremana interprete edo itzultzailearen bitartekotzarik gabekoa izango litzateke.
35. Justizia administrazioaren esparruan bertan, lege mailako xedapen bat onartzea komeniko litzateke, gaiak nola banatu zehazteko orduan arauak zein printzipioen arabera jokatu behar duten jakiteko, eta xedapen horretan berriaz adierazi beharko litzateke dena delako gaia epaibidean jartzean erabilitako hizkuntza kontuan hartzeko moduko irizpide bat izan beharko litzatekeela bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan, beti ere ondorengo baldintza ere betetzen bada: barruti eta jurisdikzio bereko bi epaile edo gehiagok euskaraz ondo lan egiteko gaitasuna izatea.
36. Estatuak autonomia erkidegoan duen administrazioko langileei dagokienez, justizia administrazioko langileentzako aipatutakoen ildo berekoak dira gure proposamenak, baina kasu honetan egia da estatuko araudiak berak badioela autonomia erkidego bakoitzeko hizkuntza ofizialak jakitea zein lanpostutan izango den derrigorrezkoa zehaztu beharko dela, lanpostuaren ezaugarrien arabera. Gainera, estatuko araudian bertan esaten da autonomia erkidego bakoitzeko berezko hizkuntza ezagutzea meritutzat

hartuko dela herritarrekin harremanetan dauden lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko orduan. Kasu honetan, arazoa ez da bereziki indarrean dagoen legeriak dioena, esaten den hori betearaztea baizik.